EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

# GETARIAKO PORTUAREN PLAN BEREZIA

TESTU BATEGINA

2021eko maiatza

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO E INFRAESTRUCTURAS

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

# AURKIBIDE OROKORRA

Dokumentua: “A. MEMORIA”

Dokumentua: “B. ORDENANTZA ERREGULATZAILEAK”

Dokumentua: “C. EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN AZTERKETA”

Dokumentua: “D. EKONOMIA ETA FINANTZAKO AZTERKETA ETA JASANGARRITASUN EKONOMIKOARENA”

Dokumentua: “E. GENERO-IKUSPEGIA”

Dokumentua: “F. ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA”

Dokumentua: “G. EGIKARITZE-LABURPENA”

Dokumentua: “H. PLANOAK”

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

**LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA**
**EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA**

**IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA**

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## IDAZKETA-TALDEA:

Manu Arruabarrena Florez, Arkitektoa
Santiago Peñalba Garmendia, arkitektoa
Mikel Iriondo Iturrioz, abokatua

Maria José Fernández Calonge, delineazioa eta edizioa

<u>LANEN ZUZENDARITZA ETA JARRAIPENA, EUSKO JAURLARITZAKO EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILAREN ALDETIK</u>

Saioa Rezabal Arocena, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzako Herri Lanen arduraduna

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

# Dokumentua: «A. MEMORIA»

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

Or.:

**AURKIBIDEA:**

**1. SARRERA** ... 3
1.1 Proiektuaren helburua eta aurrekariak ... 3
1.2 Indarreko lege-esparrua ... 3

**2. EREMUAREN HIRIGINTZA-AZTERKETA** ... 4
2.1 Lurraldearen deskribapena. Lehendik dauden eraikuntzak eta azpiegiturak ... 4
2.2 Portuaren egoeraren deskribapen orokorra ... 6
2.3 Eremuaren ezaugarri geoteknikoak ... 9
2.4 Lurzoruaren jabetza-egoera ... 10
2.5 Lehendik dagoen kultura-intereseko ondarea ... 11

**3. ARAU SUBSIDIARIOEK ZER ZEHAZTEN DUTEN EREMURAKO** ... 12

**4. BESTE IRIZPIDE ETA HELBURU BATZUK, INDARREKO ARAU SUBSIDIARIOETAN DAUDENEN OSAGARRIAK** ... 20

**5. PROPOSAMENAREN KOMENIGARRITASUNAREN ETA EGOKITASUNAREN JUSTIFIKAZIOA** ... 21

**6. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN DESKRIBAPENA** ... 21
6.1 Aldez aurreko gaiak. Kontuan hartu diren antolamendu-alternatibak eta haien balorazioa ... 21
6.2 Adituek alternatibei buruz egindako balorazioa, eta Getariako porturako beste aukera osagarri batzuk, lehenago ere planteatuak ... 29
6.3 Alternatiben analisiaren ondorioa ... 30
6.4 Antolamenduaren deskribapen orokorra. Garatuko den alternatiba ... 30
6.5 Portu-erabileren programa ... 34
6.6 Bide-sarea ... 36
6.7 Urbanizazioa eta hiri-zerbitzuen azpiegiturak ... 36
6.7.1 Lursailaren egokitzapena, fabrika-obrak eta azaleko urbanizazioa ... 36
6.7.2 Ur-banaketako, ureztaketako eta suteen aurkako ur-harguneen sarea ... 37
6.7.3 Saneamendu-sarea. Hondakin-uren arazketa ... 37
6.7.4 Drainatzea ... 37
6.7.5 Energia elektrikoaren sarea ... 37
6.7.6 Argiteria publikoaren sarea ... 38
6.7.7 Telekomunikazioen sarea ... 38
6.7.8 Gas-sarea ... 38

**7. PLAN BEREZIAREN INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOA. EBALUAZIO AKUSTIKOA** ... 39

**8. IRISGARRITASUNA** ... 39

**9. GETARIAKO PORTUAREN HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA GENERO-IKUSPEGIA** ... 40

**10. PLANAREN BALIZKO INPAKTUA EGOERA SOZIOLINGUISTIKOAN** ... 40

**<u>AURKIBIDEA (jarraipena):</u>** <u>Or.:</u>

**11. PLAN BEREZIAREN EGIKARITZEA ETA KUDEAKETA** ........ 40
11.1 Kudeatzeko eta egikaritzeko baldintza orokorrak ........ 40
11.2 Urbanizazioa egikaritzea ........ 40
11.3 Eraikitzeko ahalmena baliatzea ........ 40

**I. ERANSKINA. MEMORIAREN LABURPENA ETA ANTOLAMENDUAREN EZAUGARRIEN TAULAK** ........ 1
Memoriaren laburpena ........ 3
Ezaugarri orokorren taula ........ 4
Zonifikazio globalaren taula – Portuan mugatuta dauden esparru funtzionalak ........ 5
Kalifikazio xehatuaren taula ........ 6
Partzela eraikigarriei esleitutako eraikigarritasunen eta okupazioaren taula ........ 7

**II. ERANSKINA. IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO INDARREAN DEN ARAUDIA BETETZEAREN JUSTIFIKAZIOA**
Eusko Legebiltzarraren 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa, eta Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena ........ 8

**III. ERANSKINA. URAREN EUSKAL AGENTZIAK HONDAKIN- URAK ETA EURI-URAK ITSASORA ISURTZEARI BURUZ IDATZITAKO TXOSTENA** ........ 10

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

**LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA**
**EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA**



IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

# 1. SARRERA

## 1.1. PROIEKTUAREN HELBURUA ETA AURREKARIAK

Plan berezi hau Eusko Jaurlaritzaren egungo Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren ekimenez egin da, eta portu-esparruko antolamendua eta zonifikazioa, bereziki xehatua, zehazteko helburua du. Hori guztia, honako hauetan ezarritakoaren arabera: indarrean dagoen lurralde-antolamenduan eta antolamendu sektorialean, udalerrian indarrean dagoen plangintza orokorrean (Arau Subsidiarioak), eta gaur egun aplikatzen ari den legeria berrian, bereziki lurzoruaren, hirigintzaren eta ingurumenaren eta ingurumen-ebaluazioaren arloan.

Testuak erantzuna ematen dio aipatutako sailak talde sinatzaileari egindako enkarguari, eta sail horren jarraipenaren eta zuzendaritza teknikoaren pean idatzi da.

Aurretiaz, hala “Hasteko dokumentua”, nola “Plan Bereziaren zirriborroa. Alternatiben dokumentua” idatzi ziren, eta horietatik abiatuta egin zen Getariako portuaren antolamenduaren helburuari dagokion irismen-dokumentua, Ingurumen Administrazioko Zuzendaritzaren 2019ko ekainaren 15eko Ebazpenaren bidez.

Plan Berezi hau egitearekin batera, Plan Bereziaren Ingurumen-azterketa estrategikoa eta Ingurumen-jasangarritasunari buruzko txostena idatzi dira, baita euskararen erabileran normalizazioarekiko litekeen inpaktuari eta genero-ikuspegia txertatzeari buruzko ebaluazioa ere.

Aurrekari horiekin, eta orduko Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren 2020ko abenduaren 1eko Aginduaren bidez, hasierako onespena eman zitzaion Getariako Portua Antolatzeko Plan Bereziari. Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legean eta lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuan aurreikusitakoa betez, onarpen hori 2020ko abenduaren 10ean argitaratu zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Diario Vasco egunkarian eta Noticias de Gipuzkoa egunkarian. Argitalpen horri esker, Plana eta haren Ingurumen Azterlan Estrategikoa jendaurrean jarri ziren, eta eraginpeko administrazio publikoei eta interesdunei kontsulta egin zitzaien, irismen-dokumentuaren arabera, 45 egun balioduneko epean. Izapide hori 2021eko otsailaren 16an amaitu zen.

Izapidera aurkeztutako alegazioak eta txosten sektorialak behar bezala baloratu ziren dagokion txostenean, eta, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak baliozkotu ondoren, espedientean sartu dira.

Plan Berezian sartu beharreko zenbait aldaketa eta osagarri jasotzen ditu, eta hori testu bategin honetan gauzatzen da.

## 1.2. INDARREKO LEGE-ESPARRUA

Plan Berezi hau egiteko, hirigintzari buruzko indarreko lege-esparrua hartu da kontuan; horretan, besteak beste, honako lege-xedapen hauek daude:

* 2/2011 Legegintzako Errege Dekretua, irailaren 5ekoa, Estatuko Portuei eta Merkataritzako Marinari buruzko Legearen testu bategina onartzen duena.
* 2/2018 Legea, ekainaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuena eta Itsas Garraioarena.
* Kostaldeei buruzko Legea, 1988ko uztailaren 28koa, Itsasbazterraren Babes eta Erabilera Jasangarriari buruzko 2013ko maiatzaren 29ko Legeak aldatua, eta Kostaldeen Erregelamendu Orokorra, 2014ko urriaren 10ekoa.
* 2/2006 Legea, 2006ko ekainaren 30ekoa, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko (2/2006 Legea) eta hura garatzeko xedapenak.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO E INFRAESTRUCTURAS

* Irisgarritasuna Sustatzeko Legea, 1997ko abenduaren 4koa, eta hura garatzeko xedapenak.
* Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen testu bategina, 2015eko urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua, eta Lurzoruaren Legearen balorazioen Erregelamendua (1492/2011 Errege Dekretua, urriaren 24koa).
* 3/1998 Lege Orokorra, 1998ko otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko ingurugiroa babesten duena, eta 211/2012 Dekretua, 2012ko urriaren 16koa, planen eta programen ingurumenaren gaineko eraginaren ebaluazio estrategikoa egiteko prozedura arautzen duena. Aurreko xedapenez gain, eta arlo berberei dagokienez, hauek gehitu daitezke: Proiektuen Ingurumen-inpaktua Ebaluatzeko Erregelamendua (1998ko irailaren 30eko Errege Dekretua) eta Ingurumen Ebaluazioko Legea, 2013ko abenduaren 9koa.

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

* Zaratari buruzko Legea, 2003ko azaroaren 17koa, eta 2005eko abenduaren 16ko eta 2007ko urriaren 19ko errege-dekretuak, hura garatzekoak, giroko zarata ebaluatu eta kudeatzeari dagokionez lehenengoa, eta zonifikazio akustikoari, kalitate helburuei eta emisio akustikoei dagokienez, bigarrena.
  Aurreko xedapenez gain, 213/2012 Dekretua, urriaren 16koa, Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzkoa, dago.
* 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa, eta 3/2007 Legea, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirakoa.
* 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
* 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
* 4/2019 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoko Jasangarritasun Energetikoari buruzkoa.
* Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak (behin betiko onespena: 2019ko uztailaren 30a).
* Euskal Autonomia Erkidegoko Itsasertza babestu eta antolatzeko Lurralde Plan Sektoriala (behin betiko onespena: 2007ko martxoaren 13a). Ondoren, 2013ko azaroaren 19an, plan horren aldaketa bat onartu zen.
* Zarautz-Azpeitia (Urola Kosta) Eremu Funtzionalerako Lurralde Plan Partziala (otsailaren 21eko 32/2006 Dekretuaren bidez behin betiko onartua) eta ondorengo aldaketak.

Halaber, indarrean dauden udal-arau subsidiarioetako zehaztapenen arabera idatzi da. (Behin betiko onarpena: 2007ko ekainaren 19a – Testu bateginaren onarpena: 2008ko uztailaren 15a)

## 2. EREMUAREN HIRIGINTZA-AZTERKETA

### 2.1. ESPARRUAREN DESKRIBAPENA. LEHENDIK DAUDEN ERAIKUNTZAK ETA AZPIEGITURAK

Jatorriz, San Anton mendia lehorrarekin lotzen zuen istmo bat zegoen, eta toki horretan kokatu ziren portua eta herria, erantsitako irudian ikus daitekeen moduan.




Bertan finkatu ziren Getariako herria eta portua, eta bien arteko lotura bat eratu zen, aipatutako irudian agertzen den lehenengo porturako sarbidea emateko.

Zalantzarik gabe, oso lurralde berezia da, bakarra Gipuzkoan. Giza kokagune izateko aukeratu zenetik, etengabeko bilakaera izan du gaur egun arte, nolabaiteko oreka mantenduta lurraldearen berezitasunaren eta biztanleen ekintzaren artean; izan ere, hiri-antzeztokiko eguneroko aktoreek tokia egokitu behar izan dute, bizigarritasun-baldintza egokiak aurkitzeko.

Hala, portua hazten joan zen denboran zehar; lehenik, kofradia zaharreko kaian oinarrituta, lehen dike batzuekin babestuta; gero, iparraldean, dike berri bat egin zen, eta hegoaldean beste dike bat, eremua bilduta geratzeko. Haiekin, hirigunearen bilakaerarekin batera, Malkorbeko hondartza ere aldatu zen, gaur egun duen fisionomia izatera heldu arte.

Francisco Coelloren planoa, 1857

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an
Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

Berrikiago, Zumaiatik porturako zuzeneko sarbidea egiteak bide eman zuen Txoritonpe ezartzeko; hala, porturako lurzorua eta pabiloiak jarri ziren, eta portuko jarduerari mesede egin zitzaion, eta, era berean, kasu honetan, Gaztetapeko hondartzaren forma egokitu zen.

Etengabeko egokitzapen-prozesua izan da, baina tokiko oinarrizko inbarianteak errespetatu ditu, San Anton mendia, esaterako, Kantauri itsasoa aurrez aurre duela.



(Txoritonpe), Ketarri barne.

Gaur egun, eremu hauek bereizten dira portuan:

- Erdialdeko zona, hots, kofradia zaharreko kaia eta horren atzealdea.

- Iparraldeko zona, hots, San Anton azpiren aurrealdea eta iparraldeko dike berria, kofradia berria eta lonja berria hartzen dituena.

- Hegoaldeko zona, hots, hegoaldeko kaia eta dikea, ur-kiroletako gaur egungo zona barne.

- Mendebaldean, Zumaiatik datorren sarbidea eta Gaztetapeko hondartzaren aurrealdea daude.

- Ekialdean, Zarautzetik datorren sarbidea eta Malkorbe hondartzaren aurrealdea daude.

Testuinguru horretan, Getariako Portua Antolatzeko Plan Bereziak barnean hartzen du, ezertan eragotzi gabe izapidetzearen testuinguruan zehazten dena, 22,40 hektareako esparru bat, portuko ur-geruzaren gainazala barne, portuko jabari publikoaren mugara egokituta (Sailak eskatuta sartu dira Tintaleku eta Viveros eraikinak); Getariako indarreko arau subsidiarioetan jasotako portu-eremua baino pixka bat txikiagoa da.

Esparru hori Getariako herrigune historikoaren eta Kantauri itsasora begira dagoen San Anton mendiaren artean dago, horren babespean. Porturako lehorreko sarbideak ditu N-634 errepidetik, Zumaiatik eta Zarautzetik. Ondorioz, Malkorbe (ekialdean) eta Gaztetape (mendebaldean) hondartzen aurrealdeak ere barne hartzen ditu.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA




**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

Getariako portuaren gaur egungo planoa

## 2.2 PORTUAREN KOKAPENAREN DESKRIBAPEN OROKORRA

Getariako portuak irisgarritasun-baldintza onak ditu, hala itsasotik nola lehorretik, nahiz eta azken horiek N-634 errepideko arazoek baldintzatzen dituzten; izan ere, itsaslabarraren oinean dagoenez, materialak erortzen dira bertatik, eta trafiko-etenaldiak egoten dira maiz.

Halaber, herrigune historikoarekiko integrazio-baldintza egokiak ditu, nahiz eta optimizatzeko aukera dagoen.

Bestalde, bi hondartzen artean dago, zeinek portuaren potentzialtasuna baliarazten duten eta bi zuzkiduren erabileraren bateragarritasun-baldintzak gehiago zaindu beharra dakarten.

Barrutiaren barruan, portua nagusiki bi jardueratarako erabiltzen da: bata, tradizionala eta jatorrizkoa, hots, arrantzarekin lotutako ekoizpen-sektorea; bestea, aisiarekin eta ur-kiroletako jarduerekin lotua.

Gainera, portuari esker, portuaren beraren eta herrigunearen bideragarritasunari eta irisgarritasunari laguntzen zaio, eta bi eremuen zerbitzura dauden aparkalekuak daude; horrek guztiak oreka izaten jarraitu behar du ezarri beharreko antolamenduan.

Bestalde, askotariko zerbitzu-azpiegiturak ditu, batzuk portuko jarduerarenak berarenak, beste batzuk portuko esklusiboak ez direnak, hala nola tokiko saneamendu-sarea.
<u>ARRANTZAKO PRODUKZIO-JARDUERA</u>

Gaur egun, udalerriko arrantza-jarduera tradizional eta bereziak bilakaera izan du, eta, lan hau egiteko bildu diren datuen arabera, Getariako portuko arrantza-ontzidia beherantz doa pixkanaka, modu jarraituan. Alabaina, harrapatutako aleen kopuruak eta horien salmentaren balioak gorabeherak izaten ditu, eta arrantzatzen diren espezie motak ere aldatuz doaz.

Hala, 2000. urtetik hona, baxurako ontzidiko ontzien kopurua progresiboki jaitsi da, 39 unitatetik 28ra. Era berean, ontzien neurria ere txikiagotu da; hala, 15 ontzik soilik dute 25 metrotik gorako luzera, eta 10 ontzik 10 metro edo gutxiagoko luzera dute.

Bestalde, aipatu behar da 2006an 20.000 tona arrantzatu zirela, eta gerora 15.000 tona inguruan geratu dela zifra hori. Espeziearen arabera aztertzen badugu, berdela da gehien arrantzatu dena azken urteotan, eta atzean geratu dira hegaluzearen eta antxoaren harrapaketa kopuruak (horiek, bestalde, balio handiagoa dute salmentan). Ez da aurreikusten joera-aldaketa gertatuko denik ontzi kopuruaren jaitsieran, baina arrantzatutako aleen kopuruak eta salmenta-balioak gorabeherak izaten jarraituko dute.

Ondorioz, arrantzako dartsenen ur-geruzaren gaur egungo azalera nahikoa da ontzidi horrentzat. Gehitu behar da dartsena horiek, une jakin batzuetan, Kantauriko beste ontzidi batzuetako ontzien babesleku direla (15 gehiago, batzuetan), nagusiki udan. Horregatik, egoera puntual horiei arreta egitea deusetan galarazi gabe, egokia dirudi arrantzako dartsena horien erabilera berriz antolatzea eta optimizatzea.

Horretarako, aintzat hartu behar da arrantzako jarduerak, gaur egun, barneko dartsena osoa eta kanpoaldeko ipar-dartsena hartzen dituela. Barnealdeko dartsena puntualki erabiltzen da, erregaia kargatzeko edo aldi luzeagoetan ontziak gordetzeko, nagusiki, eta beteranoen ontziak ere gordetzen dira; aldiz, kanpoaldeko ipar-dartsenan egiten da jarduera gehien: zamalanak, lonjarako sarbidea...

Arrantza-zonaren ezaugarriei dagokienez, nabarmendu behar da dikez babestutako lur-eremu zabala dela, eta aire zabaleko kaiak eta askotariko eraikuntzak dituela: arrantzaleen kofradia

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an. Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO E INFRAESTRUCTURAS

berria iparraldeko dikean; arrain-lonja, iparraldeko dikean hori ere; biltegiak iparraldeko dikean; izotz-fabrika, iparraldeko dikean; izotz-fabrika zaharra, hozkailuak, biltegia eta kutxak garbitzeko zona, kofradia zaharreko kaian; erregai-hornigailua, kofradia zaharreko kaian; ontzitegia, baskula, garabia eta beste batzuk.

Gainera, aipatu behar da beste eraikin batzuk daudela kofradia zaharreko kaian: kofradia zaharraren eraikina, zeina gaur egun ez den erabiltzen, eta Itsas Etxe eraikina, zeinaren zati bat ez den erabiltzen, bertan zeuden udal-anbulatorioa eta eguneko zentroa lekualdatu egin baitituzte duela gutxi. Bestalde, eta arrantzaleen kofradiarentzako emakida bidez, sare-biltegi bat eraiki da iparraldeko dikeko kaian.

Planteatu beharreko beste ekimen bat ere aipatu behar da, etorkizunean eska daitezkeen portu-erabilera berriak eta horiek egokiro hartzeko planteatu beharreko irtenbideak identifikatzeari buruz. Horretarako, aurretik zeuden edukiontziak eta indarreko plangintza orokorrak portuan baimentzen duen eraikigarritasun gehigarria daude. Erabilera berri moduan, kontuan har eta eztabaidatu daitezen, honako hauek aipatzen dira, besteak beste: arrainaren lehenengo edo bigarren transformazioko erabilerak ezartzeko eraikinak eraiki ahal izatea, eta arrantzarekin lotutako hirugarren sektoreko erabilera osagarriak (merkataritza, ostalaritza edo hotelak, besteak beste) antolatzeak izan dezakeen interesa. Berrantolamendu horretan kontuan hartu beharko da aire zabaleko lurzoruak gordetzea, zamalanetarako kaientzako tokia izateko.

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

**LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA**
**EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA**

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES




Getariako portuaren irudia 2016. urtearen hasieran. (Google Earth)

UR-KIROLETAKO JARDUERA

Ur-kiroletako jarduera berriagoa da portuan, eta horretarako erabiltzen den ur-geruzan (kanpoaldeko hego-dartsena) 274 amarraleku daude, Euskadiko Kirol Portuak (EKP) enpresak kudeatuak.

Oro har, luzera txikiko ontziak dira, gehienak 8 metro baino gutxiagokoak, ontzien % 20 baino gutxiagok gainditzen baitu tamaina hori. Ontzi gehienak motordunak dira, belaontziak % 20 baino gutxiago baitira.

Emandako informazioaren arabera, 211 ontzi daude itxarote-zerrendan (gaur egungo batez besteko luzera baino handiagoa dute); aldi berean, aukera hau planteatzen da: iragaitzazko eta kortesiako amarralekuak hobetzea, kirol-jardueren funtzionaltasuna erraztea eta askotariko kirol- eta aisia-jardueretarako pantalanak ezartzea.

Horrek agerian jartzen du jarduera horrek gorantz egin dezakeela, horretarako behar duen tokia ematen bazaio, eta gaur egungo antolamenduak ez du ematen.

Jarduera horrek, are gehiago amarraleku-kopurua handitzen bada, jarduera berriak erakar ditzake portura, ontzien mantentze-lanari eta salmentari eta haien hornikuntzari lotuak.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an. Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

Halaber, ikus daitekeenez, portua eta horren ingurua erreferentziako tokitzat duten kirol-jarduerak ugaritu dira azken urteotan: arraunketaren zenbait modalitate, urpekaritza, bela, kirol-arrantza, surfa, etab. Jarduera horiek instalazio aproposak eskatzen dituzte, eta horretarako erantzun egokia eman daiteke dauden eraikuntzak egokituta, baita indarreko plangintza orokorrak eskaintzen duen eraikigarritasun gehigarriaren bitartez ere.

Gaur egun, hauek aurki daitezke ur-kiroletarako zonan: eraikin bat, sorospen-gunea eta EKPren bulegoak hartzen dituena, beste zerbitzu-eraikin bat, eta jatetxe eta kafetegi bat. Jarduera batzuk egiteko aire zabaleko eremuak bakarrik daude. Zonan ontzitegia, travelling-a eta abar daude, eta bidaiarientzako geltokia eta ibilgailuak aparkatzeko gune gehigarria izateko aukera dago.

Bestalde, zona horretan daude Malkorbe hondartzako zerbitzuak; surfeko instalazioak, berriz, Gaztetape hondartzaren aurrealdean daude.

## PORTUAREN EZAUGARRI NAGUSIAK

Aipatutako arrantzako eta ur-kiroletako jarduera horiek hartzeko, portuak ezaugarri orokor hauek ditu, portuaren babes-, amarraleku- eta irisgarritasun-azpiegiturei dagokienez:

- Bi dartsena, bata barnealdean, babestuagoa, eta bestea kanpoaldean, handiagoa.

- Kanpoaldeko dartsenaren ahoak 60 metroko zabalera du; barnealdeko dartsenaren ahoak, berriz, 40 metrokoa.

- Sakonera 11 eta 5 metrokoa da, kanpoko eta barnealdeko ahoetan, hurrenez hurren.

- Ur-geruzaren guztizko gainazala 65.000 m² ingurukoa da, eta atrakatzeko kaien luzera operatiboa, 800 metro ingurukoa.

Ezaugarri horiekin, portuak babes egokia ematen die ontziei, baina hauteman da portuko barnealdeko dartsenari irizten zaiola babes handiagoa ematen duela, eta kanpoaldekoari, berriz, mugituagoa dela.

## PORTUAREN BESTE ERABILERA ETA JARDUERA BATZUK

Aipatutako jarduera nagusi horiei, batetik, askotariko jarduera ekonomikoak gehitu behar zaizkie, nagusiki Txoritonpen daudenak; bestetik, turismoaren eta merkataritzaren sektoreekin eta ostalaritzarekin lotutako jarduerak daude.

Plan Bereziak erabilera horiek antolatzen ditu, haiek portuan ezartzeko erregulazio espezifikoaren testuinguruan.

Bestalde, portuaren esparrua San Anton Azpi esparrurako sarbidea da; are gehiago, eremu independente hori osatzen duten eraikuntzetako batzuk barne hartzen ditu, hirigintza-plangintzan ezarritakoaren arabera. Eremu horretan, besteak beste, klub nautiko zaharraren eraikina, udalerriko hondakin-uren araztegia eta portuari zerbitzu ematen dion erregai-andela daude.

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

APARKALEKUA ETA ERREPIDEKO ZIRKULAZIOA

Gaur egun, Zarautzetik datorren porturako sarbidean ibilgailuen noranzko bakarreko zirkulazioa dago, halako moldez non sarbidearen zeharkako sekzioan espaloia eta lerroko aparkalekua dauden. Zumaiatik datorren sarbidean, berriz, ibilgailuen bi noranzkoetako zirkulazioa dago, baita espaloia eta bereizitako zeharkako aparkaleku handia ere, hirigune historikoarekin eskailera bidez lotua.

Bide horrek erantzun egokia ematen die mugikortasunari eta irisgarritasun-baldintzei, eta aukera ematen du aire zabaleko aparkaleku asko izateko, baita zenbait kaitan ere. Gaur egun, aparkalekuok portuari berari, zamalanei, Getariako hiri-eremuari eta hondartzei ematen diete zerbitzu.

Plan Berezian, beharrezkoa den aparkaleku-hornidura eta hori gauzatzeko modua jasotzen dira, baita espezializazioa ere, dauden premiei erantzun emateari dagokionez, gaur egun arte ebatzi den ildotik.

Mugikortasunaren eta irisgarritasunaren arloetan kontuan hartu beharreko alderdi bat portuaren eta hirigune historikoaren arteko integrazioa hobetzea da; horretarako, Udalak dagoeneko eman ditu irtenbide batzuk, ezertan eragotzi gabe lan honen garapenaren testuinguruan kontuan hartu beharreko batzuk, jarraian azalduko dugun moduan.

PORTUAREN INTEGRAZIOA HIRI-EREMUAN

Integrazio hori, nahiz eta egokia izan azken urteotako ekintzen ondorioz, hein handi batean hobetu daitekeela esan daiteke.

Hala, porturako zuzeneko eta oztoporik gabeko sarbidea proposa daiteke, Katraponatik eta Aldamar kaletik, Zarautz jauregiaren parean; aldi berean, Arnao Jenerala kaletiko irisgarritasun-baldintzak hobetu daitezke. Azken ekimen hori osatzeko, kale horretarantz zabal daiteke portua.

## 2.3. EREMUAREN EZAUGARRI GEOTEKNIKOAK

Ikuspegi tektoniko-estrukturaletik, tokia markatzen duen egitura tektonikoa Pagoetako zamalkadura da, hots, Donostiako eta Oizko bi unitateen arteko lurralde-muga. Ikuspegi estratigrafikotik, eremuan azaleratzen diren materialak, Kuaternarioa salbu, Aptiarraren eta Behe Eozenoaren artekoak dira, Orogenia Alpetarraren tektonikaren eraginpean. Nagusitzen diren materialak Tertziariokoak dira, zehazki, flysch tertziariokoak, nagusiki hareharriak eta lutitak (Eozenoa). Hala, hareharriak eta lutitak azaleratzen dira, txandaka, nagusiki lehenengoak (% 70). Hareharri geruzok, oro har, nahiko handiak dira (5 metrora artekoak), eta pikorraren tamaina, batzuetan, harea lodia izatera heltzen da.

Ikuspegi geomorfologikoa eta gainazaleko eraketak kontuan hartuta, nabarmentzekoa da itsaslabarreko eraketak eta askatutako masen seinaleak daudela, baita askatutako masak ere, itsaslabarrei lotuta, azalera oso txikikoak, sakabanatuta eta isolatuta San Anton mendiaren mendebaldean.

Interesgune geologiko-geomorfologiko modura, San Anton mendia elementu berezia da. “Penintsula txiki” horren morfologia itsasoak eta haizeak askotariko trinkotasuneko materialetan izandako higaduraren ondoriozkoa da.

Hala, penintsularen muturra txandakako hareharriz eta lutitaz osatuta dago, nagusiki bigarrenaz, eta loturako istmoan hareharriak nagusitzen dira, lutiten gainetik. Material horien askotariko higagarritasuna dela-eta, itsasoaren ekintzak istmoa ia guztiz desagerrarazi du. Ekaitz-garaietan, lerro mehea urez estalita geratzen zen, garai batean; horregatik, egitura artifizialak eraiki ziren,

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an
Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021
LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA
IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO E INFRAESTRUCTURAS

penintsularen eta lehorraren arteko lotura iraunkorra bermatzeko. San Anton mendiaren forma ondoz ondoko bi lauketa mailakatuk eragiten dute, sagu-figuraren "gorputza" eta "burua" osatzen baitute, hurrenez hurren. Bi gainazal lautuak, seguruenik, itsasoak eragindako higadurak berdinduko zituen, aspaldiko garaietan (duela ehunka mila urte), itsasoaren maila gaur egungoa baino gorago zegoenean.

Era berean, interes geologikoko gunetzat hartu behar da kostako zerrenda edo itsasertza eta, bereziki, itsaslabarrak eta hareazko eta harri-koskorrezko hondartzak.

Tokiaren hiri-ezaugarriak direla-eta, ez dago balio bereziko lurzorurik, esparruaren lurraldea guztiz artifiziala eta urbanizatua baita.

## 2.4. LURZORUAREN JABETZAREN EGOERA

Eremuan dauden lursailak itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko ondasunak dira, Euskal Autonomia Erkidegora atxikiak haren eskumenak erabiltzeko, Autonomia Erkidegoaren beraren titulartasuneko portu eta garraiobide berriak eraiki, erabili eta kudeatze aldera.

Aipatutako lursail atxikiek itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko ondasunaren kalifikazioari eusten diote, Kostaldeei buruzko Legearen 49. artikuluari jarraikiz.

Eremuaren mugaketatik ondorioztatuz gero aipatutako erakundeaz bestelako jaberen baten lursailak sartu beharra, dagokion jabetza kentzeko espedientea edo ordezko akordioa egin beharko da, esparruaren barruko lursailen titulartasun osoa lortzeko.

## 2.5. LEHENDIK DAGOEN KULTURA-INTERESEKO ONDAREA

Ildo horretan, Arau Subsidiarioek adierazten dute eremuko elementu batzuek nolabaiteko interesa dutela, kultura-ondarekoak izan daitezkeelako. Hauek dira:

* 2- Tipologiarekin/ingurumenarekin lotura duen kontserbazio-mailari atxikitako elementu arkitektonikoak

- 2.1 Sotoa
- 2.2 Txueka sotoa
- 2.3 Sotoa
- 2.4 Balenciaga sotoa
- 2.5 Sotoa
- 2.6 Biltegi-sotoa

* 3- Tokiko kontserbazio-mailari atxikitako elementu arkitektonikoak

- 3.3 Arrantzaleen kofradia

* 4- Balizko arkeologia-guneen araubidearen eraginpeko elementuak eta esparruak

- 4.3 Getariako atea
- 4.4 San Pedro Ugarte baseliza

Gainera, eta kontuan hartuta zonaren ezaugarriak eta bertan urpeko hondakin material eta informazio arkeologikoak aurkitzeko aukera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuari komunikatu beharko zaio lohiak ateratzeko, dragatzeko, ibilguak aldatzeko edo antzeko edozein jarduera.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA




"Hiri-eremuan katalogatutako elementuak" planoaren zatia
Getariako Arau Subsidiarioak

Gainera, kontuan hartu behar da portuaren mugak Getariako hiriguneko monumentu-multzoarekin bat datozela, eta, beraz, hirigunean ezarritako babesak aplikatuko zaizkie ondoko bi eremuetako elementuei (Hirigunea eta Portua).

Era berean, Kultura Ondareari buruzko Legearen 65. artikulua (6/2019 Legea) aplikatuko da Arau Subsidiarioek eremurako definitutako Ustezko Arkeologia Zonetan, eta hori itsas azpiko zonetara hedatuko litzateke, portuko badia eta bokalean, bai eta hegoaldeko kai-muturraren eta Malkorbeko hondartzaren artean ere, baleak urperatu eta arrantzatzearen ondorioz.

Azkenik, kontuan hartu beharko da proposatutako eraikuntza-jarduera batzuek Kultura Ondarean izan dezaketen inpaktu-arriskua, eta horiek prebenitzeko beharra, hala nola Tintalekuko teilatupea edo Kofradiako kaiko lurpeko garajea, bai eta edozein urbanizazio-jarduketa portuko ingurumen-balioekin harmonizatzea ere.

## 3. ARAU SUBSIDIARIOEK ZER ZEHAZTEN DUTEN EREMURAKO

Getariako udalerrian aplikatzeko plangintza orokorra osatzen dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 2007ko ekainaren 19an onartutako eta indarrean dauden Arau Subsidiarioek. Gerora, 2008ko uztailaren 15eko Ebazpenaren bidez, testu bategina onartu zen.

Arau horietan, zenbait dokumentuk guztiz zehazten dute aplikatu beharreko plangintza orokorra eta, bereziki, proiektu honen esparruan kontuan hartu behar dena. Ildo horretan, aipatutako espedienteek eremua garatzeko proposatzen duten esku hartzeko irizpide eta helburuak kontuan hartu dira Plan Berezi honetan.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an. Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

Eremuan aplikatu beharreko oinarrizko zehaztapen espezifikoei dagokienez, jarraian osorik jasotzen dira Getariako Arau Subsidiarioen “XIV. Portua HE” hirigintza-eremuari dagozkion Hirigintza Arau Partikularrak.

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

**LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA**
**EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA**

**IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA**

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## A.U. <u>“XIV – PORTUA”</u> (Superficie: 226.584 m²)

## I.- CRITERIOS Y OBJETIVOS DE ORDENACION

* Consolidar el puerto de Getaria y propiciar las condiciones oportunas para su pervivencia y funcionalidad, sin perjuicio de la preservación de la imagen urbana del entorno en el que se localiza.
* Consolidar la lámina de agua cerrada por lo muelles norte y sur.
* Consolidar la nueva lonja y la nueva cofradía, así como el muelle pesquero.
* Consolidar el puerto deportivo y las instalaciones y edificaciones asociadas a este y a la playa de Malkorbe.
* Consolidar la edificación correspondiente a la cofradía vieja y aquellas que junto a ella se alinean frente al puerto.
* Consolidar la edificación industrial (industrias auxiliares, fábricas de conservas, etc.) y terciaria (comercial y hostelera) existente al oeste del puerto.
* Consolidar la edificación correspondiente al Tintaleku.
* Consolidar los accesos viarios al puerto, a las playas de Malkorbe y Gaztetape, así como a la zona baja del casco histórico y a San Antón, regulando complementariamente el aparcamiento al servicio de todos ellos.
* Consolidar las playas de Malkorbe y Gaztetape.
* Favorecer la integración y mixtura de los usos portuarios, terciarios, industriales y dotacionales ordenando sus condiciones de compatibilidad.
* Plantear intervenciones de adecuación de las infraestructuras de servicios en el Área.
* Considerar la oportunidad de ubicar en el Área un centro temático o cultural en torno a la figura de Elcano.
* Ordenar las posibilidades de edificación adicionales oportunas.
* Remitir la ordenación pormenorizada del Área a la redacción de un Plan Especial de Ordenación del área del puerto cuya promoción corresponde a la dirección General de Puertos del Gobierno Vasco.
* Ajustar para todo ello la delimitación del Área precisando sus límites, incorporando el acceso por Gaztetape ya ejecutado y toda la edificación ejecutada, así como el edificio Tintaleku íntegramente.
* Sugerir de cara a la tramitación del Plan Especial el interés de destinar a usos dotacionales al servicio del municipio el edificio Tintaleku y la antigua cofradía, tal y como ya ocurre parcialmente con el edificio Itsas-etxea.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

GETARIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE GETARIA

## A.U. “XIV” (Cont.)

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## II.-REGIMEN URBANISTICO GENERAL

### 1.-CALIFICACION GLOBAL

* **ZONA P.1/I** (Portuaria) ..................................................**(Superficie: 226.584 m²)**

- Condiciones particulares de edificación:

  . Se consolida el aprovechamiento existente.
  Se autoriza la ampliación del aprovechamiento existente en un 15%, para lo cual será precisa la aprobación definitiva del Plan Especial del Puerto.

  . Condiciones de regulación del aprovechamiento edificatorio:

    * Parámetros reguladores de la forma de la edificación:

      - Perfil de edificación: ........................................................................ III/II

      - Altura de edificación:

        Se consolida la existente sin perjuicio de la posible reconsideración del perfil de la edificación e incluso del aumento de dicha altura máxima puntualmente hasta 10 metros.

- Condiciones particulares de uso:

  . Se propiciará la adecuada compatibilización de los usos portuarios, industriales, terciarios y dotacionales.

  . Se consolidan los usos dotacionales existentes sin perjuicio de su eventual relocalización en el área.

  . Se ordenará adecuadamente el tránsito motorizado y no motorizado libre de este a oeste a través del puerto así como el aparcamiento, dando servicio adecuado al puerto, a las playas y al conjunto del área urbana de Getaria.

  . Se prohíbe expresamente el uso residencial.

**A.U. “XIV” (Cont.)**

## 2.- REGIMEN JURIDICO DE DESARROLLO Y EJECUCION

* Clasificación del suelo:
  - SUELO URBANO.
    Cuenta con la urbanización consolidada de acuerdo con el presente documento.

* Régimen de desarrollo y ejecución del planeamiento:
  - PLAN ESPECIAL DE ORDENACIÓN DEL PUERTO a promover por el Gobierno Vasco en atención a su competencia en la materia.

* Programa de actuación:
  - EJECUCION DEL PLAN ESPECIAL.

* Régimen general de asignación del aprovechamiento urbanístico:
  - Se estará a lo dispuesto en la legislación vigente.

## III.- ORDENACION PORMENORIZADA

### 1.-CALIFICACION PORMENORIZADA

* Las condiciones de zonificación pormenorizada en el área serán las definidas por el correspondiente Plan Especial.

### 2.-MEDIDAS CORRECTORAS, COMPENSATORIAS Y DE INTEGRACIÓN PAISAJÍSTICA

* Se habrán de considerar las medidas correctoras y compensatorias establecidas en el estudio de evaluación conjunta de impacto ambiental del presente documento, así como su programa de supervisión.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

GETARIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE GETARIA

## A.U. "XIV" (Cont.)

### IV.- DETERMINACIONES EN RELACIÓN CON LA APLICACIÓN DE LA LEY DE COSTAS

Las determinaciones de las Normas Subsidiarias no alteran el dominio público marítimo-terrestre.

La utilización del dominio público marítimo-terrestre se regula según lo especificado en el Título III de la Ley 22/88 de Costas.

Se plantea la necesidad de incorporar en su momento, en el correspondiente Plan Especial, las limitaciones que dimanan de la Ley 22/88 de Costas y, en particular, de su título II.

Los usos en la zona de servidumbre de protección se ajustarán a lo dispuesto en los artículos 24 y 25 de la Ley 22/88 de Costas, debiendo contar los usos permitidos en esta zona, con la autorización del órgano competente de la Comunidad Autónoma, de conformidad con lo determinado en los artículos 48.1 y 49 del Real Decreto 1112/92 por el que se modifica parcialmente el Reglamento de la Ley 22/88 de Costas.

Se deberá garantizar el respeto de las servidumbres de tránsito y acceso al mar establecidas en los artículos 27 y 28 de la Ley 22/88 de Costas, respectivamente y el cumplimiento de las condiciones señaladas en el artículo 30 para la zona de influencia.

Las obras e instalaciones existentes a la entrada en vigor de la Ley 22/88 de Costas, situadas en zona de domino público o de servidumbre, se regularán por lo especificado en la Disposición Transitoria Cuarta de la Ley 22/88 de Costas.

Las instalaciones de la red de saneamiento deberán cumplir las condiciones señaladas en el artículo 44.6 de la Ley 22/88 de Costas y concordantes de su Reglamento.

Se adjunta gráfico relativo a las condiciones de aplicación de la Ley de Costas.

* 1. CONDICIONES DE APLICACIÓN DE LA LEY DE COSTAS .........Escala 1/2.000

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

GETARIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE GETARIA

**A.U. "XIV" (Cont.)**

## V.- EMPLAZAMIENTOS CON ACTIVIDADES POTENCIALMENTE CONTAMINANTES DEL SUELO

Se identifican en tal situación los ámbitos situados en el puerto denominados A-2 y A-4, incluidos en el inventario realizado al efecto por el IHOBE que se corresponden respectivamente con las parcelas de Hermanos Estolaza, C.B. y de Petronor, estaciones de servicio, S.A..

Será de aplicación en el ámbito la Ley 1/2005, para la prevención y corrección de la contaminación del suelo, de 4 de febrero de 2005.

Se adjunta un gráfico en el que identifica la localización de las parcelas referidas.

* 2. EMPLAZAMIENTOS CON ACTIVIDADES POTENCIALMENTE CONTAMINANTES ........................................................................ Escala 1/2.000

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

GETARIAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE GETARIA

## A.U. XIV "PORTUA"




**GRAFICO 1**
**CONDICIONES DE APLICACIÓN**
**DE LA LEY DE COSTAS**

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

**NORMAS SUBSIDIARIAS DE PLANEAMIENTO MUNICIPAL GETARIA** **NORMAS URBANISTICAS PARTICULARES** -80-
**Agosto 2007**

## A.U. XIV "PORTUA"




**GRAFICO 2**
**EMPLAZAMIENTOS CON**
**ACTIVIDADES POTENCIALMENTE CONTAMINANTES**

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

Horrekin guztiarekin, behar adina zehaztuta geratzen da aipatutako hirigintzako testuingurua.

Aipatutako zehaztapenak betetzen direla memoria honen 5. eta 6. epigrafeetan dago justifikatuta, proposatutako antolamendua eta irtenbideen deskribapenaren eta horiekin batera doazen taulen bitartez.

## 4. BESTE IRIZPIDE ETA HELBURU BATZUK, INDARREKO ARAU SUBSIDIARIOETAN DAUDENEN OSAGARRIAK

Irizpide eta helburu horiekin batera, portuen sektoreari eta ingurumen- eta paisaia-arloei dagozkienak daude; hain zuzen ere:

* Portuko instalazioen funtzionaltasuna hobetzea, bereziki, kaien aprobetxamendua, haietara lehorretik zein itsasotik sartzeko bideak eta dartsenen babes-baldintzak. Gai oso desberdinak aipatzen dira, esaterako, lehendik zeuden bi izotz-fabrikak bateratzea, edo oinezkoak zein ibilgailuak lonjako kaira sartzeko irisgarritasun-baldintzak hobetzea; horretarako, egokitzat jotzen da San Anton Azpi aurrealdeko ur-geruzaren murrizketa puntuala, beste batzuk galarazi gabe.
* Arrantza-zonako eraikinen osaketa ahalbidetu eta zehaztea.
* Esparruko instalazioen erabilerak egokitu eta erregulatzea, portu-ingurune baten berezko erabilerak izan daitezen.
* Hondakinen kudeaketa hobetzea.
* Saneamendua hobetzea eta isurketen tratamendua bermatzea.
* Energia-efizientzia hobetzea, argiteriako eta beste arlo batzuetako neurriak hartuta.

Horrez gain, portuaren erabiltzaileek, Udalak eta abarrek orain arte planteatutako beste helburu batzuk jasotzen dira, sare-biltegi berria ezartzean duela gutxi gauzatutako ekintzaren ildotik:

* Kirol-ontzientzako amarralekuen eskaintza hobetzea; ahal den neurrian, dagoen eskariari erantzuteko.
* Aisialdiko jarduerak egiteko eremu bat prestatzea, eta harrerako pantalan bat ezartzea bertan.
* Kofradia zaharraren kaian dauden eraikinak zaharberritu, baliarazi eta erabiltzea, eta zuzkidura-erabilerak eta hirugarren sektorekoak ezar daitezen sustatzea, portuaren premiei erantzuteko: ur-kiroletako jarduerentzako guneak eta tokiko klubak, portu-jarduerei lotutako konponketa- eta salmenta-eremuak, ostatuak, jatetxeak, etab.; Kostaldeei buruzko Legean eta horren Erregelamenduan ezarritako mugen barruan.
* Kirol-portuari eta Malkorbe hondartzari lotutako instalazioak eta eraikinak berrantolatzea, erantzun egokia emateko dauden askotariko jarduerei, eta sor daitezkeen jarduera berrientzat ere erantzunak aurreikustea.
* Tintalekuko estalkiaren erabilera publikoa bermatzea, espazio libre moduan.
* Kai-azalera portu-jardueretarako hein handiagoan aprobetxatzeko aukera baloratzea, horretarako lurpeko edo altueran ezarritako aparkalekuak (aparkalekuen eraikina) aurreikusita.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

Halaber, Planean aurreikusten da ahalik eta integraziorik onena bilatzea Getariako portuaren eta hiri-eremuaren artean, antolamendu-arloan hartu beharreko erabakiak norabide horretara bideratuta.

Hala, kontuan hartu beharreko alderditzat aipatzen dira portuak hiri-eremutik duen irisgarritasuna eta ikusgarritasuna, portuaren beraren barneko antolamendua eta, bereziki, Txoritonpe eta kofradia zaharraren atzealdearen artean dagoen kalekoa.

Horretarako, aipatu behar da portuaren Arau Subsidiarioek esparruaren eraikigarritasuna finkatzen dutela; aldi berean, % 15 haztea eragin dezakete, hala planteatzen eta justifikatzen bada Portuaren Plan Berezia idaztean.

Azkenik, ohartarazi behar da, premia asko aipatu diren arren, portuak askotariko edukiontziak dituela gaur egun, duten egoera eta erabilera gorabehera, eta oreka egokia bilatu eta aurkitu behar dela portua ongi eta erabat erabili eta horretaz gozatzeko.

Horretarako, ahalik eta adostasunik zabalena sustatuta, egokitzat jotzen da portuko eraikin askoren erabilerak birbideratzea.

## 5. PROPOSAMENAREN KOMENIGARRITASUNAREN ETA EGOKITASUNAREN JUSTIFIKAZIOA

Getariako portuari buruzko Plan Berezi hau egitearen komenigarritasuna eta egokitasuna justifikatzeko, udalerrian indarrean dauden Arau Subsidiarioetako antolamendu-irizpide eta -helburuetara jo behar da. Egin-eginean ere, helburua da arau- eta hirigintza-esparrua prestatzea portu-zonaren antolamendua egin ahal izateko.

## 6. PROPOSATUTAKO ANTOLAMENDUAREN DESKRIBAPENA

### 6.1. ALDEZ AURREKO GAIAK. KONTUAN HARTU DIREN ANTOLAMENDU-ALTERNATIBAK ETA HAIEN BALORAZIOA

Plan Berezia prestatzearen testuinguruan, eta, zehatzago, hasteko eskabidearekin batera doan Plan Bereziaren zirriborroaren dokumentuan, antolamendurako bost alternatiba jaso ziren, jarraian azalduko dugun moduan:

- “0” alternatiba

  “Ez jarduteko” aukera da, hots, portu-zona gaur egungo egoeran mantentzekoa.

  Getariako Arau Subsidiarioek —duela zortzi urte onartu zituzten behin betiko— porturako plan berezi bat eskatzen dute, eta ekimen hori justifikatu eta esku hartzea eskatzen duten zenbait helburu zehazten.

  Ez bada jarduten, hots, alternatiba hau hautatzen bada, ez zaio erantzuten agindu horri, ezta gaur egun Getariako portuak duen egoerari ere. Azken urteetan, udalerrian hobekuntza nabarmena egon da hirigintzari eta ingurumenari dagokienez, eta ezinbestekoa da hobekuntza hori portura ere zabaltzea.

  Hori kontuan izanda ere, ulertzen da hierarkikoki goragokoak diren plangintza-zehaztapenek horrelako aukera bat bazter uztea dakartela; izan ere, ez lieke erantzungo planteatzen diren helburuei, ezta ikusten diren beharrei ere.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

- "1." alternatiba

"1." alternatiba da esparruaren antolamenduan esku hartzea, baina ur-geruzaren erabileran gehiegi eragin gabe; hala, kaien eta lehorreko eraikinen erabileraren berrantolamendua proposatzen da, gaur egungo egoera mantenduta dartsenen erabilerari dagokionez, nagusiki arrantza-erabileretarako baliatzen baitira.

Erantzuna ematen die arrantzako eta ur-kiroletako premiei, baina azken horiei irtenbiderik eman gabe, Planaren denbora-mugan, amarraleku-eskariari dagokionez.

Alternatiba honek ez du inpaktu nabaririk eragiten, eta mesede egin diezaioke portu osoaren ingurumen-hobekuntzari.

- "2." alternatiba

"2." alternatiba "1." alternatibaren antzekoa da, baina, lehenengoaren aldean, ur-geruzaren erabileren banaketari ere ekiten dio; ildo horretan, kirol-ontzietarako azalerak handitzen dira, barnealdeko dartsenan haientzako zati bat gordeta.

Beraz, kaiak eta lehorreko eraikinen erabilerak berrantolatzea proposatzen da; aldi berean, oreka berria bilatzen da arrantza-erabileretako eta ur-kiroletako erabileretako ur-geruzaren azaleran.

Horrek, neurri batean, arrantza-ontzidirako azalera murrizten du (nahikoa geratzen zaiola ulertuta), eta ur-kiroletako erabilerari irtenbideak ematen dizkio, dagoen amarraleku-eskariari eta intereseko beste erabilera batzuei erantzuna emateko.

Alternatiba honek ez du inpaktu nabaririk eragiten, eta mesede egin diezaioke portu osoaren ingurumen-hobekuntzari.

- "3." alternatiba

Alternatiba honek esku-hartze esanguratsuagoa dakar; izan ere, portua eta haren esparruaren azalera zabaltzea dakar, iparraldeko dikea ekialderantz zabalduz.

Lehenik eta behin, adierazi behar da ezen, horrelako ekimen bati egoki iritziz gero, dagokion azterketa teknikoa egin beharko dela, proposamena justifikatu eta baliozkotzeko, eta, aldi berean, izan dezakeen inpaktua ebaluatzeko, bereziki, Malkorbe hondartzan izan dezakeen eragina.

Ildo horretako alternatiba batek arrantza-jarduerarako ur-geruza zabaltzen du lonja berriko dartsenan, barnealdeko dartsenaren iparraldeko zona ere mantenduta. Horrekin, erantzun egokia eman nahi zaie lehorreko erabilera guztiei, iparraldeko dikeko kaia zabalduta. Era berean, aukera ematen du barnealdeko dartsenaren zati batean (hegoaldeko zonan) ur-kiroletako erabilerak egiteko, eta toki gehiago dago horretarako kanpoaldeko dartsenan; hori guztia, etorkizun hurbilerako hautematen den eskariarekin bat eginda.

Beraz, etorkizunera begira, irtenbide honek erantzun hobea ematen die hala arrantzako eskariari, nola ur-kiroletako erabilerari, eta kofradia zaharreko dartsenako arrantza-erabilerak mantentzen ditu.

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

Alternatiba honek badu halako inpaktu bat, dikea handitu behar delako; alabaina, inpaktu onargarria izan daiteke, seguruenik; hargatik eragotzi gabe ildo honetatik joanez gero egin beharreko ikerketaren ondorioak.

- "4." alternatiba

Are esku-hartze nabarmenagoa ekarriko luke, portua handiagotzen baita iparraldean dike berri bat eraikita, San Anton mendiaren iparraldeko muturrean.

Dartsena berri baten antolamendua ekarriko luke, eta bat dator Asmatu ingeniaritzak, Arrantzaleen Kofradiaren enkarguz, 2004an garatutako proposamenarekin.

Alternatiba honekin, arrantza-jarduera osoa iparraldeko dartsena berrira lekualdatuko litzateke, arrantzako eta ur-kiroletako trafikoak bereizita, eta gaur egungo portua ur-kiroletarako utzita.

Etorkizunari begira, horrek erantzun hobea emango lieke hala arrantzako eskariari, nola, nagusiki, ur-kiroletako erabilerari, baina kofradia zaharreko dartsenako arrantza-erabilerak desagerraraziko lituzke, eta portuaren gaur egungo hiri-irudia aldatu.

Alternatiba honek inpaktu nabarmena du, eta behar bezala ebaluatu beharko da, kontuan hartzea komeni dela berretsiz gero. Duela 10 urte baino gehiago beste egoera batean planteatutako ekimen bati dagokio, eta, a priori, gaur egun ez du interesik Planari jarri zaion denbora-mugarako.

Jarraian, aipatutako zirriborroan jasotako alternatiben grafikoak daude.

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA




EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA




EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an. Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA



**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA




**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA




EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an. Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

## 6.2. ADITUEK ALTERNATIBEI BURUZ EGINDAKO BALORAZIOA, ETA GETARIAKO PORTURAKO BESTE AUKERA OSAGARRI BATZUK, LEHENAGO ERE PLANTEATUAK

* Plan Berezia egiteko lanen testuinguruan, zirriborroaren dokumentua prestatu ondoren, Garraio Azpiegituren Zuzendaritzak (Portuak) zenbait aditurekin egiaztatu zuen alternatiben egokitasuna, portuen diseinuaren eta eraikuntzaren ikuspegitik.

Lortutako emaitzetatik ondorioztatu behar da portua handitzeko irtenbiderik egokiena “4.” alternatiba dela, hots, dike bat eraikitzea gaur egungo portuaren iparraldean.

Emandako irtenbide guztietatik, jarraian modu grafikoan jasoko ditugu esanguratsuenak izan daitezkeenak, euren diseinu- eta ekonomia-baldintzengatik. Berenguer ingeniaritza-enpresak proposatu ditu.





Asmo handiko aukera da, eta portuaren ahalmena asko handitzeko behar argia izanez gero soilik izango litzateke planteatzeko modukoa; alabaina, ez dirudi halakorik gertatuko denik Plan Bereziaren indarraldian.

* Era berean, komeni da atal honetan aipatzea Getariako portuaren ahalmena handitzeko beste irtenbide bat, aspalditik aztertzen ari dena.

Ubiriko senadian portu bat ezartzean datza, eta aukera horrek Getariako portua bera handitzeko premia ezabatuko luke.

Irtenbide horrek, edukiera asko handitzeaz gain, erabilerak dibertsifikatuko lituzke, eta ez lioke eragingo San Anton mendiaren oinarriari; hori bai, kostaldeko beste inguru bati, hain agerian ez dagoenari, eragingo lioke.

Halaber, kostaldeko errepidea puntu horretan “aldatzeko” aukera ematen du, mendi-hegaletik aldentzeko, bertan lur-jausiak baitaude etengabe.

Jarraian jasotzen diren grafikoak 1996an Europrincipia SL ingeniaritza-enpresak eta, berrikiago, Berenguer ingeniaritza-enpresak proposatutako irtenbideak dira.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an. Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA



Ubiri. Europrincipia, SL 1.996




Ubiri. Berenguer Ingeniería, 2016

## 6.3. ALTERNATIBEN ANALISIAREN ONDORIOA

Aurreko guztia ikusita, kontuan hartuta gaur egungo egoera eta planaren denbora-muga, eta lehentasuntzat hartuta portuak ingurumenaren eta funtzionaltasunaren arloetan beharrezko duen birkualifikazioa, portua handitzea aurreikusten zuten alternatibak baztertu dira, lehenik eta behin. Jakina, ildo beretik, Ubirin portu berria egiteko aurreikuspena ere baztertu da, beste esparru bat delako, gainera.

Izan ere, ez da hauteman arrantza-portua handitzeko premiarik, eta gaur egungo dartsenak berriz antola daitezke, ur-kiroletako premiak modu egokiagoan hartzeko. Ondorioz, lehenengo hurbilketa honetan, 3. eta 4. alternatibak baztertu dira, jatorriz aukeren zirriborroan aintzat hartu ziren arren, baina 4. alternatiba portua handitzeko aukera egokia dela berresten da.

Hala, 0, 1. eta 2. alternatiben azterketan zentratu da eztabaida; beraz, aukera horiei ingurumen-ebaluazioa egin zaie, Plan Berezi hau idazteko prozesuarekin batera.

Horrenbestez, ondorioztatzen da, egungo egoeran, aukerarik egokiena “1.” alternatiba dela, dokumentu honetan jasotako ñabardura batzuekin. Izan ere, lurreko instalazioen baldintza orokorrak hobetzen ditu, eta aukera berriak irekitzen ditu erabilera mistoko zonak sartzearekin, arrantza-jardueraren baldintzak eragotzi gabe.

Planak, berori jendaurrean jartzetik atera daitekeen emaitza gorabehera, “1.” alternatiba garatzen du; beraz, gainerako alternatiba eta irtenbide osagarriak baztertu dira, ezertan eragotzi gabe, beste egoera batean eta etorkizunean portuak izan ditzakeen premien arabera, analisi honetan kontuan hartu diren handitze-irtenbideetako bat erabiltzeko aukera.

## 6.4. ANTOLAMENDUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA. GARATUKO DEN ALTERNATIBA

“1.” aukera hautatu da Plan Berezian garatzeko, eta erabat erantzuten die indarrean dauden arau subsidiarioetako zehaztapenei, jarraian egingo den proposamenaren deskribapenean ikus daitekeen moduan; halaber, proiektu hau eta bere prestakuntza-dokumentuak egiteko prozesuan sortutako zenbait gai gehitu dira.

Hortaz, proposamenaren helburua portuaren itxura oro har mantentzea da, hala dikeen eta kaien egiturari dagokionez (zaharberritze txikiren batekin), nola eraikin, pabilioi eta abarretan dauden zerbitzu-instalazioei dagokienez; gainera, horiek guztiak hobetu eta osatu nahi dira, bai eta elementu bakoitzari erabilera argiak esleitu ere, espazioa hobeto aprobetxatzeko, eta ezertan

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an
Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
EKONOMIAREN GARAPEN ETA AZPIEGITURA SAILA
DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONOMICO E INFRAESTRUCTURAS

eragotzi gabe elkarren osagarritasun handiagoa ere lortzeko aukera erabileren arteko elkarbizitza egokiaren ondorioz.

Era berean, portuaren eta herrigunearen arteko oinezko lotura berreskuratu nahi da, Itsas Etxe eraikinaren eta kofradia zaharraren arteko gunean instalatutako eskailera baten bitartez; halaber, urbanizazioa hobetu nahi da, egoteko guneak eta hiri-altzariak ezarrita, eraikin esanguratsuetan (kofradia zaharra, izotz-fabrika zaharra, Tintaleku eraikina, are klub nautiko zaharra ere, esparrutik kanpo) egingo direnak osatze aldera.

Hauek dira proposatutako antolamenduaren gairik garrantzitsuenak:

- KAIAREN AZALERA HANDITZEA HEGOALDEAN

  Malkorbe hondartzaren zati txiki bat hartuta, 400 m² inguru gehituko zaizkio ur-kiroletako dartsenaren hurbileko kai-azalerari, jarduera horretarako beharrezkoak diren zerbitzuak antolatzeko han, gaur egun egoera desegokian baitaude.

  Hondartzari ez zaio azalera handirik kentzen, egiaz bigarren mailako espazio bat baita, portuak berak —hondartza sortu baitzuen— zokoratzen du eta.

  Aipatzekoa da beharrezkoa izan daitekeela babes-neurriak hartzea kai berrian, harri-lubeta batekin edo antzeko metodo baten bidez, gaur egun toki horretan olatuek ematen duten kolpea arintzeko; halaber, babesa jar daiteke hondartzaren aurrean neurri partzial modura, itsasoaren maila igotzen bada ere.

- KAIAREN AZALERA HANDITZEA IPARRALDEAN

  Kasu honetan, azalera handitzean (200 m² inguru), ur-geruza txikiagotuko da. Iparraldeko dikearen hasierako ibilgailu-zirkulazioa hobetzea du helburu, San Antonetik datorren sarbidearekiko loturan.

  Ekintza horrek nabarmen hobetzen ditu kaiaren baldintza geometrikoak, eta ez dio kalterik egiten ur-geruzaren eraginkortasunari.

- UR-GERUZAREN OKUPAZIOA

  Getariako Portuko ur-geruzan aurreikusitako erabileren erregulazioa eta mugaketa helburu horrekin formulatzen den Portuko Espazioen eta Erabileren Mugaketak (PEEM) zehaztuko ditu.

- KAIEN OKUPAZIOA

  Kofradiako kaiaren erabilera mistoaren osagarri arauemaile gisa, bost metroko (5,00 m) zerrenda mugatu da, arrantza-erabileraren aldeko erabilera-zortasunarekin, portuan diharduten arrantza-ontzien ontziratzeari, lehorreratzeari eta zamalanei lehentasuna emateko.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

- ERAIKINEN ERABILERA

Plan Berezi honen helburu garrantzitsuetako bat da erabiltzen ez diren eraikinak birgaitzea.

Aurretiaz idatzitako zirriborro-dokumentuan, gaur egungo egoeraren eta portuan dauden eraikinen erabilgarritasunaren azterketa osoa egin zen, eta horretan oinarrituta egin dira Plan Berezi honetako proposamenak.

Izan ere, utzita eta narriatze-prozesu garbian dauden eraikinei behar bezalako funtzionaltasuna emateak erabilera berriaren abantailak eta ondoriozko ingurumen-hobekuntza dakartza.

Helburu horrekin, erabilera mistora atxikiko lirateke kofradia zaharraren eta izotz-fabrika zaharraren eraikinen partzelak (klub nautiko zaharraren eraikina, esparrutik kanpo, ekonomia-jardueretako kalifikazio globala duen zona batean dago jadanik), askotariko jarduerak hartzeko moduan: produkziokoak (arrantza), ekipamendua, aisia, olgeta, hirugarren sektorekoak (jatetxeak, arrantzaren sektoreari eta arrantzaren transformazioari lotutako jarduerak, arlo horretako ikerketa- eta garapen-jarduerak...), ontzien mantentze-lanak, salmenta edo horniketa, eta antzekoak; EAEko Portuen eta Itsas Garraioaren Legean eta Kostaldeei buruzko Legean eta horren Erregelamenduan ezarritako mugen barruan betiere.

Ildo beretik, proposatzen da, halaber, Tintaleku eraikina kirol-klubak, bela-eskolak, urpekaritza-eskolak eta bestelakoak (biltegiratzea…) sar daitezkeen erabilera misto berberetarako erabiltzea.

Kontuan hartu beharreko alderdi osagarri modura, lonja berria berrantolatzeko beharra dago, kofradia zaharreko kaitik aldi baterako lekualdatuko liratekeen erabilerak integratzeko, beharrezkoak diren handitze-lanak aurreikusita; esaterako, Txoritonpe pabiloia portuko jarduerarekin lotutako jarduera ekonomikoetarako erabil daiteke.

Eraikinen eraikuntza-baldintzak eta beste ezaugarri batzuk ikusita, esaterako, babes-maila, haiek kontserbatzea edo, hala badagokio, eraistea erabakiko da. Eraisten badira, eraikuntza berria Plan Berezi honetako ordenantza erregulatzaileek ezarritako parametroetara egokituko da.

- URBANIZAZIO-BALDINTZAK HOBETZEA

<u>Orokorrean.</u>

Kontua da ahal den neurrian aldatzea eta hobetzea herrigunearekin edo Malkorbe hondartzarekin lotura estua duten kaietako urbanizazio-baldintzak.

Hala, erabilera berriak izango dituzten eraikinak birgaitzeko edo zaharberritzeko lanen testuinguruan, egokia da inguruko urbanizazioa hobetzea, portuan gauzatuko den zaharberritzearen erakusgarri.

Atal honetan sartuko dira kofradia zaharreko kaia eta ur-kiroletako jardueraren zerbitzuen ingurunea, horien eraikuntza eraldatuko delako eta paseatzeko eta harremanetarako eremuak direlako.

Obra horien irismena horretarako idatzitako urbanizazio-obren proiektuan zehaztu beharko litzateke, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak esku hartzeko irizpideak zehaztu ondoren.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

- HIRIGUNEAREN ETA PORTUAREN ARTEKO OINEZKOEN LOTURAK HOBETZEA

  Helburu hau lortzeko proposatutako eragiketetako bat da hirigunea Arnao Jenerala kalearen iparraldeko muturretik lotzea portuarekin, modu zuzenagoan, garai batean bezala.

  Horretarako, Arnao Jenerala kalearen eta portuaren artean pasabide bat egokitzea proposatu da, Itsas Etxe eraikinaren eta kofradia zaharraren artean eskailera bat jarrita, eragindako eraikinak zaharberritzeko lanak aprobetxatuta.

  Helburu horretarako proposatutako bigarren ekintza (portutik kanpo egitekoa) igogailu bat ezartzea da, Aldamar kalearen —Tintaleku eraikinetik gertu— eta portura sartzeko errepidearen arteko desnibela gainditzeko.

- Obra horien irismena horretarako idatziko liratekeen urbanizazio-obren proiektuetan definitu beharko litzateke, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak esku hartzeko irizpideak zehaztu ondoren, betiere espazio publiko inklusiboa xedatu eta gaitzeko irizpidearekin, eta, gainera, edozein urbanizazio-jarduketa portuko ingurumen-balioekin harmonizatuta

Ekintza horiekin guztiekin, praktikan, portuak gaur egun duen itxura orokorra mantenduko da; hala, kaia handitzeko bi ekintza txikiak salbuetsita, beste lan guztiak lehendik dauden eraikin eta urbanizazioak hobetzeko dira soilik.

Alderdi berezitzat, hegoaldean eraikuntza berriak egiteko proposamena aipatu behar da, ur-kiroletako jardueraren zerbitzurako dauden behin-behineko eraikuntzen berrantolaketa gisa, baita ekialdeko dikean eraikin berri bat egiteko proposamena ere, kofradia zaharraren aldameneko egungo eraikinaren erabilera desplazatuak hartzeko (izotza produzitzea eta kutxak biltegiratzea).

Beraz, portuaren antolamendua eskematikoki deskribatze aldera, esan daiteke atrakatzeko hiru gune bereizi egongo liratekeela: barnealdeko dartsena erabilera mistorako (arrantza-jardueraren nagusitasunaz, beteranoen kaia barne), kanpoaldeko dartsenaren iparraldea arrantza-jarduerarako eta hegoaldeko zatia ur-kiroletarako (hala, jarduera bakoitza bere zerbitzu-zona eta -eraikinetatik hurbil mantenduko da); helburu horrekin formulatzen den Portuko Espazioen eta Erabileren Mugaketak (PEEM) ezartzen duena eragotzei gabe betiere.

Aurreikusitako eraikuntza guztiak plangintza orokorrak ezarritako altuera-parametroen eta eraikuntza-profilaren barruan mantentzen dira, hots, inoiz gainditu gabe 10 metroko altuera eta sestra gaineko hiru solairu.

Halaber, iparraldeko eta hegoaldeko errepide-sarbideak mantenduko dira, baita Katrapuna plazako arrapalako lotura ere, eta ez da aurreikusten aldaketarik tamainaren eta geometriaren aldetik.

Ibilgailuen aparkalekuari dagokionez, lurpeko bi aparkaleku egitea proposatzen da: horietako bat "NR.1" ur-kiroletako partzelako “A” eraikuntza-unitatean, gutxi gorabehera 100 plazako edukieraz solairu bakoitzeko, eta beste bat kofradia zaharreko kairen zorupean, 85 plazako edukieraz solairu bakoitzeko.Hori guztia, obra horiek Kultura Ondarean izan dezaketen inpaktu-arriskuaren balioespen egokiarekin.

Azkenik, ongi funtzionatzeko beharrezkoak diren zerbitzu-azpiegiturak aurreikusi dira, besteak beste, saneamendua eta drainatzea, ur-hornikuntza, elektrizitatea eta gas- eta telekomunikazio-sareak. Xehetasun handiagoz deskribatuko ditugu aurrerago Memoria honetan.

Ildo horretatik, era berean, gasolio-tanga eta gasolio-hornidurako zutoina “P.1” partzelara lekualdatzeko aukera planteatzen da, ontzien zerbitzurako kokapen egokiagoan jartzeko.

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

Esku-hartzeak egikaritzeari dagokionez, bereziki kontuan hartuko da 178/2015 Dekretua, Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren jasangarritasun energetikoari buruzkoa, betetzen dela.

## 6.5. PORTU-ERABILEREN PROGRAMA

Plan Berezi honekin, aurreko guztiarekin bat etorriz, Arau Subsidiarioek oro har mugatutako portu-sistema orokorra antolatzen da, eta, hasiera batean, eremu funtzionalen zortzi tipologia bereizten dira portu-eremu orokorrean. Horiek II.2 planoan mugatuta daude, eta indarrean dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren ekainaren 28ko 2/2018 Legean ezarritakoaren arabera izendatu dira.

Honako hauek dira:

Portu-zona – “ARRANTZA-ERABILERAK”

Portu-zona – “UR-AISIALDIKO ERABILERAK”

Portu-zona – “INDUSTRIA- ETA MERKATARITZA-ERABILERAK”

Portu-zona – “ERABILERA MISTOAK”

Portu-zona – “LURREKO SARBIDEA”

Portu-zona – “UR-GERUZA”

Portu-zona – “ITSASERTZA”

Portu-zona – “HONDAKIN-UREN ARAZTEGIA”

Portu-sistema orokorra eremu funtzionaletan banatu ondoren, erreferentziako zonifikazio globala ñabartzen baita horrela, Plan Bereziak esku hartzeko eremu osoaren zonifikazio edo kalifikazio xehatua jasotzen du.

Hala, garapen-plangintzaren mailarekin, eremu xehatuen tipologia hauek bereizten dira, eta horietan kokatzen dira proposamenaren II.3 planoan irudikatutako esparruak eta partzelak:

- Arrantza-erabilerako “P” zonak

  Erabilera horri atxikitako zona bat bereizten da, arrantza-portuko zerbitzu-eraikinak dituena.

- Ur-aisialdiko erabilerako “NR” zonak

  Erabilera honetarako bi zona mugatu dira. Lehenengoa “NR.1” kirol-ontzidirako kaiek osatzen dute, eta "NR.2" zona Gaztetape hondartzaren ondoan dagoen zerbitzu-eraikinari eta Surf Eskolari dagokiona da.

- Industria- eta merkataritza-erabileretako “IC” zonak

  Modalitate honetan mugatutako hiru zonak Txoritonpe zonan daude. Horietako bik askotariko biltegiak eta arraina manipulatzeko guneak dituzte, eta hirugarrena ostalaritza-establezimendu bat da.

- Erabilera mistoetako “M” zonak

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

Kofradia zaharreko kaiak ("M.1") eta Katrapuna eraikinak ("M.2") osatzen dituzte, eta lehenengoak portuko eraikin adierazgarrienak biltzen ditu.

Horiei "M.3", "M.4" eta "M.5" eremuak gehitu behar zaizkie, San Anton eremuaren mugaren gainean dauden eraikin banaren zatiak baitira.

- Ibilgailuen bidea, “VR”

Ibilgailuen zirkulazioa jasotzen dute. Erabilera horretarako bi eremu mugatzen dira: "VR.1" eta "VR.2".

- Oinezkoen bidea, “VP”

Oinezkoak igarotzeko, zortzi gune bereizten dira erabilera horrekin: “VP.1”-etik “VP.8”-ra.

- Babeseko espazio libreak, “ELP”

Erabilera horrekin kalifikatutako lau eremu bereizten dira, “ELP.1”-etik “ELP.4”-ra.

- Ur-geruza, “LA”

Kalifikazio horri atxikitako zona bakarra dago, eta portu-esparruko ur-azalera osoa hartzen du.

- Portuko azpiegitura (dikeak), “IP”

Hiru zona bereizten dira: “IP.1”, “IP.2” eta “IP.3”.

- Hondakin-uren araztegia, “DAR”

Esparrua hartzen duen azpiegitura horren zati bati dagokion zona atxiki bakarra dago.

Kalifikazio xehatuko tipologia horiekin, portu-jarduerari lotutako eraikinak eta erabilerak hartuko lituzketen partzela eraikigarriak proiektatu dira. Hala, partzela bat mugatu da arrantza-erabilerarako (“P.1” zona); ur-kiroletako erabilerarako bi (“NR.1” zona eta “NR.2” zona); industria- eta merkataritza-erabileretarako beste hiru (“IC.1”, IC.2” eta “IC.3” zonak); eta erabilera mistorako bost (“M.1” zonatik eta “M.5” zonara). Aldiz, komunikazio-bideetarako eta espazio libreetarako zonek ez dute eraikuntzarik, printzipioz.

Horrela, “P.1” zonan eraikuntza-unitate bakarra mugatu da, lehendik dauden eraikin finkatuak eta proposatutako eraikin berria erregulatzen dituena, eta 1.060. m²(s)-ko gehikuntza dakarrena.

“NR.1” zonan, era berean, eraikuntza-unitate bakarra mugatu da, dauden eraikinak biltzen dituena, halako moldez non baimendutako eraikigarritasunak —guztira proiektatutako 2.500 m²(s)— 2.000 m2-ko gehikuntza zenbatetsia (t) haietakoren bat har dezakeen. NR.2 zonan, partzela eraikigarria bat dator zonarekin.

“IC.1”, “IC.2” eta “IC.3” zonek eraikuntza-unitate bana dute, eta horietako hirugarrena bat dator zonarekin.

“M.1” zonan, berriz, “A”, “B”, “C”, “D”, “E” eta “F” izendatutako sei eraikuntza-unitate daude. Horien guztien eraikigarritasuna eta eraikuntza-baldintzak zehazten dira, eta bat datoz lehendik zeudenekin, “D” eta “E” unitateetan izan ezik, zeinetan onartu baita profil orokorrera igotzea eta, ondorioz, haien eraikigarritasuna handitzea, 272 m²(s) eta 166 m²(s), hurrenez hurren.

“M.2” zonan (Tintaleku eraikina), partzela eraikigarria bat dator oinplanoko eraikuntzarekin eta, aldi berean, zonaren mugaketarekin, nahiz eta haren eraikigarritasuna 1.370 m²(s)-ra murrizten

den, profila sestra gaineko bi solairutara murriztearen ondorioz —orain, hiru solairu ditu—, duen eraikuntza-altuerari eutsiz eta gehienez 150 m²(s)-ko atiko txiki batekin osatuta.

Azkenik, "M.3", "M.4" eta M.5 "zonetan, lurzati eraikigarria bat dator zonarekin, eta eraikigarritasuna finkatu egiten da

Horrela, bada, oro har, partzela bakoitzean dagoen eraikigarritasuna finkatu da, baita haien profila eta altuera ere, salbuespen hauekin: “M.1” zonako “D” eta “E” unitateetako eta “P.1” eta “NR.1” zonetako partzela eraikigarrietako gehikuntza, eta Tintaleku eraikineko murrizketa NR.2 zonan.

Horiek birgaitzea edo eraitsi eta zaharberritzea erabakitzeko, kontuan hartu beharko dira eraikinaren eraikuntza-baldintzak, babes-maila eta sartu beharreko programaren ezaugarriak. Nolanahi ere, obra horiek Kultura Ondarean izan dezaketen inpaktu-arriskua baloratuko da.

Baldintza horietan, guztira 33.718,75 m ² (t) -ko eraikigarritasuna agintzen da, Arau Subsidiarioetan ezarritakoa baino txikiagoa, lehendik dagoena baino % 15 gehiago izatea baimentzen baitute, jarraian justifikatzen den bezala.

Kontuan hartuta aurreizakinek 29.980,75 m2-ko (t) eraikigarritasun zenbatetsia dutela, % 15eko gehikuntza guztira 34.478 m2-ko (t) baimendutako gehikuntza da, hau da, Plan Berezian antolatutako eraikigarritasun osoa (33.718,75 m2) baino 759 m2 (t) handiagoa (biribiltzea).

Horietatik 3.738 m2 (t) berriak dira, eta duela gutxi eraikitako sare-eraikinaren 700 m2 (t), gehi Plan Berezi honek handitze edo eraikin berri gisa proiektatu dituen 3.498 m2 (t) dira, eta Tintaleku (m.2) eraikinetik 460 m2 (t) kentzen zaizkio, solairu bat kentzen baitzaio, deskribatu den bezala.

Horrela, Arau Subsidiarioek "Portua" eremuan baimendutako 759 m2 (t) geratuko lirateke ordenatzeke, eta horiek lurzati eraikigarrietan banatuko dira, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak bere kudeaketa-eginkizunetan erabakitakoaren arabera, portuak eta bere instalazioek behar bezala funtzionatzeko sortzen diren premien arabera.

Dokumentu honetan jasotako koadroetan, eraikigarritasunak eta beste parametro batzuk zehatz-mehatz definitzen dira.

**KKEOren 105. artikulua, merkataritza- eta zaharberritze-erabilerei buruzkoa, betetzearen justifikazioa.**

Itsasertzei buruzko Erregelamendu Orokorraren 105. artikuluan ezarritakoaren arabera, itsas-lehorreko jabari publikoko ondasunen zerbitzu-gunean, portu-jarduera garatzeko beharrezkoak diren erabilerez gain, merkataritza- eta leheneratze-erabilerak baimendu ahal izango dira, betiere itsas-lehorreko jabari publikoari eta portu-jarduerari kalterik egiten ez bazaie eta hirigintza-plangintzan ezarritakoari egokitzen bazaizkio.

KEOren 105. artikuluaren 2. puntuan ezartzen den bezala, baimendutako erabilera horien gehieneko azalerak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

a) Portuko dikeek hartzen duten ur-laminaren azaleraren % 16 baino txikiagoa izatea.
b) Portuaren lur-azaleraren % 10 baino txikiagoa izatea.
c) 20 metro koadrotik beherakoa izatea amarratze bakoitzeko.

Hemen adierazitako azalerak eta amarratze-kopurua kontuan hartuta, honako hauek dira lor daitezkeen gehieneko parametroak:

a) Portuko dikeek barne hartzen duten ur-laminaren azaleragatik.
81.053 m2 x 16% = 12.968 m2(t)
b) Portuaren lur-azaleragatik.
124.852 m2 x 10% = 12.485 m2(t)

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

c) Plan Berezian aurreikusitako lokailu kopuruaren arabera.
375 Uds.x 20 m2 = 7.500 m2(t).

Bestalde, Getariako portuko itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoko portu-zerbitzuaren barruan, merkataritza- eta/edo zaharberritze-erabilera duten eraikin hauek daude:

- M.1-A eraikineko beheko solairua. Taberna-jatetxearen egungo erabilera.
  Azalera: 350 m2(t)

- M.1-F. eraikineko beheko solairua eta hirugarren solairua. Merkataritza eta jatetxearen egungo erabilera.
  Azalera: 425 $m^2$(t)

- M.3 eraikina, eremuaren barruko zatian. Taberna-jatetxearen egungo erabilera.
  Azalera: 47 $m^2$(t)

- IC.3. eraikina Taberna-jatetxearen egungo erabilera:
  Azalera: 265 $m^2$(t)

Horrek 1.087 m2 (t) ko azalera eraikia ematen du guztira, eta, beraz, Plan Bereziaren eremuan dauden merkataritza- eta zaharberritze-erabilerek 7.500 m2 (t) -ko gehieneko azalera baino txikiagoa dute, KEOren 105. artikuluan oinarrituta kalkulatuta.

Plan Berezian antolatutako eraikigarritasun berrian ez da berariaz aurreikusten horrelako erabilerarik ezartzea, eta, beraz, hura garatzeko asmoa izanez gero, portuaren kudeaketa izango da arestian adierazitako mugak aplikatuko dituena.

## 6.6. BIDE-SAREA

Dagoeneko aipatu dugun moduan, proiektu honek eutsi egiten die portu-zonarako sarbideei, eta, aldi berean, neurri batzuk sartzen ditu oinezkoen mugikortasuna hobetzeko herrigunearen eta portuaren arteko loturan, oinezkoentzako ibilbide espezifikoak eta espazio libreak zehaztea proposatuta.

Horretarako, Arnao Jenerala kalearen eta portuaren artean pasabide bat egokitzea proposatu da, Itsas Etxe eraikinaren eta kofradia zaharraren artean eskailera bat jarrita, eragindako eraikinak zaharberritzeko lanak aprobetxatuta.

Gainazalaren tratamendurako, eta eremuaren berezitasuna kontuan hartuta, proposatutako bide-sarea, oro har, lurreko plataformez osatzen da; plataforma horietan, hala ibilgailuen eta oinezkoen ibilbideak aldi berean nola bide banatuko zenbait zati egongo dira.

Arrantzako kaira eta kirol-dartsenara sartzeko bi errepide nagusiak ohiko bideak izango dira, galtzada eta espaloia banandutа.

Mendebaldeko sarbideari dagokionez, espaloia joango da, hein handi batean, portua iparraldetik babesten duen hormaren gainetik.

Aldiz, Katrapuna plazatik datorren arrapalan eta gaur egungo arrantzako kaiko plataforman bi motatako bideak aldi berean egongo dira.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

Aparkalekuari dagokionez, portu-eremuan 555 plaza inguru antolatzea ahalbidetzen da: 300 plaza inguru kirol-dartsenari dagokion partzelan, eta, zehazki, "NR.1" zonako eraikuntza-unitatearen lurpeko hiru solairutan. Beste 255 plazak kofradia zaharreko kaian lurpeko hiru solairutan kokatuko lirateke.

Hori guztia, obra horiek Kultura Ondarean izan dezaketen inpaktu-arriskuaren balioespen egokiarekin.

## 6.7. URBANIZAZIOA ETA HIRI-ZERBITZUEN AZPIEGITURAK

Aplikatzekoak diren zehaztapenei jarraikiz, epigrafe honetan jaso dira aurreikusitako zerbitzu guztien sare eta galerien diseinuen eskemak.

### 6.7.1. Lursailaren egokitzapena, fabrika-obrak eta azaleko urbanizazioa

Ez da lur-mugimendu berezirik egin behar proposamena garatu eta egikaritzeko. Betelan hauek baino ez dira aurreikusten: bi toki jakinetan (arrantzako portu zaharra eta ur-kiroletako zona, Malkorbe hondartzan) 200 m² eta 400 m² inguruko bi plataforma egiteko beharrezkoak direnak eta, bestalde, sotoak egin behar zaizkien eraikinak egiteko behar direnak; hala, dagokion oreka programatu behar da lur-mugimenduan.

Era berean, fabrika-obra gutxi behar da, aipatutako plataformak handitzeko eta eraikinak zaharberritu, ordezkatu edo berriz egiteko behar direnak soilik. Hartu beharreko eraikuntza-irtenbideak dagozkion urbanizazio- eta eraikuntza-obren proiektuetan zehaztuko dira.

Gainazaleko urbanizazioari dagokionez, berriz urbanizatu beharreko irizten zaien portuko plataformetan zoladura jartzea izango da, urbanizazio-obren dagozkion proiektuetan jasota badaude, Planean ezarritakoaren arabera.

Hori guztia Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak esku hartzeko irizpideak zehaztu ondoren, eta betiere espazio publiko inklusiboa ezarri eta gaitzeko borondatearekin, urbanizazio-jarduera oro portuko ingurumen- eta kultura-balioekin harmonizatuz.

### 6.7.2. Ur-banaketako, ureztaketako eta suteen aurkako ur-harguneen sarea

Aurretik zegoen ur-hornidurako sarea finkatuko da, baina horrek ez du kentzen hobekuntzak egitea.

Hura osatzea proposatzen da, hornidura emateko, batetik, ur-kirolen zonan mugatutako partzela eraikigarri berriari, eta, bestetik, instalatuko diren pantalan berriei.

Sarearen trazaduraren eskema grafikoki deskribatuta dago II.4.1 planoan.

Esparruan dagoen suteen aurkako ur-harguneen sarea behar bezala osatuko da.

### 6.7.3. Saneamendu-sarea. Hondakin-uren arazketa

Era berean, lehendik zegoen saneamendu-sarea finkatuko da. Sare horretan bereizi egiten dira San Anton Azpiko araztegira doazen urak eta kaian ezarritako jardueretatik datozenak, zeinak, tratatu ondoren, itsasora isurtzen diren.

Sare hori osatzea aurreikusten da, horretarako hargunea ezarrita ur-kiroletako zonan mugatutako partzela eraikigarri berritik.

Sarearen trazaduraren eskema grafikoki deskribatuta dago II.4.2 planoan.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

### 6.7.4. Drainatzea

Portua drainatzeko irtenbidea finkatzen da; hein handi batean, kaietako plataformen gainazalean pilatzen dena zuzenean isuriko da itsasora, hargatik eragotzi gabe ura hustubideetan ere biltzea, dagokien lurpeko drainatze-sarearekin osatuta.

Sarearen trazaduraren eskema grafikoki deskribatuta dago II.4.2 planoan.

Eskema horretan ikus daiteke zer irtenbide proposatu den Getariako herriguneko goiko aldetik —portuko eremuaren kanpotik— datozen urak drainatzeko; hain zuzen ere, ur horiek Gaztetape hondartzara bideratzea proposatzen da, kaietatik igaro gabe.

### 6.7.5. Energia elektrikoaren banaketa

Portuan bi transformazio-zentro daude, jarduera eta premia guztiei behe-tentsioko zerbitzua emateko.

Horrelako hornidura emango zaie proposatutako antolamenduaren ondoriozko eraikin eta zerbitzu berriei eta, bereziki, ezarriko diren pantalan berriei.

Proposatutako esku-hartzeen irismenari dagokionez, a priori ez da aurreikusten transformazio-zentro berri bat egiteko beharra.

Sarearen trazaduraren eskema grafikoki deskribatuta dago II.4.3 planoan.

### 6.7.6. Argiteria publikoaren sarea

Argiteria publikoaren sarea finkatuko da, baina dauden argiak pixkanaka-pixkanaka led motako lanparez ordezkatzea proposatzen da, horretarako idatziko diren urbanizazio-obren proiektuei jarraikiz.

Sarearen trazaduraren eskema grafikoki deskribatuta dago II.4.4 planoan.

### 6.7.7. Telekomunikazio-sarea

Aurretik zegoen sarea finkatuko da eta, aldi berean, hargunea egingo da Euskaltel eta Telefonica enpresen jabetzako azpiegituretatik, plana garatzeko egingo diren eraikin berriei zerbitzua emateko.

Sarearen trazaduraren eskema grafikoki deskribatuta dago II.4.5 planoan.

### 6.7.8. Gas-banaketa

Getariako udalerrian dagoen azpiegituratik emango zaie hornidura portuko eraikuntzei.

Ez da aurreikusi gas-hornidura eramatea arrantza-jarduerako kaira, dauden hodietatik oso urruti baitago.

Sarearen trazaduraren eskema grafikoki deskribatuta dago II.4.6 planoan.

### 6.7.9. Gasolio-hornidura

Gasolio-tangarako eta gasolio-hornidurako zutoinerako kokapen berri bat ahalbidetzea proposatzen da mugatutako “P.1” eta “IP” zonetan.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an. Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

## 7.- PLAN BEREZIAREN INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOA. EBALUAZIO AKUSTIKOA

Plan Bereziaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterketa dokumentu autonomo batean dago jasota. Plan Berezi honen osagarri da, baina modu koordinatuan eta paraleloan egina dago.

Planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterketak, Planaren balizko ondorioak identifikatu eta baloratu ondoren, eta 0 alternatiba justifikatuta baztertu ondoren, nabarmentzen du ez dagoela ia alderik planteatutako bi alternatiben artean (1.a eta 2.a), biak oso eraldatuta dauden lurralde berean gauzatzen baitira, eta 1. alternatiba agertzen da aukera hoberentzat, neurri handiagoan babesten duelako arrantza-jardueraren jarraitutasuna epe labur eta ertainean, eta, ondorioz, portuaren nortasuna, eta, aldi berean, kai jakin batzuen erabilera mistoa txertatuz planteatzen diren neurriek mesede egiten diotelako portuaren ingurumen-birkualifikazioari.

Planak izan ditzakeen ondorioen azterketak erakusten duenez, horietako sei positiboak izango lirateke, betiere eragiketa-aurreko baldintzetan oinarrituta: bost ustiapen-fasean gorpuztuko lirateke (paisaiaren kalitatea, begiratoki paisajistikoa, ur-kiroletako erabilera, herriguneko irisgarritasuna eta interes kulturaleko ondasunak) eta bat obraren fasean (enplegua sortzea). Aldi berean, bost ondorio negatibo zenbatu dira, baina bateragarritzat jo dira guztiak: itsas hondoaren eta hondartzaren okupazioari dagozkie, bai eta iragazgaiztutako azalera handitzeari eta airearen eta paisaiaren kalitateari ere —obren fasean gerta daitezke azken biak—.Ezezaguntzat jotako ondorio bakarra aurreikusi da, hain zuzen ere, betelana egiteko materialaren jatorria, azkenean hautatuko den aukeraren arabera positiboa edo negatiboa izango baita. Bestetik, nabarmendu behar da planari ez zaiola aurreikusi ondorio edo eragin ertain, gogor edo larririk.

Horregatik guztiagatik, portuaren Plan Bereziaren proposamenak garatzeak portuaren esparruari eta, hortaz, Getariako herriari ekarriko liokeen inpaktu orokorra guztiz BATERAGARRITZAT jo da (ingurumen-eragin oso txikia), are ONURAGARRITZAT ere, kasu askotan.

Balorazio orokor hori egin ondoren, Planaren ingurumen-ebaluazio estrategikoaren azterketak barne hartzen du, halaber, Plana egikaritzean kontuan hartu beharreko gainbegiratze-programa bat, adierazle batzuekin batera; gainera, egikaritze horretan era berean aintzat hartu beharreko zenbait neurri zehazten ditu.

Esparrurako egindako Ebaluazio Akustikoaren Azterketari dagokionez (Ingurumen Ebaluazio Estrategikoaren eranskin gisa sartu da), haren ondorioek agerian uzten dute kanpoaldeari aplikatzekoak zaizkion KAHak (kalitate akustikoko helburuak) betetzen direla, bai fatxadetan, bai 2 m-ko altueran. Beraz, ez da beharrezkoa horri buruzko neurri zuzentzaileak aztertzea.

Bestalde, adierazten da, industriara eta jolasera soilik zuzendutako eraikinak direnez, ez dutela barneko espazioari aplika dakiokeen helbururik. Beraz, EKTaren oinarrizko OD-HZ dokumentuan eraikuntzaren kalitate akustikoari buruz ezarritakoa baino ez dela bete beharko.

## 8. IRISGARRITASUNA

Dokumentu honen II. eranskinean dago jasota irisgarritasuna sustatzeko indarrean den araudia betetzearen justifikazioa.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

## 9.- GETARIAKO PORTUAREN HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETA GENERO-IKUSPEGIA

Plan Berezia genero-ikuspegitik antolatzeari buruzko azterketa Plan Berezi honen parte den "E" dokumentuan garatzen da.

## 10.-. PLANAREN BALIZKO INPAKTUA EGOERA SOZIOLINGUISTIKOAN

Plan Bereziak egoera soziolinguistikoan duen inpaktuari buruzko azterketa Plan Berezi honen parte den "F" dokumentuan garatzen da.

## 11. PLAN BEREZIAREN EGIKARITZEA ETA KUDEAKETA

### 11.1. KUDEATZEKO ETA EGIKARITZEKO BALDINTZA OROKORRAK

Plan Bereziak titulartasun publikoko esparru bat antolatzen du, eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak kudeatuko du horren garapena, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren bitartez.

Inongo eraikinik ez da deklaratzen antolamenduarekin bateraezintzat edo antolamendutik kanpokotzat.

### 11.2. URBANIZAZIOA ETA ERAIKUNTZA EGIKARITZEA

"Getariako portua" gisa mugatutako esparruan zenbait obra-proiektu eta urbanizazio-obra egin beharko dira.

Plan berezi honen etapa-planean, hiru jarduketa hauek jaso dira berariaz:

- Arrantza-jarduerako kaia handitzea.
- Ur-kiroletako jarduerako kaia handitzea.
- Kaietan urbanizazioa hobetzea edo osatzea.

Gutxienez, proiektu bana aurreikusi behar da jarduera independente bakoitzerako; horrez gain, "P.1" eta "NR.1" zonetako sestra gaineko eraikuntzari (portuko eraikinak) eta sestrapeko eraikuntzari (aparkalekuak) dagozkien eraikuntza-proiektu espezifikoak egin behar dira.

Hori guztia Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak esku hartzeko irizpideak zehaztu ondoren, eta betiere espazio publiko inklusiboa ezarri eta gaitzeko borondatearekin, urbanizazio-jarduera oro portuko ingurumen- eta kultura-balioekin harmonizatuz.

### 11.3. ERAIKITZEKO AHALMENA BALIATZEA

Esparruko eraikuntzaren egikaritzeak baldintza orokor hauek beteko ditu: indarrean den hirigintza-legedian, udaleko Arau Subsidiarioetan eta Plan Berezi honetan ezarritakoak. Bereziki, Arau Subsidiarioen katalogoan ezarritakoari jarraituko zaio.

Antolatutako eraikuntzen egikaritzea proiektatu da, proiektu honetako etapen planari dagokion dokumentuan jasotako zehaztapenei jarraikiz.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

Edonola ere, xehetasun-azterlanak idatzi ahal izango dira, proiektu honen zehaztapenak mugatzeko edo egokitzeko helburuz, aipatutako dokumentu mota horren irismenaren xede diren gaietan.

Beharrezkoak diren eraikuntza-proiektuak prestatzeko eta obretarako nahitaezko udal-lizentziak emateko, bete egin beharko dira proiektu honetako ordenantza erregulatzaileetan horren inguruan jasotako zehaztapenak.

Donostia, 2021eko maiatza

MANU ARRUABARRENA SANTIAGO PEÑALBA MIKEL IRIONDO

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## <u>"I." eranskina</u>

## MEMORIAREN LABURPENA ETA ANTOLAMENDUAREN EZAUGARRIEN TAULAK

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

**AURKIBIDEA** Or.:

1. Memoriaren laburpena .......... 3
2. Ezaugarri orokorren taula .......... 4
3. Zonifikazio globalaren taula – Portuan mugatuta dauden esparru funtzionalak .......... 5
4. Kalifikazio xehatuaren taula .......... 6
4. Partzela eraikigarriei esleitutako aprobetxamenduen eta okupazioaren taula .......... 7

# 1. MEMORIAREN LABURPENA

## 1.1.- Proiektuaren xedea

Plan Berezi honetan, Getariako udalerrian indarrean dauden Plangintza Arau Subsidiarioen zehaztapenak garatzen dira.

## 1.2.- Gaur egungo egoera

Planaren xedeko lurraldea udalerriko egungo portu-zonari dagokio, eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren aurreikuspenei egokitu nahi zaie.

Eremua nabarmenki angeluzuzena da, eta San Anton Mendiaren (Sagua) hegoaldean dago, ekialdetik mendebalderako noranzkoan.

Hasierako portua mendiaren hegoaldeko magalean zegoen, eta dikeen bidez handitu zen iparraldera eta ekialdera, gaur egungo konfigurazioa izan arte.

Badago eraikinik hala lehorra San Anton mendiari lotzen zaion tokian edo istmoan —hortxe daude zaharrenak—, nola iparraldeko dikean.

## 1.3.- Proposatutako antolamenduaren deskribapen laburra

Proiektuaren helburua Getariako portuaren esparrua erabat antolatzea da, lehendik dagoen egitura integratuta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak proposatutako antolamendu berriarekin.

Lehenengo eta behin, zortzi motatako azpizona globalak edo esparru funtzionalak bereizten dira portuko sistema orokorraren barruan: arrantza-zona, ur-aisialdiko zona, industria- eta merkataritza-erabileren zona, erabilera mistoen zona, lurreko sarbidea, ur-geruza, itsasertzeko zona eta hondakin-uren araztegia.

Lehenengo definizio horretatik abiatuta, Plan Bereziak esku hartzeko eremuaren zonifikazio xehatua zehazten du, zonak, eraikigarriak izan ala ez, erabileraren eta xedearen arabera bereizita.

Halaber, aterako diren partzelen eraikuntza-baldintzak eta antolamenduaren definizio geometrikoa zehazten ditu proiektuak, partzela eraikigarriei dagokien eraikigarritasuna esleituta. Hala, arrantza-jarduerarako portu-zonan 11.058,70 m²(s) antolatuko dira; ur-aisialdiko jarduerarako zonan, berriz, 2.575,85 m²(s). Horri gehitu behar zaizkio industria- eta merkataritza-erabileraren 10.862,30 m²(s)-ak, erabilera mistoaren 9.213 m²(s)-ak eta esparrua hartzen duen araztegiaren zatiaren 8,90 m²(s)-ak. Hala, guztira, 33.718,75 m²(s) dira, 25.316 m²-ko oinplano-okupazioarekin. Eraikigarritasun antolatua indarrean dauden Arau Subsidiarioek baimendutako 34.478 m2 (t) -tik beherakoa da, eta gainerako 759 m2 (t) (biribiltzea) zuzenean ordenatzen dira, portuaren kudeaketaren arabera.

Esparrurako sarbideak hirigunearen bi aldeetan eta haren erdigunean mantenduko dira, printzipioz eraldaketarik behar ez duten bide partekatuekin. Aldi berean, aparkaleku-zuzkidura berriak jarri dira, bai kirol-dartsenan, bai kofradiako kaian, eta oinezkoen ibilbideak eta egoteko eremuak zehaztu dira.

Hori guztia proiektuko planoetan deskribatuta dago xehetasunez, eta idatzitako aplikatzekoak diren arauetan erregulatuta dago; halaber, egikaritzeko denbora mugatu da, eta ekonomikoki ebaluatu da.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

## 2. EZAUGARRI OROKORREN TAULA

| | **PROPOSAMENA** | **ASak** |
|---|---|---|
| **"PORTUA" EREMUAREN AZALERA** | **223.964 m²** | 226.584 |
| **«PORTUA» EREMUAREN ZONIFIKAZIO GLOBALA** | | |
| Sistema Orokorra, ZP (portu-zona) | **223.964 m²** | ----- |
| Lur-azalera (ur-geruza kenduta) | 124.842 m² | ----- |
| MUGATUTAKO ESPARRU FUNTZIONALAK: Azalerak | | |
| - Arrantza-erabilerak | **34.864 m²** | |
| - Ur-kiroletako erabilerak | **14.699 m²** | ----- |
| - Industria- eta merkataritza-erabilerak | **12.109 m²** | |
| - Erabilera mistoak | **15.150 m²** | |
| - Lehorreko sarbidea | **28.743 m²** | ----- |
| - Ur-geruza | **99.122 m²** | ----- |
| - Itsasertza | **19.273 m²** | ----- |
| - Araztegia | **4 m²** | |
| | | |
| **ANTOLATUTAKO ERAIKIGARRITASUNA** | | |
| **Eremua guztira** | **33.718,75 m²(s)** | Dagoen finkatua. ASek onartutako % 15eko gehikuntza Zenbatespena: 34.478.- |
| **Oinplano-okupazioa** (gehieneko inguratzailea) | **25.316 m²** | |
| **ERAIKIGARRITASUNAREN KOKAPENA** | | |
| "Arrantza-erabileretako" zonak | | |
| - Eraikigarritasuna: | **11.058,70 m²(s)** | |
| "Ur-aisialdiko" zonak | | |
| - Eraikigarritasuna: | **2.575,85 m²(s)** | |
| "Industria- eta merkataritza-erabileretako" zonak | | |
| - Eraikigarritasuna: | **10.862,30 m²(s)** | |
| "Erabilera mistoetako" zona | | |
| - Eraikigarritasuna: | **9.213,00 m²(s)** | |
| "Hondakin-uren araztegiko" zona | | |
| - Eraikigarritasuna: | **8,90 m²(s)** | |
| **Eraikigarritasuna guztira** | **33.718,75 m²(s)** | Dagoen finkatua. ASek onartutako % 15eko gehikuntza Zenbatespena: 34.478.- |

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

**PROIEKTATUTAKO ERAIKIGARRITASUNA**.
Arau Subsidiarioek baimenduta.: ........................................................ 34.478,00

Proiektatutako eraikigarritasuna, guztira 34.478 m2(t) da.

Eraikigarritasun antolatua lurzati eraikigarrietan: ........................................ 33.718,75
Aldea (biribiltzea): 759,00

"Portua" eremuan egin daitezkeen gainerako 759 m2 (t) horiek lurzati eraikigarrietan banatuko dira, Portu Zuzendaritzak bere kudeaketa-funtzioen arabera, portuak eta haren instalazioek behar bezala funtzionatzeko sortzen diren premien arabera.

## 3. ZONIFIKAZIO GLOBALA –MUGATUTAKO ESPARRU FUNTZIONALAK

| **ESPARRUAK** | **AZALERA** (m²) | **EREMUAREN %** (%) |
|---|---|---|
| **PORTU-ZONA – "ARRANTZA-ERABILERAK"** | 34.864 | 15,57 |
| **PORTU-ZONA – "UR-AISIALDIKO ERABILERAK"** | 14.852 | 6,63 |
| **PORTU-ZONA – "INDUSTRIA- ETA MERKATARITZA-ERABILERAK"** | 12.109 | 5,41 |
| **PORTU-ZONA – "ERABILERA MISTOAK"** | 14.997 | 6,70 |
| **PORTU-ZONA – "LEHORREKO SARBIDEA"** | 28.743 | 12,83 |
| **PORTU-ZONA – "UR-GERUZA"** | 99.122 | 44,26 |
| **PORTU-ZONA – "ITSASERTZA"** | 19.273 | 8,60 |
| **PORTU-ZONA – "HONDAKIN-UREN ARAZTEGIA"** | 4 | 0 |
| ***"PORTUA" EREMUA GUZTIRA*** | ***223.964*** | ***100,00*** |

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

## 4. KALIFIKAZIO XEHATUA:

| **ERABILERA XEHATUKO ZONAK** | **AZALERA** (m²) | **EREMUAREN %** (%) |
|---|---|---|
| **ARRANTZA-ERABILERAKO “P” ZONAK** | | |
| **P.1 – Arrantza-erabilera** | 20.966 | |
| ***P. ARRANTZA-ERABILERAKO ZONAK guztira*** | ***20.966*** | ***9,36*** |
| **NR. UR-AISIALDIKO ERABILERETAKO ZONAK** | | |
| **NR.1** | 9.306 | |
| **NR.2** | 76 | |
| ***NR. UR-AISIALDIKO ERABILERETAKO ZONAK guztira*** | ***9.382*** | ***4,19*** |
| **IC. INDUSTRIA- ETA MERKATARITZA-ERABILERETAKO ZONAK** | | |
| **IC.1** | 2.191 | |
| **IC.2** | 8.319 | |
| **IC.3** | 212 | |
| ***IC. INDUSTRIA- ETA MERKATARITZA-ERABILERETAKO ZONAK guztira*** | ***10.722*** | ***4,79*** |
| **M. ERABILERA MISTOETAKO ZONAK** | | |
| **M.1** | 13.129 | |
| **M.2** | 544 | |
| **M.3** | 47 | |
| **M.4** | 65 | |
| **M.5** | 41 | |
| | ***13.826*** | ***6,17*** |
| **V. BIDEAK** | | |
| **VR.– Ibilgailuen bidea** | | |
| **VR.1** | 15.964 | 7,13 |
| **VR.2** | 5.913 | 2,64 |
| **VP.– Oinezkoen bidea** | | |
| **VP.1** | 236 | 0,11 |
| **VP.2** | 3.406 | 1,52 |
| **VP.3** | 357 | 0,16 |
| **VP.4** | 934 | 0,42 |
| **VP.5** | 332 | 0,15 |
| **VP.6** | 163 | 0,07 |
| **VP.7** | 85 | 0,04 |
| **VP.8** | 1.721 | 0,77 |
| ***V. BIDEAK guztira*** | ***29.111*** | ***13,00*** |
| **EL. ESPAZIO LIBREAK** | | |
| **ELP.– Babeseko espazio libreak** | | |
| **ELP.1** | 6.733 | 3,01 |
| **ELP.2** | 197 | 0,09 |
| **ELP.3** | 320 | 0,14 |
| **ELP.4** | 624 | 0,28 |
| **ELP.5** | 3.016 | 1,39 |
| **ELP.6** | 3.465 | 1,55 |
| ***EL. ESPAZIO LIBREAK guztira*** | ***14.445*** | ***6,45*** |
| **LA. UR-GERUZA** | | |
| **LA.1** | 99.122 | |
| ***LA. UR-GERUZA guztira*** | ***99.122*** | ***44,26*** |
| **I. PORTUKO AZPIEGITURAK (dikeak)** | | |
| **IP. 1** | 10.088 | 4,50 |
| **IP. 2** | 10.804 | 4,82 |
| **IP. 3** | 5.494 | 2,46 |
| ***I. PORTUKO AZPIEGITURAK guztira*** | ***26.386*** | ***11,78*** |
| **DAR. HONDAKIN-UREN ARAZTEGIA** | | 0 |
| **DAR.1** | 4 | |
| ***DAR. HONDAKIN-UREN ARAZTEGIA guztira*** | ***4*** | ***0*** |
| | | |
| ***“PORTU-ZONA” EREMUA GUZTIRA*** | ***223.964*** | ***100,00*** |

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

## 5. PARTZELA ERAIKIGARRIEI ESLEITUTAKO ERAIKIGARRITASUNAK ETA OKUPAZIOA

| ZONA | AZALERA $m^2$(p) | OKUPAZIOA (gehieneko inguratzailea) $m^2$ | ERAIKIGARRITASUNA Sestra gainean | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | **Arrantza** | **Ur-aisialdia** | **Industria/merkataritza** | **Mistoa** | **DAR (HUA)** | **Guztira** |
| | | | Sabai-azalera m²(s) | Sabai-azalera m²(s) | Sabai-azalera m²(s) | Sabai-azalera m²(s) | Sabai-azalera m²(s) | Sabai-azalera m²(s) |
| **P.1** | 20.966 | 9.600 | 11.058,70 | ----- | ----- | ----- | ----- | 11.058,70 |
| **NR.1** | 12.091 | 2091 | ---- | 2.500 | ---- | ---- | ---- | 2.500 |
| **NR.2** | 76 | 76 | ---- | 75,85 | ---- | ---- | ---- | 75,85 |
| **IC.1** | 2.191 | 2.009 | ---- | ---- | 3.572 | ---- | ---- | 3.572 |
| **IC.2** | 8.319 | 7.731 | ---- | ---- | 7.025,90 | ---- | ---- | 7.025,90 |
| **IC.3** | 212 | 212 | ---- | ---- | 264,40 | ---- | ---- | 264,40 |
| **M.1** | | | | | | | | |
| *A unitatea* | | *385* | ---- | ---- | ---- | *945* | ---- | *945* |
| *B unitatea* | | *959* | ---- | ---- | ---- | *2.480* | ---- | *2.480* |
| *C unitatea* | | *980* | ---- | ---- | ---- | *2.482* | ---- | *2.482* |
| *D unitatea* | | *139* | ---- | ---- | ---- | *408* | ---- | *408* |
| *E unitatea* | | *184* | ---- | ---- | ---- | *552* | ---- | *552* |
| *F unitatea* | | *249* | ---- | ---- | ---- | *700* | ---- | *700* |
| **M.1 guztira** | 13.129 | 2.896 | ---- | ---- | ---- | 7.567 | ---- | 7.567 |
| **M.2** | 544 | 544 | ---- | ---- | ----- | 1.370 | ---- | 1.370 |
| **M.3** | 47 | 47 | ---- | ---- | ----- | 108 | ---- | 108 |
| **M.4** | 65 | 65 | ---- | ---- | ----- | 108 | ---- | 108 |
| **M.5** | 41 | 41 | ---- | ---- | ----- | 60 | ---- | 60 |
| **DAR (HUA)** | 4 | 4 | ---- | ---- | ---- | ---- | 8,90 | 8,90 |
| | | | | | | | | |
| **GUZTIRA** | **57.685,00** | **25.316,00** | **11.058,70** | **2.575,85** | **10.862,30** | **9.213,00** | **8,90** | **33.718,75** |

(**1**) Zenbatetsitako azalerak. Lehendik dagoen eraikigarritasuna finkatzen da, “D” eta “E” unitateetan eta “NR.1” eta “P.1” zonetan izan ezik, 272 $m^2$(s), 166 $m^2$(s), 2.000 $m^2$(s) eta 1.060 $m^2$(s) handitzen baitira sestra gainean, hurrenez hurren.

M.2 zonaren eraikigarritasuna 460 m²(s) murriztu da gaur egun duenaren aldean. Horrela, eraikigarritasun berri ordenatua 3.738 m2 (t) da.

"Portua" eremuan egin daitezkeen gainerako 759 m2 (t) horiek lurzati eraikigarrietan banatuko dira, Portu Zuzendaritzak bere kudeaketa-funtzioen arabera, portuak eta haren instalazioek behar bezala funtzionatzeko sortzen diren premien arabera.

Donostia, 2021eko maiatza

MANU ARRUABARRENA SANTIAGO PEÑALBA MIKEL IRIONDO

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## “II.” eranskina

## IRISGARRITASUNA SUSTATZEKO INDARREAN DEN ARAUDIA BETETZEAREN JUSTIFIKAZIOA

## Eusko Legebiltzarraren 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzekoa, eta Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak onartzen dituena

## 1. XEDEA

Eranskin honen helburua da Irisgarritasuna Sustatzeari buruzko abenduaren 4ko 20/1997 Legearen 17.2 artikuluan agindutakoa betetzea, horretarako hartutako neurriak argi eta xehe deskribatuta.

Neurriok erabat egokitzen zaizkio Eusko Jaurlaritzaren apirilaren 11ko 68/2000 Dekretuak ezarritakoari. Dekretu horrek arau teknikoak ezarri ditu hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko sistemen irisgarritasun-baldintzei buruz, eta aipatutako legea garatzen du.

Justifikazio honen irismenak dokumentu honetako plangintza xehatuaren berezko diseinu orokorreko alderdiak soilik jasotzen ditu, eta eraikuntza-diseinuari dagozkion gainerako xehetasunak berorren zehaztapenak garatzeko idatzi behar den urbanizazio-proiektuan bete beharko dira.

## 2. BETETZEAREN JUSTIFIKAZIOA, URBANIZAZIO-ELEMENTUEN ARABERA

### 2.1. BIDEEN DISEINUA ETA TRAZADURA

Eremuaren ezaugarri topografikoak direla-eta, tokirako aurreikusitako oinezkoen eta ibilgailuen ibilbide guztietan —hala sarbideetan, nola portu-zonan— % 2 gainditzen ez duen batez besteko malda maximoa dago; beraz, aipatutako araudiak ezartzen dituen gehienekoak baino indize askoz ere txikiagoak dira.

Portua Katrapuna plazarekin lotzen duen arrapalak soilik gainditzen ditu neurri horiek, % 6 eta % 7 arteko maldak baititu.

### 2.2. ESPALOIAK ETA OINEZKOEN IBILBIDEAK

Galtzaden bi aldeetako espaloiek eta oinezkoentzako eta bitariko ibilbideek desnibel berberak mantenduko dituzte; beraz, araudiak ezarritako % 6ko mugatik beheragoko malda dute, aipatutako salbuespenarekin.

Guztiek 2 metroko edo gehiagoko zabalera dute, oztoporik gabe, eta ez dago 2,20 metro baino gutxiagoko garaiera librerik.

Ibilbide batzuetan eskailerak daude eta, beste batzuetan, berriz, ordezko ibilbideak.

### 2.3. APARKALEKUAK

Aipatutako araudiarekin bat etorriz, ordenatutako aparkalekuetatik, gutxienez bat erreserbatu beharko da, 40 aparkaleku edo zatiki bakoitzeko, mugikortasun urria duten pertsonen ibilgailuentzat, eta erreserbatutako plaza horiek ezarri zaizkien baldintzak bete beharko dituzte.

Donostia, 2021eko maiatza

MANU ARRUABARRENA SANTIAGO PEÑALBA MIKEL IRIONDO

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## III. ERANSKINA

URA URAREN EUSKAL AGENTZIAK HONDAKIN-URAK ETA EURI-URAK ITSASORA ISURTZEARI BURUZ IDATZITAKO TXOSTENA

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

ur agentzia
agencia vasca del agua
ekialdeko kantauriar arroen bulegoa
oficina de las cuencas cantábricas orientales

**DIRECCIÓN DE PUERTOS Y ASUNTOS MARÍTIMOS.**
**GOBIERNO VASCO.**
A./A.: MARIA ICIAR ALONSO QUILCHANO

N/REF.: **CV-2021-0018**
ASUNTO: ***Solicitud de Información sobre autorizaciones de vertido al puerto de Getaria.***

En contestación a su consulta relativa al asunto de referencia con fecha de entrada en esta Oficina de las Cuencas Cantábricas Orientales de la Agencia Vasca del Agua el 2 de marzo de 2021, número de registro 2021RTE00206056, se le comunica:

En la actualidad, las aguas pluviales consideradas "limpias" de tejados, bajantes, etc. que no arrastran sustancias contaminantes no están sujetas a Autorización de Vertido a dominio público marítimo-terrestre por parte de esta Agencia Vasca del Agua.

En cuanto a los vertidos de aguas residuales efectuados desde tierra al mar, incluidas las pluviales susceptibles de arrastrar contaminación, requieren de autorización administrativa conforme al Decreto 196/1997, de 29 de agosto, por el que se establece el procedimiento para el otorgamiento de autorizaciones de uso en la zona de servidumbre de protección del dominio público marítimo-terrestre y de vertido desde tierra al mar, y al Decreto 459/2013, de 10 de diciembre, sobre los vertidos efectuados desde tierra al mar.

En el ámbito del puerto de Getaria, las actividades con autorización de vertido a dominio público marítimo-terrestre son las siguientes:

VTM-G-2012-0010. GIPUZKOAKO URAK, S.A. Autorización de vertido de aguas residuales de la aglomeración urbana de Getaria, previo tratamiento en la EDAR de Sanantonpe.

VTM-G-2015-0002: EUSKADIKO KIROL PORTUAK, S.A. (PUERTO DEPORTIVO DE GETARIA). Autorización de vertido de aguas pluviales susceptibles de arrastrar contaminación de la zona de la gasolinera y mantenimiento de embarcaciones.

VTM-G-2016-0004: ELKANO ARRANTZALEEN KOFRADIA. Autorización de vertido de las aguas de mar, saladas, utilizadas en baldeos y limpiezas de pescado.

Donostia / San Sebastián.

Elektronikoki sinatuta / Firmado electrónicamente:

**Ander Peñalba Arribas** *Isurketa Teknikaria / Técnico de Vertidos*

**Ana Ramos Ocáriz** *Ekialdeko Kantauriar Arroetako Isurketa Arloko Arduraduna / Responsable del Área de Vertidos de las Cuencas Cantábricas Orientales*

Nahi izanez gero, J0D0Z-T2MWD-V728 bilagailua erabilita, dokumentu hau egiazkoa den ala ez jakin liteke egoitza elektroniko honetan: https://euskadi.eus/lokalizatzailea

La autenticidad de este documento puede ser contrastada mediante el localizador J0D0Z-T2MWD-V728 en la sede electronica https://euskadi.eus/localizador

Intxaurrondo, 70 1ª - 20015
Donostia / San Sebastián (Gipuzkoa)
Tel. 945011700 - www.uragentzia.eus

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

# Dokumentua: “B. ORDENANTZA ERREGULATZAILEAK”

**<u>AURKIBIDE OROKORRA:</u>** <u>Or.:</u>

**<u>ATARIKO TITULUA</u>**
**PLAN BEREZIA APLIKATZEARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK**................................. 5

**<u>LEHENENGO TITULUA</u>**
**“XIV Portua” EREMUAN APLIKATZEKOA DEN HIRIGINTZA-ARAUBIDE OROKORRA**...... 6

1.1. KAPITULUA.EREMUAN APLIKATZEKOA DEN KALIFIKAZIO OROKORREKO ARAUBIDEA ........................................................................................ 6

1.2. KAPITULUA.EREMUAN APLIKATZEKOA DEN KALIFIKAZIO XEHATUKO ARAUBIDEA ........................................................................................ 6

1.3. KAPITULUA.PLAN BEREZIAREN GARATZEKO ETA EGIKARITZEKO ARAUBIDE JURIDIKOA........................................................................................ 8

**<u>BIGARREN TITULUA</u>**
**«XIV Portua» EREMUAN APLIKATZEKOAK DIREN ERAIKUNTZA- ETA ERABILERA-ORDENANTZA OROKORRAK**........................................................................... 10

2.1. KAPITULUA.ZONA ERAIKIGARRIEI APLIKATZEKOAK DIREN ORDENANTZA OROKORRAK
(Zonak: P – “Arrantza-erabilera”, NR – “Ur-aisialdiko erabilerak”, IC – “Industria- eta merkataritza-erabilerak” eta M – “Erabilera mistoak”)................................. 10

2.2. KAPITULUA.ZONA ERAIKIEZINEI APLIKATZEKOAK DIREN ORDENANTZA OROKORRAK
(Zonak: V – “Bideak”, EL – “Espazio libreak”, LA – “Ur-geruza”, IP – “Portu-azpiegitura”)........................................................................................ 12

2.3. KAPITULUA.URBANIZAZIOAREN ERAIKUNTZA-KALITATEAREN ETA ZERBITZU-MAILAREN GUTXIENEKO BALDINTZAK ....................................................... 13

**<u>HIRUGARREN TITULUA</u>**
**EREMUKO ZONA ERAIKIGARRIEI APLIKATZEKOAK DIREN ERAIKUNTZA- ETA ERABILERA-ORDENANTZA PARTIKULARRAK** ........................................................... 15

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

**AURKIBIDEA:** Or.:

**ATARIKO TITULUA**
**PLAN BEREZIA APLIKATZEARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK** ..... 5

0.1 artikulua. Esku-hartzearen esparrua ..... 5
0.2 artikulua. Indarrean sartzea eta indarraldiaren baldintzak ..... 5
0.3 artikulua. Proiektuaren esparru arauemailea ..... 5
0.4 artikulua. Proiektua osatzen duten dokumentuak eta haien irismen arauemailea ..... 5

**LEHENENGO TITULUA**
**«XIV Portua» EREMUAN APLIKATZEKOA DEN HIRIGINTZA-ARAUBIDE OROKORRA** 6

**1.1. KAPITULUA.EREMUAN APLIKATZEKOA DEN KALIFIKAZIO GLOBALEKO ARAUBIDEA** ..... 6

1.1.1 artikulua. Eremuko kalifikazio globaleko araubidearen formulazioa ..... 6

1.2.2 artikulua. Dagoen kultura-intereseko ondarea ..... 6

**1.2. KAPITULUA.EREMUAN APLIKATZEKOA DEN KALIFIKAZIO XEHATUKO ARAUBIDEA** ..... 6

1.2.1 artikulua. Eremuko kalifikazio xehatuko araubidearen formulazioa ..... 6

**1.3. KAPITULUA.PLAN BEREZIA GARATZEKO ETA EGIKARITZEKO ARAUBIDE JURIDIKOA** ..... 8

1.3.1 artikulua. Araubide orokorra ..... 8
1.3.2 artikulua. Egikaritze-araubidearen zehaztapena ..... 8
1.3.3 artikulua. Antolamendutik kanpoko eraikinak, instalazioak eta erabilerak ..... 8
1.3.4 artikulua. Portuko eraikuntza-obrak eta dagokion urbanizazioa gauzatzeko beharrezkoak diren obra-proiektuak formulatzeko araubidea ..... 8
1.3.5 artikulua. Urbanizazio-kargen finantzaketa-baldintzak ..... 8
1.3.6 artikulua. Partzelazio-baldintzak ..... 8
1.3.7 artikulua. Eraikitzeko ahalmena baliatzea ..... 9
1.3.8 artikulua. Lehen erabilerako lizentziak emateko baldintzak ..... 9

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

**AURKIBIDEA (jarraipena):** Or.:

**BIGARREN TITULUA**
**«XIV Portua» EREMUAN APLIKATZEKOAK DIREN ERAIKUNTZA- ETA ERABILERA-ORDENANTZA OROKORRAK** ..... 10

**2.1. KAPITULUA.ZONA ERAIKIGARRIEI APLIKATZEKOAK DIREN ORDENANTZA OROKORRAK**
**(Zonak: P – "Arrantza-erabilera", NR – "Ur-aisialdiko erabilerak", IC – "Industria- eta merkataritza-erabilerak" eta M – "Erabilera mistoak")** ..... 10

2.1.1 artikulua. Zona eraikigarriei aplikatzekoa den eraikuntza- eta erabilera-araubidearen formulazioa ..... 10
2.1.2 artikulua. Lerrokadurak ..... 10
2.1.3 artikulua. Eraikinen profila eta altuera ..... 11
2.1.4 artikulua. Higiene- eta osasun-baldintzak eta segurtasunekoak ..... 11
2.1.5 artikulua. Eraikuntza-kalitatearen eta tratamendu estetikoaren baldintzak 11
2.1.6 artikulua. Sestrapeko espazioak erabiltzeko baldintzak ..... 11
2.1.7 artikulua. Irisgarritasuneko baldintza orokorrak ..... 11

**2.2. KAPITULUA. ZONA ERAIKIEZINEI APLIKATZEKOAK DIREN ORDENANTZA OROKORRAK**

**(Zonak: V – "Bideak", EL – "Espazio libreak", LA – "Ur-geruza", IP – "Portu-azpiegitura")** ..... 12

2.2.1 artikulua.Zona hauetan aplikatzekoa den eraikuntza- eta erabilera-araubidearen formulazioa: V – "Bideak" ..... 12
2.2.2 artikulua.Zona hauetan aplikatzekoa den eraikuntza- eta erabilera-araubidearen formulazioa: EL– "Espazio libreak"
2.2.3 artikulua.Zona hauetan aplikatzekoa den eraikuntza- eta erabilera-araubidearen formulazioa: LA– "Ur-geruza" ..... 12
2.2.4 artikulua.Zona hauetan aplikatzekoa den eraikuntza- eta erabilera-araubidearen formulazioa: IP – "Portu-azpiegitura" ..... 13

**2.3. KAPITULUA.URBANIZAZIOAREN ERAIKUNTZA-KALITATEAREN ETA ZERBITZU-MAILAREN GUTXIENEKO BALDINTZAK** ..... 13

2.3.1 artikulua. Hirigintzako oztopoak ezabatzea ..... 13
2.3.2 artikulua. Zerbitzu-sareen eta gainazalen tratamenduen ezaugarri nagusiak ..... 13
2.3.3 artikulua. Saneamendu-sarearen ezaugarriak ..... 13
2.3.4 artikulua. Ur-hornidurako sarearen ezaugarriak ..... 14
2.3.5 artikulua. Argindar eta argiteria publikoaren sarearen ezaugarriak. ..... 14
2.3.6 artikulua. Bideak, espaloiak eta oinezkoentzako esparruak zolatu eta sendotzea ..... 14

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an
Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

Artículo 2.3.7. Baldintza inklusiboak eta segurtasunekoak. .......... 15

**AURKIBIDEA (jarraipena):** Or.:

**HIRUGARREN TITULUA**
**EREMUKO ZONA ERAIKIGARRIEI APLIKATZEKOAK DIREN ERAIKUNTZA- ETA ERABILERA-ORDENANTZA PARTIKULARRAK**

* P.1 zona .......... 16
* NR.1 zona .......... 17
* NR.2 zona .......... 19
* IC.1 zona .......... 20
* IC.2 zona .......... 21
* IC.3 zona .......... 22
* M.1 zona .......... 23
* M.2 zona .......... 25
* M.3 zona .......... 26
* M.4 zona .......... 27
* M.5 zona .......... 28

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## ATARIKO TITULUA
## PLAN BEREZIA APLIKATZEARI BURUZKO XEDAPEN OROKORRAK

### 0.1 artikulua. Esku-hartzearen esparrua

1. Proiektu honen esku-hartzearen esparrua “XIV Portua” hirigintza-eremua da, egun indarrean dauden Getariako Udal Plangintzako Arau Subsidiarioetan definitzen dena.

### 0.2 artikulua. Indarrean sartzea eta indarraldiaren baldintzak

1. Plan Berezia indarrean sartuko da behin betiko onetsi ostean eta indarrean dagoen legeriaren argitalpen-baldintzak betetakoan, eta indarrean jarraituko du indargabetzen ez den bitartean.

2. Proiektu honetako zehaztapenetako baten edo batzuen deuseztasunak, deuseztatzeak edo aldaketak ez dio eragingo gainerakoen baliozkotasunari, salbu eta azken horietako bat aplikaezina bada haiekin lotuta egoteagatik edo haien mendekoa izateagatik.

### 0.3 artikulua. Proiektuaren esparru arauemailea

1. Proiektu honen esparru arauemailea da: aipatutako Arau Subsidiarioetan zehaztutako araubide juridiko-urbanistiko orokorra, eta, bereziki, “XIV Portua” esku-hartze eremuari dagozkion zehaztapenetan ezarritakoa.

### 0.4 artikulua. Proiektua osatzen duten dokumentuak eta haien irismen arauemailea

1. Plan Berezia osatzen duten dokumentuak

   Honako dokumentu hauek osatzen dute proiektua:

   * **“A” DOKUMENTUA: MEMORIA**
   * **“B” DOKUMENTUA: ORDENANTZA ERREGULATZAILEAK**
   * **“C” DOKUMENTUA: ETAPEN PLANA**
   * **“D” DOKUMENTUA: EKONOMIA- ETA FINANTZA-AZTERKETA ETA JASANGARRITASUN EKONOMIKOARENA**
   * **“E” DOKUMENTUA: GENERO IKUSPUNTUA**
   * **“F” DOKUMENTUA: HIZKUNTZA INPAKTUAREN EBALUAZIOA**
   * **“G” DOKUMENTUA: EGIKARITZE LABURPENA**
   * **“H” DOKUMENTUA: PLANOAK**

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau [...] Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

2. Dokumentuen izaera arauemailea

   Proiektuaren arau-edukia artikulu honetako 1. epigrafean adierazitako dokumentuetan definitzen bada ere, dokumentu hauek dute, berariaz, arau-izaera eta hirigintzako esku-hartzea erregulatzeko izaera: “B. Ordenantza erregulatzaileak”, “C. Etapen plana” eta “E. Planoak” dokumentuko “E.II. Antolamendu-planoak” atalean espresuki halakotzat definitutako

planoak. Beraz, hirigintzako esku-hartzeak zehaztapen horien araberakoa izan beharko du nahitaez.

Gainerako dokumentuak adierazleak, erreferentzialak edo justifikatzekoak dira funtsean; hortaz, edukian kontraesanik badago arestian aipatutakoekin, azken horiek nagusituko dira.

3. Desadostasunak dokumentuen artean

Hirigintza-zehaztapen jakin bati buruzko desadostasunik egonez gero eskala desberdinetan egindako arau-izaerako planoen artean, eskala zabalagoan eginiko planoetan ezarritakoa nagusituko da, salbu eta bat ez etortzea azken horien edukiko akats material nabari baten ondoriozkoa denean.

## LEHENENGO TITULUA
## «XIV Portua» EREMUAN APLIKATZEKOA DEN HIRIGINTZA-ARAUBIDE OROKORRA

### 1.1. KAPITULUA. EREMUAN APLIKATZEKOA DEN KALIFIKAZIO GLOBALEKO ARAUBIDEA

#### 1.1.1 artikulua. “XIV Portua” eremuaren “kalifikazio globaleko” araubidearen formulazioa

1. “XIV Portua” eremua Getariako udal-plangintzako indarreko Arau Subsidiarioetan xedatutako kalifikazio orokorreko araubidearen menpe dago. Arau horien arabera, aipatutako esparru osoa dago portu-zonatzat kalifikatuta.

2. Proiektu honek, zona global orokor horretan, zona edo jarduera-esparruen zortzi tipologia hauek bereizi ditu, “II.2.- Esparru funtzionalak” planoan ikus daitekeenez.

   - Portu-zona – “ARRANTZA-ERABILERAK”
   - Portu-zona – “UR-AISIALDIKO ERABILERAK”
   - Portu-zona – “INDUSTRIA- ETA MERKATARITZA-ERABILERAK”
   - Portu-zona – “ERABILERA MISTOAK”
   - Portu-zona – “LEHORREKO SARBIDEA”
   - Portu-zona – “UR-GERUZA”
   - Portu-zona – “ITSASERTZA”
   - Portu-zona – “HONDAKIN-UREN ARAZTEGIA”

### 1.2. KAPITULUA. EREMUAN APLIKATZEKOA DEN KALIFIKAZIO XEHATUKO ARAUBIDEA

#### 1.2.1 artikulua. «XIV Portua» eremuaren “kalifikazio xehatuko” araubidearen formulazioa

1. «XIV Portua» eremuak, beraz, kalifikazio xehatuko araubidea hau beteko du: proiektuan xedatutako zonakatze-zehaztapenen ondoriozkoa —“II.3. Kalifikazio xehatua” planoan agertzen dira zehaztapenok—. Horrenbestez, kontuan hartuko dira ondoren zehazten diren erabilera xehatuko zona-motak eta zonen definizioa:

   * Arrantza-erabilerako zona, P

     Hauek baimentzen dira zona horietan: portu-erabilerei eta haiekin zerikusia dutenei lotutako eraikuntza eta erabilerak, aplikatzeko legeria sektorialaren arabera, hirugarren sektoreko erabilerak barne.

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

Produkzio-zona horien berezko erabileratzat hartzen dira: itsasontziak armatu eta konpontzea, industriako eta hornidurako gaiak biltegiratzea eta, oro har, arrantza- eta portu-erabilerak. Era berean, tresnak, garabiak eta lanabes mugikorrak erabil daitezke zamak eta ontziak manipulatzeko, baita portuko instalazioetan eraikuntza-obrak eta mantentze-lanak egiteko ere.

Erabilera onargarritzat baimentzen dira, berariaz, aparkaleku-erabilera, hala lurzoruan, nola lurpean, baita hirugarren sektoreko erabilera haien lagungarriak eta ontzietarako erregai-horniketa ere.

* Ur-aisialdiko erabileretako zonak, NR

Zona horietan nagusiki baimenduta daude eraikuntza eta hirugarren sektoreko erabilerak (merkataritza, ostalaritza, aisia, turismoa, horren antzekoak eta osagarriak), baita portu-erabilerei lotutako eraikuntza eta erabilerak ere; EAEko Portuen eta Itsas Garraioen Legean eta Kostaldeei buruzko Legean eta horren Erregelamenduan ezarritako mugen barruan.

Erabilera onargarritzat baimentzen dira, berariaz, aparkaleku-erabilera, hala lurzoruan, nola lurpean, baita komunitate-ekipamendukoak eta ontzietarako erregai-horniketa ere.

* Industria- eta merkataritza-erabileretako zonak, IC

Portuko zerbitzuak izan gabe, zerbitzugunean egin daitezkeen merkataritza- edo industria-jarduerak nagusiki baimentzen diren zonak.

* Erabilera mistoetako zonak, M

Lehen aipatutako portu-zonen (P, NR, IC) berezko edozein erabilera baimentzen den zonak.

* Bideen zonak, V
  - Ibilgailuen bidea, VR.
  - Oinezkoen bidea, VP.

Zona horietan baimenduta dago ibilgailuek zirkulatzea eta aparkatzea, baita oinezkoak ibiltzea ere, modu libre eta bereizian (VR), edo oinezkoak eurak bakarrik (VP).

* Babeseko espazio libreak, ELP

Hondartzako zona naturalak, gune berdeak edo zolatuak. Hasiera batean, debekaturik dago bertan eraikitzea, berezko erabileratzat baitute espazio libreak izatea, paisaiak babesteko eta oinezkoen zirkulaziorako.

* Ur-geruza, LA

Zona horietan baimenduta dago ontziak ibiltzea eta uztea legeria sektorialaren eta aplikatzekoa den araubidearen arabera.

* Portuko azpiegiturak (dikeak), IP

Zona hauetako eraikuntza orokorrean erregulatuta dago portu-legeriaren aplikaziotik ateratzen diren baldintza orokorren bitartez. Berariaz baimentzen da azpiegitura energetikoak ezartzea ikerketarako eta energia ekoizteko.
Erabilera onargarritzat baimentzen da, berariaz, ontzientzako erregai-hornidura.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.
Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.
Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA



**1.2.2. artikulua Dagoen cultura interés ondarea.**

Ildo horretan, Plan Bereziak horri buruz indarrean dauden Arau Subsidiarioetako aurreikuspenak jasotzen ditu, kultura-ondareko kide izan daitezkeelakoan interesa duten zenbait elementu barne.

Gainera, kontuan hartu behar da portuaren mugak Getariako hiriguneko monumentu-multzoarekin bat datozela, eta, beraz, hirigunean ezarritako babesak aplikatuko zaizkie ondoko bi eremuetako elementuei (Hirigunea eta Portua).

Era berean, Kultura Ondareari buruzko Legearen 65. artikulua (6/2019 Legea) aplikatuko da Arau Subsidiarioetan eremurako definitutako Ustezko Arkeologia Zonetan, eta hori portuko badia eta bokaleko itsaspeko zonetara hedatuko litzateke, baita hegoaldeko kai-muturraren eta Malkorbeko hondartzaren artera ere, baleen balizko hondoratzeak eta arrantza-hondarrak direla eta.

Azkenik, kontuan hartu beharko da proposatutako eraikuntza-jarduera batzuek Kultura Ondarean izan dezaketen inpaktu-arriskua eta horiek prebenitzeko beharra, hala nola Tintalekuko teilatupea edo Kofradiako kaiko lurpeko garajea, bai eta edozein urbanizazio-jarduketa portuko ingurumen- eta kultura-balioekin harmonizatzea ere.

**1.3. KAPITULUA. PLAN BEREZIA GARATZEKO ETA EGIKARITZEKO ARAUBIDE JURIDIKOA**

**1.3.1 artikulua. Araubide orokorra**

Plan Berezi hau garatzeko eta egikaritzeko araubide juridikoa honako xedapen hauei egokituko zaie:

- - Indarrean dauden Arau Subsidiarioetan ezarritako araubidea —bai oro har, bai berariaz— "XIV Portua" eremuari dagozkion zehaztapenetan.
- Bere edukian ezarritako araubide juridikoko zehaztapenak.

**1.3.2 artikulua. Egikaritze-araubidearen zehaztapena**

Eremu osoa titulartasun publikokoa da, eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailak proiektuaren garapena kudeatuko du Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren bitartez.

Jarduketa-esparruak barnean hartuz gero adierazitako titulartasunaz bestelakoa duen lursailik, desjabetze-espedientearen bitartez eskuratuko da hori.

**1.3.3 artikulua. Antolamendutik kanpoko eraikinak, instalazioak eta erabilerak**

Antolamendutik kanpo deklaratzen dira proiektu honetan xedatutako erabilera- eta eraikuntza-araubidearekin bat ez datozen eraikinak, instalazioak eta erabilerak.

**1.3.4 artikulua. Portuko eraikuntza-obrak eta dagokion urbanizazioa gauzatzeko beharrezkoak diren obra-proiektuak formulatzeko araubidea**

Plan Bereziaren esku-hartze eremuan aurreikusitako urbanizazio-obrek behar diren proiektuak izango dituzte kaien handitze txikiak eraikitzeko eta urbanizatzeko, bai eta Plan honetan antolatutako espazio publikoa berrurbanizatzeko ere.

**1.3.5 artikulua. Urbanizazio-kargen finantzaketa-baldintzak**

Urbanizazio-kargen finantzaketari dagokionez, proiektu honen “D. Ekonomia- eta finantza-azterketa” dokumentuan ezarritakoari jarraituko zaio.

**<u>1.3.6 artikulua.</u> Partzelazio-baldintzak**

Hurrengo artikuluak eraikuntza-proiektuak prestatzeari buruz ezarritakoa deusetan galarazi gabe, azpizatitu ahal izango dira mugatutako partzela eraikigarriak.

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

**LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA**
**EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA**

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

**<u>1.3.7 artikulua.</u> Eraikitzeko ahalmena baliatzea**

1. Oro har, esparruan aurreikusitako eraikinen egikaritzeak bete egin beharko ditu bai indarrean dagoen hirigintza-legerian ezarritako baldintzak, bai Plan Berezian xedatutakoak.

2. Bereziki, partzela bakoitzeko eraikuntzak bete egin beharko ditu Plan Bereziak partzela bakoitzerako xedatutako eraikigarritasun-baldintzak.

3. Partzela eraikigarrietako eraikuntza-proiektuak egiteko eta beharrezkoak diren udal-lizentziak emateko, emakidaren xedeko eraikin eta instalazioetarako irizpide hauek bete beharko dira:

   a/ Oinarrizko proiektuak formulatzea:

   Proiektu honek mugatzen dituen “arrantza-erabilerako” edo “industria- eta merkataritza-erabilerako” zonetan dauden eraikuntzetarako, oinarrizko eraikuntza-proiektu bat edo batzuk egin ahal izango dira.

   “M.1” eta “NR.1” zonetan aurreikusitako eraikinek oinarrizko zenbait proiektu izan ditzakete, haiek partzeletan egikaritzearen ondorioetarako zehaztuta edo zehazteko dauden eraikuntza-unitateetarako idatziak. “M.2” zonako eraikinerako, eraikuntza-proiektu bakarra egingo da.

   b/ Eraikuntza-lizentziak ematea:

   Baterako oinarrizko proiektua formulatu zaien eraikinak eraikuntza-lizentzia baten xede izango dira.

   c/ Egikaritze-proiektuak formulatzea:

   Eraikuntza-lizentzia bereizia eman zaion eraikuntza bakoitzak egikaritze-proiektu bana eduki beharko du.

4. Esparruko eraikuntzen egikaritzea proiektuaren “C. Etapen plana” dokumentuan ezarritako epeei lotuko zaie.

**<u>1.3.8 artikulua.</u> Lehen erabilerako lizentziak emateko baldintzak**

Eremuan aurreikusitako eraikinen lehenengo erabilerarako lizentziak emango badira, aldez aurretik egin beharko dira proiektu honetako “C. Etapen plana” dokumentuan adierazitako urbanizazio-obrak.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.
Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.
Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES



# BIGARREN TITULUA
# «XIV Portua» EREMUAN APLIKATZEKOA DEN ERAIKUNTZA- ETA ERABILERA-ORDENANTZA OROKORRAK

## 2.1. KAPITULUA.ZONA ERAIKIGARRIEI APLIKATZEKOAK DIREN ORDENANTZA OROKORRAK (Zonak: P – “Arrantza-erabilera”, NR – “Ur-aisialdiko erabilerak”, IC – “Industria- eta merkataritza-erabilerak” eta M – “Erabilera mistoak”)

### 2.1.1 artikulua. Zona eraikigarriei aplikatzekoa den eraikuntza- eta erabilera-araubidearen formulazioa

1. Araubide orokorra

Zona eraikigarrietan garatuko diren eraikuntzek honako hauek bete beharko dituzte, aplikatzeko eraikuntza- eta erabilera-araubideari dagokionez: araubide hori eremurako zehazten duten baldintza orokorrak, Plan Berezi honetan jasoak.

2. “XIV Portua” esparruko zonei aplikatzekoak diren eraikuntza-baldintza partikularrak

Plan Berezi honek dagokion “Ordenantza partikularrak” atalean aurreikusi du, zona bakoitzerako, eraikigarritasun bat esleitzea eta eraikuntzen formari buruzko erregulazio jakin batzuk.

Eraikuntzen formaren eta esleitutako eraikigarritasunaren arteko doikuntza honako hauen bitartez moldatuko da: lerrokadurak —gehieneko lerrokaduren okupazioa— eta hobetsitako forma bolumetrikoa.

Hala ere, kontuan izan behar da antolamenduak ez dituela indarrean dauden Arau Subsidiarioek baimendutako 34.478 m2 (t) agortzen, eta guztira 759 m2 (t) ordenatzeke daudela.

Eraikigarritasun hori lurzati eraikigarrietan banatu ahal izango da, Portu Zuzendaritzak bere kudeaketa-funtzioen arabera, portuak eta haren instalazioek behar bezala funtzionatzeko sortzen diren premien arabera.

Eraikin berrien forma zehazteko, kasuan kasuko xehetasun-azterketak egingo dira.

3. “XIV Portua” esparruko zonei aplikatzekoak diren erabilera-baldintza partikularrak

Urriaren 10eko 876/2014 Errege Dekretuaren 105. artikuluaren arabera, merkataritza- eta jatetxe-erabilerak baimendu ahal izango dira, betiere itsaso eta lehorraren arteko jabari publikoari edo portu-jarduera eragozten ez badute eta hirigintza-plangintzan ezarritakora egokitzen badira. Baimendutako gehieneko azalera honako hau izango da:

a) Portuaren barruko ur-geruzaren % 16tik beherakoa = 12.968 $m^2$(t)
b) Portuaren lehorreko azaleraren % 10etik beherakoa = 12.485 $m^2$(t)
c) Amarraleku bakoitzeko 20 metro karratutik beherakoa = 7.500 $m^2$(t)

Gaur egun eraikitako azalera, guztira, 1.087 m2 (t) da; beraz, Plan Bereziaren eremuan dauden merkataritza- eta zaharberritze-erabilerek 7.500 m2 (t) -ko gehieneko azalera baino txikiagoa dute, KEOren 105. artikuluan oinarrituta kalkulatuta.

Plan Berezian antolatutako eraikigarritasun berrian ez da berariaz aurreikusten horrelako erabilerarik ezartzea, eta, beraz, hura garatzeko asmoa izanez gero, portuaren kudeaketa izango da arestian adierazitako mugak aplikatuko dituena.

**<u>2.1.2 artikulua.</u> Lerrokadurak**

- Eraikuntza-lerrokadurak dagokion ordenantza partikularrean kasuak kasu ezarritakora egokituko dira. Bi lerrokadura mota ezberdin definitzen dira:

  * Nahitaezko lerrokadurak
  * Gehieneko lerrokadurak

- Nahitaezkoei dagokienez, eraikuntzaren fatxada haien gainean ezarri beharko da ezinbestean.

- Gehieneko lerrokaduretan, ordea, eraikuntzaren fatxada partzelaren barrurantz atzera daiteke haietatik.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

### 2.1.3 artikulua. Eraikinen profila eta altuera

1. Dagokion ordenantza partikularrean xedatutako baldintzak bete beharko dira partzela bakoitzean. Baldintza horien artean dago erreferentzia-maila, zeinetatik abiatuta neurtuko baita kasu bakoitzean aplika daitekeen eraikuntza-altuera.

2. Ezarritako gehieneko altuera kasu hauetan bakarrik gainditu ahalko da: portu-instalazioen funtzionamendurako beharrezkoak diren elementuak, “P” zonetan, eta instalazioetarako elementuak, “NR”, “IC” eta “M” zonetan.

3. Ordenantza partikularrean zehaztutako baldintzak ezarriko dira ere eraikuntza-profilaren kasuan; I/I ikurraren bidez adierazten da: lehenbiziko zenbaki erromatarrak sestra azpiko solairuak adierazten ditu, bigarrenak, ordea, sestra gainekoak.

4. “P” eta “IC” zonetan, baimena ematen da solairuarteak jartzeko erabilera industrialeko zonetarako indarrean dauden Arau Subsidiarioetan ezarritako baldintzetan (100.11 artikulua).

### 2.1.4 artikulua. Higiene- eta osasun-baldintzak eta segurtasunekoak

Plan berezian zehaztutako zona eraikigarrietan garatuko diren eraikuntza guztiek eduki beharko dituzte eraikitze-lanei ekiteko unean indarrean dagoen legerian ezarritako elementuak, zerbitzuak eta baldintzak, higiene eta osasunaren aldetik zein segurtasunarenetik.

Plan Berezi honek aukera hau ere aurreikusten du: P zonako perimetroetan itxitura jarraitu bat ezartzea, bertako irisgarritasuna kontrolatze aldera.

### 2.1.5 artikulua. Eraikuntza-kalitatearen eta tratamendu estetikoaren baldintzak

1. Plan Bereziaren kapitulu honetan zehaztutako zonetan garatzen diren eraikuntza guztiek bete beharko dituzte egikaritzearen unean indarrean dauden eraikuntza-ordenantzek eta eraikuntzari eta eraikinen kalitateari buruzko arauek xedaturikoak.

2. Eraikuntzen egikaritzeari dagokionez, material homologatuak erabiliko dira, eraikuntzaren xedea ezin hobeki betetzeko behar den kalitatea dutenak. Akabera-baldintza egokiak izan behar dituzte, bai kanpoaldera, bai barrualdera.

3. Paisaiaren eta arkitekturaren kalitate egokia bermatze aldera, fatxaden eta estalkien paramentuen gainazalek ingurunearekin harmonia gordeko duten akaberak izango dituzte, ikoniko edo adierazgarritzat jotako elementuetan izan ezik.

### 2.1.6 artikulua. Sestrapeko espazioak erabiltzeko baldintzak

Zona eraikigarrietako sestrapeko espazioak garajerako, aparkalekurako edo erabilera nagusien erabilera osagarrietarako erabiliko dira soilik.

### 2.1.7 artikulua. Irisgarritasuneko baldintza orokorrak

Plan Berezi honek zehaztutako zona eraikigarrietan garatzen diren eraikuntza eta hiri-ingurune guztiek honako hauek bete beharko dituzte: eraikitzeko garaian indarrean dagoen legeriak ezartzen dituen irisgarritasun unibertsaleko gutxieneko baldintzak.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

**2.2. KAPITULUA. ZONA ERAIKIEZINEI APLIKATZEKOAK ZAIZKIEN ORDENANTZA OROKORRAK (V. "Bideak", EL. "Espazio Libreak", LA. "Ur-geruza", IP. "Portuko azpiegiturak" zonak).**

**<u>2.2.1. artikulua.</u> V. "Bideak" zonetan aplikatzekoa den eraikuntza- eta erabilera-araubidearen formulazioa**

1. <u>Araubide orokorra:</u>

Aipatutako zonen berezko erabilerak dira, hurrenez hurren, ibilgailuen eta oinezkoen zirkulazioa.

Hasiera batean, debekatuta dago zona horietan eraikitzea. Nolanahi ere, onartuko dira dagokion legedi sektorialak baimendutako elementu osagarriak, baita zerbitzuetarako azpiegitura-zentroak, mantentze-lanetarakoak, pisatzeko baskulak eta antzekoak ere.

Batetik, oinezkoentzako eta ibilgailuentzako "VR" zonak ditugu: bereizita dituzte espaloia eta galtzada, eta lehorreko sarbideei dagozkien zonetan daude.

Beste alde batetik, "VP" zonak, hots, oinezkoen ibilbideei dagozkienak, bai lehorreko sarbideei dagozkien zonetan, bai ur-kiroleko eta itsasertzeko zonetan daudenak.

Oro har, baimenduta dago lur gaineko aparkaleku-erabilera "VR" zonetan.

**<u>2.2.2. artikulua.</u> EL. "espazio libreak" zonetan aplikatzekoa den eraikuntza- eta erabilera-araubidearen formulazioa.**

1. <u>Araubide orokorra:</u>

Egun eremuan finkatuta dauden babes-espazioak dira (ELP). Hasiera batean, debekatuta dago bertan eraikitzea. Alabaina, onargarria izan liteke dikearen diseinuan integratuta badago edo behin-behineko eraikuntza modura —aldi baterako hirugarren mailako ezarpenak, administrazio-emakidaren araubidean—.Halaber, onartuko dira legedi sektorialak baimendutako elementu osagarriak, baita energia-zerbitzuen eta -azpiegituren zentroak ere.

**<u>2.2.3. artikulua.</u> LA. "Ur-geruza" zonan aplikatzekoa den eraikuntza- eta erabilera-araubidearen formulazioa.**

1. <u>Araubide orokorra:</u>

Aipatutako zonetako berezko erabilerak dira ontzien zirkulazioa eta ontziak uztea.

Hasiera batean, debekatuta dago zona horietan eraikitzea. Nolanahi ere, onartuko dira dagokion legedi sektorialak baimendutako elementu osagarriak —dikeak eta bestelakoak—, baita energia-azpiegiturak ere, dikeetan energia sortzeari buruz ikertzeko eta energia ekoizteko instalazioak edukitze aldera (I+G jarduerak).

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

2. <u>“LA” zonan aplikatzekoak diren baldintza partikularrak.</u>

   Sektoreko legediak eta aplikatzekoa den portuko araudiak zehaztuko dituzte, eta bereziki helburu horrekin formulatzen den Portu Espazioen eta Erabileren Mugaketak.

**<u>2.2.4. artikulua.</u> IP. “Portu Azpiegitura” zonetan aplikatzekoa den eraikuntza- eta erabilera-araubidearen formulazioa.**

1. <u>Araubide orokorra:</u>

   Aipatu zonetako berezko erabilerak dikeei dagozkionak dira.

   Hasiera batean, debekatuta dago zona horietan eraikitzea. Nolanahi ere, onartuko dira legedi sektorialak baimendutako elementu osagarriak, baita energia-zerbitzuen eta -azpiegituren zentroak ere, dikeetan energia sortzeari buruz ikertzeko eta energia ekoizteko instalazioak edukitze aldera (I+G jarduerak).

   Erabilera onargarri gisa zehazki baimentzen da ontzietarako erregai-hornikuntzako erabilera.

**2.3. KAPITULUA. URBANIZAZIOAREN ERAIKUNTZA-KALITATEAREN ETA ZERBITZU-MAILAREN GUTXIENEKO BALDINTZAK**

**<u>2.3.1. artikulua.</u> Hirigintzako oztopoak ezabatzea.**

Plan Bereziaren garapen gisa izapidetzen diren proiektuek honako hauek bete beharko dituzte: Eusko Legebiltzarraren 20/1997 Legea, abenduaren 4koa, Irisgarritasuna Sustatzeari buruzkoa, eta Eusko Jaurlaritzaren 68/2000 Dekretua, apirilaren 11koa, Hiri-inguruneen, espazio publikoen, eraikinen eta informazio eta komunikazioko irisgarritasun-baldintzei buruzko arau teknikoak biltzen dituena. Dekretu hori aipatutako Legearen garapena da.

**<u>2.3.2. artikulua.</u> Zerbitzu-sareen eta azaleren tratamenduen ezaugarri nagusiak.**

Proiektu honekin batera datozen azpiegitura-planoek eremuan ezarriko diren zerbitzu-sareen eskemak baino ez dituzte irudikatzen.

Kapitulu honetan deskribatutako bide, espaloi eta oinezkoentzako esparruen azalera-tratamenduek gutxienekoen izaera dute.

Dagokien proiektuetan aztertuko dira zehazki batzuk zein besteak, eta eragiten dien araudi espezifikoaren araberako ezaugarriak izan beharko dituzte.

Hori guztia Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak esku hartzeko irizpideak zehaztu ondoren, eta betiere espazio publiko inklusiboa ezarri eta gaitzeko borondatearekin, urbanizazio-jarduera oro portuko ingurumen- eta kultura-balioekin harmonizatuz.

**<u>2.3.3. artikulua.</u> Saneamendu-sarearen ezaugarriak.**

Saneamendu-sarea bereizlea izango da.

**<u>2.3.4. artikulua.</u> Ur-hornidurako sarearen ezaugarriak.**

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

1. Ur-hornidurako sarea honako hauetarako aurreikuspenak betetzeko moduan diseinatuko da, kasu bakoitzerako indarreko araudia beteta:

    a. Edateko urez hornitzea
    b. Ureztatzea
    c. Suteen aurka babestea (Ur-harguneak).

2. Ur-hornidura udalaren esku egongo da.

**<u>2.3.5. artikulua.</u> Energia elektrikoaren eta argiteria publikoaren sarearen ezaugarriak.**

1. Linea eta instalazio elektriko orok indarrean dauden erregelamendu ofizialak bete beharko ditu, baita enpresa emakidadunen arauak ere.

2. Errepideetako batez besteko argiztapena 25 luxekoa izango da gutxienez; oinezkoentzako arloetan, aldiz, 18 luxekoa.

**<u>2.3.6. artikulua.</u> Bideak, espaloiak eta oinezkoentzako esparruak zolatu eta sendotzea**

Kaiak eta portuko plataformak, bai eta espaloiak eta oinezkoentzako guneak ere, une bakoitzean dagokion Sailak ezarritako irizpideen arabera zolatuko dira.

**<u>2.3.7. artikulua.</u> Baldintza inklusiboak eta segurtasunekoak**

Plan Bereziaren eremuan sustatu beharreko urbanizazio-obren proiektuek beharrezko baldintzetan zehaztuko dituzte beren proposamenak, espazio publiko inklusiboa izan eta gaitzeko, honako hauek bermatzeko:

* Espazio publikoaren eta bertara sartzeko bideen segurtasuna.
* Horretarako hiri-altzari egokiak ezartzea.
* argiteria publikoaren sarea ezartzea, espazio publikoaren segurtasunaren pertzepzioa errazteko moduan.
* Oinezkoen ibilbideak antolatzea, jarraitutasun-, irisgarritasun- eta segurtasun-baldintza egokietan.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## HIRUGARREN TITULUA
## EREMUKO ZONA ERAIKIGARRIEI APLIKATZEKOAK ZAIZKIEN ERAIKUNTZA- ETA ERABILERA-ORDENANTZA PARTIKULARRAK

**AURKIBIDEA** Orr.:


* P.1. zona .......... 16
* NR.1. zona .......... 19
* NR.2. zona .......... 21
* IC.1. zona .......... 22
* IC.2. zona .......... 23
* IC.3. zona .......... 24
* M.1. zona .......... 25
* M.2. zona .......... 27
* M.3. zona .......... 28
* M.4. zona .......... 29
* M.5. zona .......... 30


**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

**LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA**
**EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA**

**IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA**

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## “P.1.” ZONA

AZALERA: **20.966 m²**

KALIFIKAZIO XEHATUA: **“Arrantza-erabilerako zona”**

ERAIKUNTZA-BALDINTZAK:

* Sestra gaineko eraikigarritasuna:
  - Egungoa (zenbatetsia): 9.998,70 m²(s) (Lehendik dagoen eraikuntza finkatzen da).
  - Berria: 1.060 m²(s)
  - **GUZTIRA**: **11.058,70 m²(s)**
* Sestrapeko eraikigarritasuna: Getariako plangintzako Arau Subsidiarioen “B.1. Hirigintzako Arau Orokorrak” dokumentuaren Arau Orokorren 68. artikuluan ezarritako baldintzetan baimendutako sestrapeko hiru solairuei lotzen zaie.
* Eraikigarritasuna ezartzearen araudia:
  - Egungo eraikuntza: Lehendik dagoen eraikuntzaren ezaugarri geometrikoak baliozkotzen dira.
  - Berria: Eraikuntza berria lehendik dagoen eraikuntzaren egungo parametro orokorren arabera egikarituko da, Arau Partikular honetan barnean hartzen den grafikoaren arabera ezarritako okupazio maximoaren barruan.

ERABILERA-BALDINTZAK:

* Baldintza orokorrak: Zonaren eta eraikuntzaren erabilera- eta jabari-baldintzak Plan Berezi honetan ezarritakoari eta portu-erabileren berezko eskakizunei egokituko zaizkie, dagokion legedi sektorialarekin bat etorrita.

GRAFIKOAK

1. Eraikuntza-baldintzak. Okupazio maximoa. (Xehetasuna)

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## “NR.1.” ZONA

**AZALERA:** **12.091 m²**

KALIFIKAZIO XEHATUA: **“Ur-aisialdiko zona”**

ERAIKUNTZA-BALDINTZAK:

* Sestra gaineko eraikigarritasuna:

| | |
|---|---|
| - Egungoa (zenbatetsia) | 500 m²(s) (Lehendik dagoen eraikuntza finkatzen da). |
| - Berria | 2.000 m²(s) |
| - Guztira sestra gainean | 2.500 m²(s) |

* Sestrapeko eraikigarritasuna: Baimendutako hiru solairuen emaitza da, Arau Partikular honetako 1. grafikoan mugatutako gehieneko lerrokadurekin.

* Eraikigarritasuna ezartzearen araudia:

| | |
|---|---|
| - “Lerrokadurak”: | Eraikuntzak zona okupatzeko mugak Arau Partikular honetako grafikoetan zehazten dira, eta gehieneko lerrokadura gisa definitzen dira. |
| - “Eraikuntza-profila”: | **III/II** (Hiru soto eta sestra gaineko bi solairu). |
| - Eraikuntzaren altuera: | **7,00 m.** Fatxadaren luzeraren erdiko puntuaren maila hartuko da arauzko erreferentziatzat eraikuntzaren altuera zehazteko. |

ERABILERA-BALDINTZAK:

* Baldintza orokorrak: Zonaren eta eraikuntzaren erabilera- eta jabari-baldintzak Plan Berezi honetan ezarritakoari eta portu-erabileren berezko eskakizunei egokituko zaizkie, dagokion legedi sektorialarekin bat etorrita.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## “ND.1” (jarraipena)

EGIKARITZE-BALDINTZAK:

* Zonaren azpizatiketa egin nahi izanez gero, dokumentu honen “1.3.6.” eta “1.3.7.” artikuluetan xedatutakoari jarraituko zaio.

* Eraikuntzen lehenengo erabilerarako lizentziak emango badira, aldez aurretik bete beharko dira proiektuko “D. Etapa-plana” dokumentuan ezarritako urbanizazio-betebeharrak.

GRAFIKOAK

1. Eraikuntza-baldintzak.

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## “NR.2.” ZONA

AZALERA: **76 m²**

KALIFIKAZIO XEHATUA: **“Ur-aisialdiko zona”**

ERAIKUNTZA-BALDINTZAK:

* Sestra gaineko eraikigarritasuna: **76 m²(s)** (zenbatetsia) (Lehendik dagoen eraikuntza finkatzen da)

* Sestrapeko eraikigarritasuna: Getariako plangintzako Arau Subsidiarioen “B.1. Hirigintzako Arau Orokorrak” dokumentuaren Arau Orokorren 68. artikuluan ezarritako baldintzetan baimendutako sestrapeko hiru solairuei lotzen zaie.

* Eraikigarritasuna ezartzearen araudia: Lehendik dagoen eraikuntzaren ezaugarri geometrikoak baliozkotzen dira.

ERABILERA-BALDINTZAK:

* Baldintza orokorrak: Partzelaren eta eraikuntzaren erabilera- eta jabari-baldintzak Plan Berezi honetan ezarritakoari eta portu-erabileren berezko eskakizunei egokituko zaizkie, dagokion legedi sektorialarekin bat etorrita.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## “IC.1.” ZONA

| | |
|---|---|
| AZALERA: | **2.191 m²(p)** |
| KALIFIKAZIO XEHATUA: | **“Industria- eta merkataritza-erabilerako zona”** |

ERAIKUNTZA-BALDINTZAK:

| | |
|---|---|
| * Sestra gaineko eraikigarritasuna: | **3.572 m²(s)** (zenbatetsia) (Lehendik dagoen eraikuntza finkatzen da). |
| * Sestrapeko eraikigarritasuna: | Getariako plangintzako Arau Subsidiarioen “B.1. Hirigintzako Arau Orokorrak” dokumentuaren Arau Orokorren 68. artikuluan ezarritako baldintzetan baimendutako sestrapeko hiru solairuei lotzen zaie. |
| * Eraikigarritasuna ezartzearen araudia: | Lehendik dagoen eraikuntzaren ezaugarri geometrikoak baliozkotzen dira. |

ERABILERA-BALDINTZAK:

| | |
|---|---|
| * Baldintza orokorrak: | Zonaren eta eraikuntzaren erabilera- eta jabari-baldintzak Plan Berezi honetan ezarritakoari eta portu-erabileren berezko eskakizunei egokituko zaizkie, dagokion legedi sektorialarekin bat etorrita. |

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## “IC.2.” ZONA

| | |
|---|---|
| AZALERA: | **8.319 m²(p)** |
| KALIFIKAZIO XEHATUA: | **“Industria- eta merkataritza-erabilerako zona”** |
| ERAIKUNTZA-BALDINTZAK: | |
| * Sestra gaineko eraikigarritasuna: | **7.025,90 m²(s)** (zenbatetsia) (Lehendik dagoen eraikuntza finkatzen da) |
| * Sestrapeko eraikigarritasuna: | Getariako plangintzako Arau Subsidiarioen “B.1. Hirigintzako Arau Orokorrak” dokumentuaren Arau Orokorren 68. artikuluan ezarritako baldintzetan baimendutako sestrapeko hiru solairuei lotzen zaie. |
| * Eraikigarritasuna ezartzearen araudia: | Lehendik dagoen eraikuntzaren ezaugarri geometrikoak baliozkotzen dira. |
| ERABILERA-BALDINTZAK: | |
| * Baldintza orokorrak: | Zonaren eta eraikuntzaren erabilera- eta jabari-baldintzak Plan Berezi honetan ezarritakoari eta portu-erabileren berezko eskakizunei egokituko zaizkie, dagokion legedi sektorialarekin bat etorrita. |

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

## “IC.3.” ZONA

AZALERA: **212 m²(p)**

KALIFIKAZIO XEHATUA: **“Industria- eta merkataritza-erabilerako zona”**

ERAIKUNTZA-BALDINTZAK:

* Sestra gaineko eraikigarritasuna: **264,40 m²(s)** (zenbatetsia) (Lehendik dagoen eraikuntza finkatzen da)

* Sestrapeko eraikigarritasuna: Getariako plangintzako Arau Subsidiarioen “B.1. Hirigintzako Arau Orokorrak” dokumentuaren arau Orokorren 68. artikuluan ezarritako baldintzetan baimendutako sestrapeko hiru solairuei lotzen zaie.

* Eraikigarritasuna ezartzearen araudia: Lehendik dagoen eraikuntzaren ezaugarri geometrikoak baliozkotzen dira.

ERABILERA-BALDINTZAK:

* Baldintza orokorrak: Zonaren eta eraikuntzaren erabilera- eta jabari-baldintzak Plan Berezi honetan ezarritakoari eta portu-erabileren berezko eskakizunei egokituko zaizkie, dagokion legedi sektorialarekin bat etorrita.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## “M.1.” ZONA

| | |
|---|---|
| AZALERA: | **13.129 m²** |
| KALIFIKAZIO XEHATUA: | **“Erabilera mistoko zona”** |

ERAIKUNTZA-BALDINTZAK:

* Sestra gaineko eraikigarritasuna

| | |
|---|---|
| - “A” eraikuntza-unitatea: | 945 m²(s) (zenbatetsia) Lehendik dagoen eraikigarritasuna finkatzen da. |
| - “B” eraikuntza-unitatea: | 2.480 m²(s) (zenbatetsia) Lehendik dagoen eraikigarritasuna finkatzen da. |
| - “C” eraikuntza-unitatea: | 2.482 m²(s) (zenbatetsia) Lehendik dagoen eraikigarritasuna finkatzen da. |
| - “D” eraikuntza-unitatea: | |
| . Egungoa (zenbatetsia) | 136 m²(s) (Lehendik dagoen eraikuntza finkatzen da). |
| . Berria | 272 m²(s) |
| . Guztira sestra gainean “D” eraik.-unitat. | 408 m²(s) |
| - “E” eraikuntza-unitatea: | |
| . Egungoa (zenbatetsia) | 386 m²(s) (Lehendik dagoen eraikuntza finkatzen da). |
| . Berria | 166 m²(s) |
| . Guztira sestra gainean “E” eraik.-unitat. | 552 m²(s) |
| - “F” eraikuntza-unitatea: | 700 m²(s) (zenbatetsia) Lehendik dagoen eraikigarritasuna finkatzen da. |
| - Sestra gaineko eraikigarritasuna, GUZTIRA: | **7.567 m²(s)** |

| | |
|---|---|
| * Eraik.-unitateetako sestrapeko eraikigarritasuna | Getariako plangintzako Arau Subsidiarioen “B.1. Hirigintzako Arau Orokorrak” dokumentuaren Arau Orokorren 68. artikuluan ezarritako baldintzetan baimendutako sestrapeko hiru solairuei lotzen zaie. |
| * Kofradiako kaiko sestrapeko eraikigarritasuna | Baimendutako hiru solairuen emaitza da, Arau Partikular honetako 3. grafikoan mugatutako gehieneko lerrokadurekin. |

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## "M.1." (jarraipena)

* Eraikigarritasuna ezartzearen araudia:

- "A", "B", "C", eta "F" eraikuntza-unitateak:
  Lehendik dagoen eraikuntzaren ezaugarri geometrikoak baliozkotzen dira.

- "D" eta "E" eraikuntza-unitateak:

| | |
|---|---|
| . Eraikuntza-profila | **III/III** (Hiru soto eta sestra gaineko hiru solairu). |
| . Eraikuntzaren altuera | **10 m** |

ERABILERA-BALDINTZAK:

| | |
|---|---|
| * Baldintza orokorrak: | Zonaren eta eraikuntzaren erabilera- eta jabari-baldintzak Plan Berezi honetan ezarritakoari eta portu-erabileren berezko eskakizunei egokituko zaizkie, dagokion legedi sektorialarekin bat etorrita. |
| * Baldintza partikularrak: | Barnealdeko dartsenako kaien aurrealdean mugatutako bost metroko zerrenda batean (5,00 m), arrantza-erabileraren aldeko erabilera-zortasuna ezartzen da, portuan jarduten duten arrantza-ontziak ontziratzeko, lehorreratzeko, kargatzeko eta deskargatzeko lanei lehentasuna emango diena. |

EGIKARITZE-BALDINTZAK:

* Eraikuntzen lehenengo erabilerarako lizentziak emango badira, aldez aurretik bete beharko dira proiektuko "D. Etapa-plana" dokumentuan ezarritako urbanizazio-betebeharrak.

GRAFIKOAK

1. Eraikuntza-baldintzak. "D" eraikuntza-unitatea
2. Eraikuntza-baldintzak. "E" eraikuntza-unitatea
3. Eraikuntza-baldintzak. Kofradiako kaia.
4. Erabilera-baldintzak.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an
Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## “M.2.” ZONA

| | |
|---|---|
| AZALERA: | **544 m²(p)** |
| KALIFIKAZIO XEHATUA: | **“Erabilera mistoko zona”** |

ERAIKUNTZA-BALDINTZAK:

| | |
|---|---|
| * Sestra gaineko eraikigarritasuna: | **1.370 m²(s)** (zenbatetsia)<br>(Lehendik dagoen eraikuntza finkatzearen emaitza da, egungo hiru solairuetatik bat kenduta eta egungo estalkiaren gainean 150 m²(s)-ra arteko atiko bat eraikitzeko baimena emanda.) |
| * Sestrapeko eraikigarritasuna: | Getariako plangintzako Arau Subsidiarioen “B.1. Hirigintzako Arau Orokorrak” dokumentuaren Arau Orokorren 68. artikuluan ezarritako baldintzetan baimendutako sestrapeko hiru solairuei lotzen zaie. |
| * Eraikigarritasuna ezartzearen araudia:<br>: | Egungo eraikuntzaren inguratzailearen ezaugarri geometrikoak baliozkotzen dira (lerrokadurak eta eraikinaren altuera).<br>Egungo estalkiaren gaineko atiko batean 150 $m^2$(s)-ra arteko eraikuntza baimentzen da.<br>Atiko hori ipar-mendebaldeko eta/edo hego-mendebaldeko lerrokaduren alboan antolatu beharko da, eta beste bi lerrokadurekin inolako kontakturik izan gabe. |
| . Eraikuntza-profila | III/II(a) (hiru soto, sestra gaineko bi solairu eta atikoa). |
| . Eraikuntzaren altuera | Eraikuntzaren egungo altuera gehi atikoko 3,00 metro. |

ERABILERA-BALDINTZAK:

| | |
|---|---|
| * Baldintza orokorrak: | Zonaren eta eraikuntzaren erabilera- eta jabari-baldintzak Plan Berezi honetan ezarritakoari eta portu-erabileren berezko eskakizunei egokituko zaizkie, dagokion legedi sektorialarekin bat etorrita. |

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin betiko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

# “M.3.” ZONA

| | |
|---|---|
| AZALERA: | **47 m²(p)** |
| KALIFIKAZIO XEHATUA: | **“Erabilera mistoko zona”** |

ERAIKUNTZA-BALDINTZAK:

| | |
|---|---|
| * Sestra gaineko eraikigarritasuna: | **108 m²(s)** (zenbatetsia) (Lehendik dagoen eraikuntza finkatzearen emaitza da) |
| * Sestrapeko eraikigarritasuna: | Getariako plangintzako Arau Subsidiarioen “B.1. Hirigintzako Arau Orokorrak” dokumentuaren Arau Orokorren 68. artikuluan ezarritako baldintzetan baimendutako sestrapeko hiru solairuei lotzen zaie. |
| * Eraikigarritasuna ezartzearen araudia: : | Egungo eraikuntzaren inguratzailearen ezaugarri geometrikoak baliozkotzen dira (lerrokadurak eta eraikinaren altuera). |

ERABILERA-BALDINTZAK:

| | |
|---|---|
| * Baldintza orokorrak: | Zonaren eta eraikuntzaren erabilera- eta jabari-baldintzak Plan Berezi honetan ezarritakoari eta portu-erabileren berezko eskakizunei egokituko zaizkie, dagokion legedi sektorialarekin bat etorrita. |

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## "M.4." ZONA

AZALERA: **65 m²(p)**

KALIFIKAZIO XEHATUA: **"Erabilera mistoko zona"**

ERAIKUNTZA-BALDINTZAK:

* Sestra gaineko eraikigarritasuna: **108 m²(s)** (zenbatetsia) (Lehendik dagoen eraikuntza finkatzearen emaitza da)

* Sestrapeko eraikigarritasuna: Getariako plangintzako Arau Subsidiarioen "B.1. Hirigintzako Arau Orokorrak" dokumentuaren Arau Orokorren 68. artikuluan ezarritako baldintzetan baimendutako sestrapeko hiru solairuei lotzen zaie.

* Eraikigarritasuna ezartzearen araudia: Egungo eraikuntzaren inguratzailearen ezaugarri geometrikoak baliozkotzen dira

ERABILERA-BALDINTZAK:

* Baldintza orokorrak: Zonaren eta eraikuntzaren erabilera- eta jabari-baldintzak Plan Berezi honetan ezarritakoari eta portu-erabileren berezko eskakizunei egokituko zaizkie, dagokion legedi sektorialarekin bat etorrita.

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an. Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## <u>**“M.5.” ZONA**</u>

<u>AZALERA:</u> **41 m²(p)**

<u>KALIFIKAZIO XEHATUA:</u> **“Erabilera mistoko zona”**

<u>ERAIKUNTZA-BALDINTZAK:</u>

* Sestra gaineko eraikigarritasuna: **60 m²(s)** (zenbatetsia) (Lehendik dagoen eraikuntza finkatzearen emaitza da)

* Sestrapeko eraikigarritasuna: Getariako plangintzako Arau Subsidiarioen “B.1. Hirigintzako Arau Orokorrak” dokumentuaren Arau Orokorren 68. artikuluan ezarritako baldintzetan baimendutako sestrapeko hiru solairuei lotzen zaie.

* Eraikigarritasuna ezartzearen araudia: : Egungo eraikuntzaren inguratzailearen ezaugarri geometrikoak baliozkotzen dira

<u>ERABILERA-BALDINTZAK:</u>

* Baldintza orokorrak: Zonaren eta eraikuntzaren erabilera- eta jabari-baldintzak Plan Berezi honetan ezarritakoari eta portu-erabileren berezko eskakizunei egokituko zaizkie, dagokion legedi sektorialarekin bat etorrita.

Donostia, 2021eko maiatza.

MANU ARRUABARRENA SANTIAGO PEÑALBA MIKEL IRIONDO

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

# Dokumentua: «C. EGIKARITZEA ANTOLATZEKO ETA KUDEATZEKO JARRAIBIDEEN AZTERKETA»

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

**LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA**
**EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA**

**IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA**

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

**<u>AURKIBIDEA:</u>** <u>Orr.:</u>

1. EGIKARITZE-PROZESUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA. EGIKARITZE-EKIMENA ETA FINANTZAKETA-ARDURAK................................................ 2

2- URBANIZAZIOA ETA ERAIKUNTZA EGIKARITZEKO ANTOLAMENDUA ETA PROGRAMA........................................................................................................ 2

3. ERAIKINAK ERABILTZEN HASTEKO HIRIGINTZA-BETEBEHARRAK............................. 3

## 1. EGIKARITZE-PROZESUAREN DESKRIBAPEN OROKORRA. EGIKARITZE-EKIMENA ETA FINANTZAKETA-ARDURAK

Proiektu honen memorian deskribatzen den moduan, urbanizazioa egikaritzeak esparru hau guztia barnean hartzen du: esparruaren titularra den aldetik, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak kudeatu beharreko Plan Bereziaren eraginpean dagoen esparrua. Esparruaren titular horrek bereganatuko ditu, hain zuzen ere, antolamenduaz ondorioztatzen diren eskubideak eta betebeharrak.

Horrekin bat, erakunde horri dagokio esparruan portua taxutzeko eta urbanizatzeko egin beharreko obra guztiak egikaritzea.

Horretarako, dagozkion eraikuntza- eta urbanizazio-proiektuak onartu behar dira, bai eta egoki irizten zaien kudeaketa-proiektuak ere, hala badagokio.

Esparrua titulartasun publikokoa denez gero, behar beste bermatzen da eremua egokiro garatuko dela, udal-administrazioarekiko adostasunez. Esku hartzeko premiaren edo komenigarritasunaren oinarrian, eremua garatzeko interesa dago, indarreko plangintza orokorrean jasoa.

Hala, etapa hauetan esku-hartzea ezartzen da:

- Kaiak handitzea beteranoen zonan eta Malkorbe hondartzako zonan

  Egikaritzeko aurreikusitako epea: LAU URTE

- “M” eta “NR” partzeletako kaien urbanizazioa hobetzea

  Egikaritzeko aurreikusitako epea: LAU URTE.

- “P.1” partzelako eraikuntza-unitatea egikaritzea

  Egikaritzeko aurreikusitako epea: ZORTZI URTE

- “NR.1” partzelako eraikuntza-unitatea egikaritzea

  Egikaritzeko aurreikusitako epea: ZORTZI URTE

- Gainerako eraikuntza-unitateak egikaritzea

  Egikaritzeko aurreikusitako epea: ZORTZI URTE

- Beste jarduketa batzuk egikaritzea (zerbitzu-azpiegiturak eta abar).

  Egikaritzeko aurreikusitako epea: LAU URTE

## 2. URBANIZAZIOA ETA ERAIKUNTZA EGIKARITZEKO ANTOLAMENDUA ETA PROGRAMA

Etapen Plan horretan, etapa bakarra proposatzen da esparrua garatzeko, zortzi urteko gehieneko egikaritze-epearekin partzeletarako eraikuntza-lizentzia eskatzeko, Plan Berezia behin betiko onartzen denetik kontatzen hasita. Horrenbestez, beharrezkoa da funtsezko ekintza hauek garatzea kudeaketaren, urbanizazioaren eta eraikuntzaren aldetik:

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

A.- Prestatze-izapideak

- Plan Berezia izapidetzea.

  Behin betiko onarpena 2021. urtearen amaierarako aurreikusi da.

B.- Portuko obrak

- Kaia handitzeko lanak egitea beteranoen zonan.
  2024. urtearen amaieran buka daiteke.

- Kaia handitzeko lanak egitea Malkorbe hondartzako zonan.
  2024. urtearen amaieran buka daiteke.

- Urbanizazioa hobetzeko eraikuntza “M” eta “NR” partzeletako kaietan.
  2024. urtearen amaieran buka daiteke.

- Zerbitzu-azpiegiturak hobetzea.
  2024. urtearen amaieran buka daitezke.

C.- Eraikuntza

- “P.1” partzelako eraikuntza-unitatea eraikitzea
  2028. urtearen amaieran buka daiteke.

- “NR.1” partzelako eraikuntza-unitatea eraikitzea
  2028. urtearen amaieran buka daiteke.

- Birgaitzeko edo ordezkatzeko beste jarduketa batzuk.
  2028. urtearen amaieran buka daitezke.

Oro har, zortzi urteko gehieneko epea ezartzen da, Plan Berezia behin betiko onartzen denetik kontatzen hasita, aurreikusitako obrak egikaritzeko. Hala badagokio, eraikuntzako eta urbanizazioko obren arabera molda daiteke.

## 3. ERAIKINAK ERABILTZEN HASTEKO HIRIGINTZA-BETEBEHARRAK

Horretarako, eraikuntzen urbanizazio perimetrala behar bezala amaituta egotea eskatuko da, bai eta beharrezkoak diren zerbitzuetarako hargune egokiak egitea ere, ongi funtziona dezaten bermatzeko.

Donostia, 2021eko maiatza.

MANU ARRUABARRENA SANTIAGO PEÑALBA MIKEL IRIONDO

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

**LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA**
**EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA**

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

# Dokumentua: «D. EKONOMIA- ETA FINANTZA-BIDERAGARRITASUNEKO AZTERKETA ETA JASANGARRITASUN EKONOMIKOARENA»

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

**<u>AURKIBIDEA:</u>** <u>Orr.:</u>

I. SARRERA ........................................................................................................... 2

II. DOKUMENTU HONETAN JASOTAKO EKONOMIA-EBALUAZIOA EGITEKO PREMISA OROKORRAK. ................................................................................. 2

III. PLAN BEREZIAREN PROPOSAMENAREN EKONOMIA-BIDERAGARRITASUNAREN AZTERKETA. ...................................................................... 2

IV. PROPOSAMENAREN EKONOMIA-JASANGARRITASUNAREN AZTERKETA............................................................................................................ 6

V. EKONOMIA-BIDERAGARRITASUNAREKIN ETA -JASANGARRITASUNAREKIN LOTZEN DIREN ONDORIOAK 8

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko ... behineko onespena.
Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021 del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.
Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## I. SARRERA

Dokumentu hau Getariako Portuaren Antolamenduko Plan Bereziaren barruan dago, eta plan horretan egindako hirigintza-proposamenak ikuspegi ekonomikotik aztertzea du helburu.

## II. DOKUMENTU HONETAN JASOTAKO EKONOMIA-EBALUAZIOA EGITEKO PREMISA OROKORRAK.

Hauek dira, zehazki, premisa horietako batzuk:

* Indarreko lege-esparruan ezarrita egonik, dokumentu honen xede den ekonomia-azterketan eragina dutenak. Esparru hori, besteak beste, xedapen hauek osatzen dute:

  - Administrazio zentralak sustatuak eta autonomia-erkidego honetan indarrean daudenak:
    . Lurzoruari buruzko Legearen Testu Bategina, 2008ko ekainaren 20ko Legegintzako Errege Dekretu bidez onartua (2/2008 Legegintzako Errege Dekretua).
    . Lurzoruaren Legearen balorazioen erregelamendua, 2011ko urriaren 24ko Errege Dekretuaren bidez onartua (1492/2011 Errege Dekretua).

  - Euskal Autonomia Erkidegoan sustatuak eta bertan indarrean daudenak:
    . Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legea, 2006ko ekainaren 30ekoa (2/2006 Legea).
    . 2008ko azaroaren 28ko Legea, Hirigintza-jarduerez sortutako gainbalioetan erkidegoak izan behar duen parte-hartzea aldatzekoa.

* Indarreko Getariako Arau Subsidiarioetan ezarritakoak eta, zehazki, haren Hirigintza Arauetan daudenak.

## III. PLAN BEREZIAREN PROPOSAMENAREN EKONOMIA-BIDERAGARRITASUNAREN AZTERKETA.

### 1.- Sarrera.

Hauek dira, zehazki, aztergai ditugun esku-hartzeak, ekonomia-bideragarritasuna aztertzeari begira: portuaren esparrurako proposatutakoak, hala oin berrikoak nola birgaitu, zaharberritu eta berrurbanizatzekoak edo instalazio eta zerbitzuen ezarpenak aldatzekoak.

Esku-hartze publikoa da, jabari publikoko lurzoruan egitekoa, hargatik eragotzi gabe emakida-araubideko irabazizko jardueren eta erabileren antolamendua, aplikatzekoa den araudiarekin bat etorriz.

### 2.- Inbertsioaren irismena.

Lehenik eta behin, planak aurreikusitako zehaztapenak egikaritzearen kostua zenbatetsiko da.

1. Kaiak

Kai bertikalak metro linealeko baloratzen dira, honen arabera:

- 25 m³ dragatu x 20 €/m³......................................................................... 500.-

- 70 m³ hormigoi x 200 €/m³ ............................................................ 14.000.-
- 7 m² harrizko harlangaitza x 110 €/m² ................................................. 770.-
- Beste batzuk: inposta, babesak... ......................................................... 500.-

GUZTIRA ........................................................................................ 15.770.-

1.1 Beteranoen kaia handitzea
20 ml x 15.770 €/ml........................................................................ 315.400.-

1.2 Kirol-portuko kaia handitzea.
80 ml x 15.770 €/ml...................................................................... 1.261.600.-

2. Azaleko urbanizazioa

150 €/m²-ko prezioa zenbatetsi da kofradia zaharreko kaiaren urbanizazioa berritzeko, barnean hartuta beharrezkoak diren zoladurak, azpiegiturak eta hiri-altzariak. Barne hartzen du kaia Arnao Jenerala kalearekin eskailera bitartez lotzea.

2.1.1 Kofradia Zaharreko kaia
4.200 m² x 150 €/m² ....................................................................... 630.000.-

3. Zerbitzu-sareak

Azpiegitura hauek aztertzen dira atal honetan: drainatzea eta saneamendua, ur-hornidura, energia elektrikoa, argiteria eta telefonia, gas-instalazioak, seinaleak, balizajea eta lorezaintza; hori guztia, bat etorriz plan bereziaren zehaztapenekin eta azpiegitura-sareetarako aurreikusitako eskemekin, zeinak finkatzen baitira, oro har, hargatik eragotzi gabe azpiegitura horiek osatzea eta hobetzea.

3.1 Zenbatetsitako oroharreko kontu-saila
Azpiegituren oroharreko kontu-saila ................................................. 185.000

4. Eraikuntza (sestrapeko bi solairu egikaritzea hartzen da aintzat)

4.1 “P.1” partzelako eraikuntza-unitatea.

Sestra gainean 1.060 m²(s) x 600 €/m²(s) = .................................. 636.000.-
Sestrapean 6.000 m²(s) x 360 €/m²(s) = ..................................... 2.160.000.-

4.2 “NR.1” partzelako eraikuntza-unitatea.

Sestra gainean 2.000 m²(s) x 600 €/m²(s) = ............................... 1.200.000.-
Sestrapean 6.000 m²(s) x 360 €/m²(s) = ..................................... 2.160.000.-

4.3 Beste eraikuntza-unitate batzuk

Ez da zenbatetsi unitateko kostua, gaur egun ez baitakigu zer erabilera zehatz ezarri behar diren eta zer-nolako irismena izango duten esku-hartzeek. Alabaina, Plan Bereziak esparrua birgaitzeko eta birkualifikatzeko duen helburuari jarraikiz, oroharreko beste kontu-saila bat zenbatetsi da, kontuan hartuta zer inbertsio egingo den lehendik zeuden eraikuntzen esku-hartzean, planak hartzen duen aldia kontuan hartuta.

Beste eraikuntza-unitate batzuetan esku hartzeko oroharreko kontu-sail zenbatetsia .............................................................................. 3.600.000.-

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: [illegible] documento corresponde al expediente del Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez behin-behineko onespena.
Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an
DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021 del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.
Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021
LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA
IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA
GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

Ebaluazio horrek 12.148.000 euroko kostu zenbatetsia ematen du, jarraian deskribatuta dagoen laburpenaren arabera:

1. Kaiak

| | |
|---|---|
| 1.1 Beteranoen kaia handitzea | 315.400 |
| 1.2 Kirol-portuko kaia handitzea | 1.261.600 |
| Guztira | ........................................ 1.577.000.- |

2. Azaleko urbanizazioa

| | |
|---|---|
| 2.1 Kofradia Zaharreko kaia | 630.000 |
| Guztira | ........................................... 630.000.- |

3. Zerbitzu-sareak

3.1. Azpiegituren oroharreko kontu-saila.................................................................. 185.000.-

4. Eraikuntza

| | |
|---|---|
| 4.1 “P.1” partzelako eraikuntza-unitatea. | |
| Sestra gainean | 636.000 |
| Sestrapean | 2.160.000 |
| 4.2 “NR.1” partzelako eraikuntza-unitatea. | |
| Sestra gainean | 1.200.000 |
| Sestrapean | 2.160.000 |
| 4.3 Beste eraikuntza-unitate batzuk | 3.600.000 |
| Guztira | .......................................... 9.756.000- |

Kontuan hartuta aurreko balorazioa deskribatutako jarduketen egikaritze materialari buruzkoa dela, kontrata bidez egikaritzearen kostu hau zenbatesten da:

| | |
|---|---|
| Egikaritze materialaren kostua | ...................................... 12.148.000.- |
| G.O. eta I.E. % 19 | ........................................ 2.308.120.- |
| Kontrata bidez egikaritzearen kostua | ...................................... 14.456.120.- |
| BEZ % 21 | ........................................ 3.035.785.- |

Kontrata bidez egikaritzearen kostua gehi BEZa, guztira .................................. 17.491.905.-

Ebaluazio horrek hamabi milioi bostehun eta hirurogeita zazpi mila eta laurehun eta berrogeita zazpi euroko guztizko kostu zenbatetsia ematen du, Planaren denbora-horizonteari dagokionez.

Bestalde, ez dira zenbatetsi beste kostu gehigarri batzuk, lurzoruaren kudeaketaren, ordezko bizitokiak ematearen edo kalte-ordainen, edota beste premia batzuen ondoriozkoak, ez baita halakorik aurreikusi. Kostu zenbatetsien barruan sartu dira hala ingurumen-neurri zehatzak ezartzearen kostuak nola proiektu eta ikerketei dagozkien ordainsariak.

Alabaina, ez dira sartu kostu hauek: kutsatuta egon daitezkeen lurzoru identifikatuei lotzen zaizkien lanak (halakotzat deklaratzea eta kutsadura kentzea) egin beharraren ondoriozkoak, halakorik egin behar izatekotan. Nolanahi ere, halako egoeretan, gaiari buruz indarrean dagoen legerian ezarritakoaren arabera jardungo da (2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 147.3 artikulua, eta abar). Hartara, hasiera batean, kutsatutako lurzoruak daudela egiaztatzen bada, kutsadura edo aldaketa eragin duten pertsona fisiko edo juridikoen ardura dira gastu horiek.

### 3.- Proposamenaren bideragarritasun ekonomikoa.

Ikusita zein den proposamenaren irismena —gaur egungo portua finkatzen baitu, eta, aldi berean, ahalegina egiten baitu ingurumenaren eta funtzionaltasunaren arloetan beharrezko duen birkualifikazioa lortzen, bai eta ahalik eta sinergiarik handienak ere—, egin beharreko inbertsioa mugatua da, hautemandako premiei eta proposatutako helburu objektiboei erantzuten baitie.

Hala, 2.186.488 euroko inbertsioa egitea dakar urtean, eta Eusko Jaurlaritzako Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren eta Euskadiko Kirol Portuen aurrekontuetara egokituko da.

Bestalde, zenbatetsitako inbertsioa murriztu egingo da, dagozkien emakidadunen kontura izango diren jarduketen ondorioz: lehendik zeuden eraikinetako esku-hartzeak eta beste batzuk.

Halaber, inbertsioa konpentsatu egingo da zenbait jarduketaren ondoriozko diru-sarrera osagarriekin: ur-kiroletako zerbitzuak gehiago erabiltzea, aparkaleku berriak kudeatzea, eta abar.

Bestalde, proposatutako ekimenek ez dute mantentze-lanen kostu handiagorik ekarriko portuan; izan ere, kostuak murriztu egingo dira Planaren denbora-mugan, obra berriak egingo baitira.

Aurreko datu eta erreferentziak ikusita, ondoriozta daiteke Plan Bereziaren proposamena ekonomikoki bideragarria dela.

Nolanahi ere, kontuan hartu behar da datu eta zenbatespen ekonomiko horiek guztiak hurbilketa bat baino ez direla, Getariako porturako proposatutako garapenaren balioespen ekonomikoaren azterketarako hurbilketa bat, hain zuzen ere.

Hartara, Plana garatzean egingo diren proiektuetan horri buruz zehaztuko denari jarraitu beharko zaio.

## IV. PROPOSAMENAREN EKONOMIA-JASANGARRITASUNAREN AZTERKETA

### 1.- Sarrera.

Indarreko legeriarekin bat etorriz (15.4 artikulua, Lurzoruari buruzko 2008ko ekainaren 20ko Legearen Testu Bategina —2/2008 Legegintzako Errege Dekretua—, Birgaitzeari eta hiri-berroneratzeari eta -berrikuntzari buruzko ekainaren 26ko 8/2013 Legeak aldatua; 3. artikulua, urriaren 24ko 1492/2011 Errege Dekretua, Lurzoruaren Legearen Balorazioen Erregelamendua onartzen duena; 31. artikulua, Premiazko Neurriei buruzko ekainaren 3ko 105/2008 Dekretua), *urbanizatze berriko jarduketak eta urbanizazioa nahiz hornidura-jarduketak erreformatzeko edo berritzeko jarduketak antolatzeko tresnen dokumentazioan, ekonomia-iraunkortasunari buruzko txosten edo memoria bat sartu beharko da*. Hori bera berresten du 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak, urriaren 30ekoak, Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen Testu Bategina onartzen duenak.

Horretarako, besteak beste, *antolamendu-tresnan aurreikusitako hiri-hazkundeari erantzuteko behar diren zerbitzu publikoak abian jarri eta emateagatiko mantentze-kostuak kuantifikatu behar dira, bai eta zenbatetsi ere tokiko tributu nagusien ondoriozko udal-sarrerak, aurreikusitako eraikin eta biztanleen arabera, eta jarduketak dakartzan eraikinak amaitu arte aurreikus daitezkeen egoera sozioekonomikoen arabera ebaluatuta*.

Atal horrek, beraz, bi helburu hauek ditu:

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an. Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

* Batetik, hirigintzako garapena gauzatzeak ogasun publikoetan izan dezakeen inpaktu ekonomikoa aztertzea eta/edo haztatzea, hauekin lotutako eraginak kontuan hartuta, horri dagokionez:

- Proiektatutako zuzkidura, azpiegitura eta zerbitzu publikoen egikaritze-, ezartze- eta mantentze-kostuak, baita aipatutako zerbitzu horiek ematearenak ere.
- Zenbatetsitako diru-sarrerak.

* Bestetik, ekoizpen-erabileretara bideratutako lurzorua nahikoa eta egokia den aztertzea.

Testuinguru horretan prestatua baitago, atal honen helburua da, hain zuzen ere, helburu horiei erantzutea eta kontu horiek aztertzea, aipatu lege-eskakizuna beteta.

**2.- Aztertu beharreko jarduketak.**

Aztertu beharreko jarduketak Plan Berezi honetan aurreikusitakoak dira. Lehendik zegoen antolamendua finkatzea proposatzen denez gero, eta haren irismena kontuan hartuta, hauek dira, funtsean, adierazgarrienak —aurreko III. atalean ebaluatu dira jada—:

1.1 Beteranoen kaia handitzea
1.2 Kirol-portuko kaia handitzea.
2.1 Kofradia Zaharreko kaia
3.1 Azpiegiturak osatzea
4.1 “P.1” partzelako eraikuntza-unitateak
4.2 “NR.1” partzelako eraikuntza-unitatea
4.3 Beste eraikuntza-unitate batzuk

Duten garrantzi ekonomikoa dela-eta, nabarmentzekoak dira, baita ere, proposamena gidatzen duten baldintza orokorrak, hemen azaltzen baitira:

* Eremuaren kokalekuari eta proposamenaren irismenari lotutako ezaugarriak direla-eta, proiektatutako garapen urbanistikoaren proiekzioak eta egikaritzeak baldintza hauek izan behar ditu, besteak beste:

- Getariako portuan lehendik dauden azpiegitura, sare eta zerbitzu publikoak oinarritzat hartzea; izan ere, osatu edo hobetu egingo dira, hala badagokie, baina ez berriak sortu.
- Aipatu azpiegitura, sare, hornidura eta zerbitzu publikoak mantentze-gastuak murriztea, bai eta zerbitzu horiek ematearenak ere.
- Azpiegitura, sare, hornidura eta zerbitzu publiko horien erabilera areagotu eta arrazionalizatzea eta, hala, haien errendimendu ekonomikoa optimizatu eta arrazionalizatzea.

* Portuaren garapena egikaritzea ekimen publikotik egin nahi da, aurreko III. atalean aipatu den moduan, horren bideragarritasuna justifikatuta, halako moldez non ez baitzaio inpaktu ekonomiko negatiborik eragingo udal-ogasunari.

* Eusko Jaurlaritzako Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzari egokituko zaio egingo den urbanizazioaren mantentze-kostuak ordaintzea, hargatik eragotzi gabe, hala badagokio, kostuok jasanaraztea portu-erabileren erakunde emakidadunei edo dagozkien zerbitzuak ematen dituztenei (sare eta instalazio elektrikoak, telefonia eta komunikabideetakoak, gasekoak, eta abar).

* Planaren proposamenen irismenaren eraginez, portuaren erabilera intentsiboagoa izango da, neurri gehigarri garrantzitsurik hartu behar izan gabe; ondorioz, diru-sarreren eta gastuen arteko oreka hobetuko da portuaren ustiapenean.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

* Zenbatesten denez, plana zortzi (8) urteko epean gauzatu daiteke, behin betiko onarpenetik kontatzen hasita.

**3.- Eremuan proiektatutako garapen berriari lotutako diru-sarrerak.**

Zaila da zehaztasunez ebaluatzea zenbateko diru-sarrerak sor daitezkeen Plan Bereziaren proposamenetik eta, bereziki, zaila da portuaren ustiapenaren ondorioz dagoeneko sortzen direnetatik bereiztea; izan ere, esku-hartzeek oso irismen txikia dute, portuaren dinamika orokorraren aldean.

Nolanahi ere, III. atalean dagoeneko argudiatu eta ondorioztatu denez, Plan Bereziaren proposamena ekonomikoki bideragarria da; alabaina, kontuan hartu behar da egindako zenbatespen ekonomikoak Getariako porturako proposatutako garapenaren balorazio ekonomikoaren azterketarako hurbilketak baizik ez direla, dagokigun fasekoak, eta plana garatzean egingo diren proiektuek etorkizunean ezarriko dutenari begiratu beharko zaiola.

Bestalde, kontuan hartuta Getariako Portua jabari publikokoa dela eta Eusko Jaurlaritzako Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren eskumena dela hori kudeatzea, III. atalean adierazitakoari jarraikiz, Zuzendaritza horri dagokio hala inbertsioa egitea nola lortutako diru-sarrerak kudeatzea.

Dagoeneko azaldu den moduan, diru-sarrera horiek kasuan kasuko emakidadunek egin ditzaketen obretatik etorriko dira, bai eta zenbait jarduketaren ondorioz ere: atrakaleku gehiago jartzea ur-kiroletako zonan, lehorreko ontzi-biltegia ezartzea, ur-kiroletako zerbitzuak gehiago erabiltzea, ontzitegia handitzea eta gehiago erabiltzea, aparkaleku berriak kudeatzea, eta abar. Hori guztia, gaur egungo tasa edo tarifen arabera, edota oreka egokia lortze aldera bere garaian proposa daitezkeenen arabera.

Halaber, aipatu den moduan, proposatutako ekimenek planaren denbora-mugako mantentze-kostuak murriztea ekarriko dute, obra berriei ekingo zaie eta.

Bestalde, edozein kasutan, Udalari egokituko zaizkio plana egikaritzearen ondoriozko hirigintza-eraikigarritasun berritik sortuko diren ondarezko diru-sarrerak edo antzekoak —erkidegoak eskubidea baitu ondoriozko hirigintza-gainbalioan parte hartzeko (% 15)—, betebehar hori termino ekonomikoetan betetzen den kasuetan.

Halaber, Udalari egokituko zaizkio zenbateko hauek: eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga; hirigintzako lizentziak ematearen gaineko tasak; lokaletan jarduerak gauzatzeari loturiko tasak; hiri-lurren balio gehikuntzaren gaineko zerga; eta abar.

Alabaina, ez da aurreikusten aldaketa handirik ohiko beste diru-sarreretan, hala nola ondasun higiezinen gaineko zerga; ekonomia jardueren gaineko zerga; ibilgailuen gaineko zerga; ur-horniduraren gaineko tasa; saneamendu-zerbitzua ematearen gaineko tasa; telefonia mugikorreko enpresek jabari publikoa okupatzeari loturiko tasa eta abar.

Planaren irismena eta portuaren finkatze-maila direla eta, ez dira garrantzitsutzat jotzen plana onartzearen ondorioz arlo horretan gertatuko diren aldaketak.

## V. <u>EKONOMIA-BIDERAGARRITASUNAREKIN ETA -JASANGARRITASUNAREKIN LOTZEN DIREN ONDORIOAK</u>

Aurreko guztia ikusita, ondorioztatu da Plan Bereziaren proposamenak ahalegina egiten duela portuak ingurumenaren eta funtzionaltasunaren arloetan beharrezko duen birkualifikazioaren alde, eta esku-hartzea bideragarria izateko moduko ekonomia- eta ingurumen-kostua izango

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an
Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021
LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA
IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

duela; gainera, esku-hartzea ezinbestekoa da hautemandako egoerari modu jasangarrian erantzuteko.

Donostia, 2021eko maiatza.

MANU ARRUABARRENA SANTIAGO PEÑALBA MIKEL IRIONDO

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

**LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA**
**EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA**

**IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA**

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

**LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA**
**EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA**

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## Dokumentua: "E. GENERO-IKUSPEGIA".

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

**LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA**
**EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA**

**IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA**

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

**AURKIBIDEA**

I. Sarrera.

II. Ebaluazio hori egiteko esparru orokorra.

III. Plan Bereziaren esparrua.

IV. Getariako gaur egungo egoeraren diagnostikoa, genero-ikuspegitik.

V. Plan Bereziaren ebaluazioa genero-ikuspegitik eta, zehazki, Eusko Jaurlaritzaren 40/2012 Ebazpenaren I. eranskinean biltzen diren gidalerroen ikuspegitik.

## I. SARRERA.

Dokumentu honen xedea da Getariako Portuaren Plan Bereziak eta bertan jasotzen diren proposamenek generoaren arloan izan ditzaketen eraginak ebaluatzea.

## II. EBALUAZIO HORI EGITEKO ESPARRU OROKORRA.

Planteatzen den ebaluazioa honako xedapenetan eta dokumentuetan, besteak beste, bildutako aurreikuspenen esparru orokorrean egin da:

1.- Estatuko Administrazioak sustatutako xedapenak:
  * Gizonen eta Emakumeen Arteko Berdintasun Eraginkorrerako Legea, 2007ko martxoaren 22koa (3/2007 Legea)
  * Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen Testu Bategina, 2015eko urriaren 30ekoa (7/2015 Lege Errege Dekretua) (“20.1.c.” artikulua eta beste batzuk).

2.- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sustatutako xedapenak:
  * Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Legea, 2005eko otsailaren 18koa (4/2005 Legea)
  * Eusko Jaurlaritzaren Gobernu Kontseiluak 40/2012 Ebazpenaren bidez onartutako gidalerroak.

Nahiz eta, horietan adierazitakoaren arabera, 2012ko gidalerro horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, haren erakunde autonomoek eta hari atxikitako edo lotutako erakunde publikoek aplikatu behar dituzten, haien aurreikuspenak ere kontuan hartzekoak dira ebaluazio honetan, betiere haiek egiteko baldintzetan eta irismen egokiarekin.

## III. PLAN BEREZIAREN ESPARRUA.

Getariako Portua da Plan Bereziaren mende dagoen esparrua. 22,40 ha-ko azalera du, eta Getariako hirigune historikoaren eta San Anton mendiaren artean dago, irudi honetan ikus daitekeen moduan.




EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## IV. GETARIAKO GAUR EGUNGO EGOERAREN DIAGNOSTIKOA, GENERO-IKUSPEGITIK.

### 1. Getariako hiri-ingurunearen osotasuna aintzat hartzearen emaitzazko diagnostikoa eta neurriak.

1.1.- <u>Populazioari buruzko datuak (EUSTAT).</u>

A.- 2019. urteko datu orokorrak.

* Emakumeak dira biztanleen % 49,82. Eta gizonezkoak biztanleen % 50,18.
* 0 – 19 urte arteko tartean, emakumeak dira biztanleen % 50,71. Eta gizonezkoak biztanleen % 49,29.
* 20 – 64 urte arteko tartean, emakumeak dira biztanleen % 52,15. Eta gizonezkoak biztanleen % 47,85.
* 65 urtetik aurrera arian-arian gehitzen da emakumeen ehunekoa (% 55,04) eta gizonezkoena murriztu (% 44,96).

B.- Populazioaren bilakaerarekin lotzen diren datu orokorrak.

Datu horietako batzuek honako taula honetan islatzen dira:

| SEXUA | 2001 - kop./% | 2006 - kop./% | 2010 - kop./% | 2019 - kop./% |
|---|---|---|---|---|
| Emakumeak | 1.214 / 50,08 | 1.233 / 49,84 | 1.324 / 49,94 | 1.418 / 49,82 |
| Gizonak | 1.210 / 49,92 | 1.241 / 50,16 | 1.327 / 50,06 | 1.428 / 50,18 |
| Guztira | 2.424 / 100 | 2.474 / 100 | 2.651 / 100 | 2.846 / 100 |

1.2.- <u>Lan produktiboari buruzko datuak.</u>

A.- Jarduera-tasa

| SEXUA | JARDUERA-TASA -%- | |
|---|---|---|
| | 2010 | 2018 |
| Emakumeak | 48,8 | 49,1 |
| Gizonak | 52,3 | 54,9 |
| Guztira | 48,8 | 52,0 |

B.- Jarduera-ezaren tasa

| SEXUA | JARDUERA-EZAREN TASA -%- | |
|---|---|---|
| | 2010 | 2018 |
| Emakumeak | 724 | 717 |
| Gizonak | 633 | 643 |
| Guztira | 1.350 | 1.360 |

C.- Okupazio-tasa

| SEXUA | OKUPAZIO-TASA -%- | |
|---|---|---|
| | 2010 | 2018 |
| Emakumeak | 48,9 | 52,3 |
| Gizonak | 57,2 | 59,2 |
| Guztira | 53,0 | 55,7 |

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

D.- Langabezia-tasa

| SEXUA | LANGABEZIA-TASA -%- | |
|---|---|---|
| | **2010** | **2018** |
| Emakumeak | 9,7 | 9,8 |
| Gizonak | 10,1 | 9,5 |
| Guztira | 9,9 | 9,7 |

1.3.- <u>Lan produktiboari buruzko datuak.</u>

Ez da lortu arreta-lanei eta etxeko lanei buruzko datu zehatzik. Nolanahi ere, oraindik ere emakumeek egiten dituzten lanak dira, nahiz eta gizonek gero eta inplikazio handiagoa duten.

1.4.- <u>Integrazioari eta sexu-indarkeriari buruzko datuak.</u>

2018an emakumeen aurkako indarkeriako 4 kasu kontabilizatu ziren.

**2. Getariako Portuaren egungo egoera. Portua antolatzeko beharra, genero-arrazoien ondorioz ere bai.**

2.1.- <u>Egungo egoera.</u>

Getariako Portua Getariako hiri-bilbearen parte da, eta, gainera, haren idiosinkrasia sozial eta kulturalaren parte. Hartara, bertako itsas eta arrantza-tradizioa idiosinkrasia horren parte da, nahiz eta azken jarduera horrek pixkanaka-pixkanaka beheranzko joera izan duen eta, oraindik, duen.

Getariako portuak irisgarritasun-baldintza onak ditu, hala itsasotik nola lehorretik, nahiz eta N-634 errepideko problematikak azken horiek baldintzatzen dituen; izan ere, errepide hori itsaslabarraren oinean dago eta bertatik materialak erortzen direnez gero, trafiko-etenaldiak egoten dira maiz.

Halaber, Getariako hirigune historikoarekin egoki integratzen da, integrazioa optimizatzeko aukera dagoen arren.

Bi hondartzen artean dago. Bi hondartza horiek portuaren potentzialtasunaren balioa nabarmentzen dute eta, aldi berean, bi zuzkidura horien erabileraren bateragarritasun-baldintzak gehiago zaindu beharko dira.

Barrutiaren barruan, portua nagusiki bi jardueratarako erabiltzen da: bata, tradizionala eta jatorrizkoa, hots, arrantzarekin lotutako ekoizpen-sektorea; bestea, aisiarekin eta ur-kiroletako jarduerekin lotua.

Gainera, portua lagungarria da portuaren beraren eta udalerriko hirigune historikoaren bideetarako eta irisgarritasunerako, bai eta bi eremuen zerbitzura dauden aparkalekuetarako ere. Arlo horretako orekari eutsi beharko zaio ezarri beharreko antolamenduan.

Bestalde, zenbait zerbitzu-azpiegitura hartzen ditu, portuari dagozkionak zein bestelakoak (tokiko saneamendu-sarea eta abar).

2.2. <u>Portua antolatzeko beharra, genero-arrazoien ondorioz ere bai.</u>

Bertan azaldutakoaren arabera, eta portua handitzea baztertu ondoren, Plan Bereziaren helburua da Getariako Portuaren eremua xehetasunez antolatzea, betiere egungo portu-espazioa

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

hobetzea eta lehengoratzea eragingo duten baldintzetan. Besteak beste, hiru helburu hauek hartuko dira aintzat:

Batetik, arrantza-jarduerak eta ur-kiroletako jarduerak baldintza egokietan garatzea.

Bestetik, erabiltzen ez diren eraikuntzak aktibatzea eta leheneratzea, eraikuntzak birgaituz eta erabilera egokietara bideratuz.

Azkenik, portu-espazioaren eta hirigune historikoaren arteko oinezkoentzako konexioen urbanizazioa hobetzea eta, horrekin batera, portu-espazioa Getariako hiri-bilbean integratzea.

Portuko espazioa garbitzeko, berritzeko eta aktibatzeko helburua beharrezkoa da genero-ikuspegitik, bai eta portua Getariako hiri-bilbean duen integrazioa areagotzeko helburua ere; izatez, planteatutakoen gisako jarduerak lagungarriak dira udalerriko hiri-ingurunearen kalitatea hobetzeko eta, horren barruan, aipatutako portu-espazioaren kalitatea hobetzeko, eta, horrenbestez, haren segurtasuna eta izaera inklusiboa sustatzeko.

## V. PLAN BEREZIAREN EBALUAZIOA GENERO-IKUSPEGITIK ETA, ZEHAZKI, EUSKO JAURLARITZAREN 40/2012 EBAZPENAREN I. ERANSKINEAN BILTZEN DIREN GIDALERROEN IKUSPEGITIK.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

### 1. Proiektuaren deskribapena.

1.1. Izena.

Getariako Portuaren Plan Berezia.

1.2 Administrazio sustatzailea.

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila.

1.3. Plan Bereziaren helburuak, irizpideak eta proposamenak.

A. Helburu eta irizpide orokorrak.

* Indarreko Getariako Plangintzako Arau Subsidiarioetan ezarritakoak (2007-VI-19), eta horien artean hauek nabarmen daitezke:
    - Portua finkatzea (barnean direla arrantzako eraikuntza eta instalazioak, ur-kiroletako instalazioak, industria-instalazioak, hirugarren sektorekoak, ur-geruza eta abar) eta portuaren biziraupenerako eta funtzionaltasunerako baldintza egokiak sustatzea, betiere kokatuta dagoen ingurunearen hiri-irudia babestea eragotzi gabe.
    - Malkorbe eta Gaztetape hondartzak finkatzea.
    - Porturako, hondartzetarako, hirigune historikoaren behealderako edo San Antonerako, besteak beste, bide-sarbidea finkatzea.
    - Portuko, hirugarren sektoreko, industriako, zuzkidurako eta bestelako erabileren integrazioa eta nahastura bultzatzea.
* Portukoak, ingurumenekoak eta paisaiakoak:
    - Portuko instalazioen funtzionaltasuna hobetzea, bereziki, kaien aprobetxamendua, haietara lehorretik zein itsasotik iristeko bideak eta dartsenen babes-baldintzak.
    - Arrantza-zonako eraikinen osaketa ahalbidetzea eta definitzea.
    - Esparruko instalazioen erabilerak portu-ingurune baten berezko erabileretara egokitzea eta arautzea.

- Hondakinen kudeaketa hobetzea.
- Saneamendua hobetzea eta isurketen tratamendua bermatzea.
- Energia-efizientzia hobetzea, argiteriako eta beste arlo batzuetako neurriak hartuta.

* Portuko erabiltzaileek, Udalak eta abar planteatutakoak:

- Kirol-ontzietarako amarralekuen eskaintza hobetzea, ahal den neurrian, dagoen eskariari erantzuteko.
- Aisialdi-jarduerak egiteko eremu bat prestatzea, eta harrerako pantalan bat ezartzea bertan.
- Kofradia zaharreko kaian dauden eraikuntzak zaharberritzea, baliaraztea eta erabiltzea, eta zuzkidura-erabilerak eta hirugarren sektorekoak ezar daitezen sustatzea, betiere portuaren premiei erantzuteko: ur-kiroletako jarduueretarako eta tokiko klubetarako espazioa, portu-jarduerekin lotzen diren konponketa- eta salmenta-eremuak, ostatuak, ostalaritza, eta abar.
- Kirol-portuari eta Malkorbe hondartzari lotutako instalazioak eta eraikuntzak berrantolatzea, egungo jarduerei erantzun egokia emateko, betiere sor daitezkeen jarduera berrientzat ere erantzunak aurreikustea eragotzi gabe.
- Tintalekuko estalkiaren erabilera publikoa bermatzea, espazio libre moduan.
- Kai-azalera hein handiagoan portu-jardueretarako baliatzeko aukera baloratzea, horretarako lurpeko edo altuerako aparkalekuak (aparkalekuen eraikina) aurreikusita.

* Portuaren eta Getariako hiri-eremuaren arteko integrazioa eta osaketa indartzea.

B. Plan Bereziaren proposamenak.

Portua handitzeko aukerak baztertu ondoren, planteatutako proposamenek esparrua premisa hauen arabera antolatzeari erantzuten diote: portuaren forma orokorra mantentzea, haren dikeen eta kaien egiturarekin (berrikuntzaren bat egitea eragotzi gabe) eta eraikinekin eta instalazioekin, betiere horiek guztiak hobetzea eta osatzea alde batera utzi gabe; elementu bakoitzaren erabilera-araubidea zehaztea, espazioa hobeto aprobetxatze aldera; portuaren eta hirigune historikoaren arteko oinezkoentzako konexioa berreskuratzea; urbanizazioa hobetzea, egonaldirako zonak eta hiri-altzariak txertatuta; eraikin adierazgarriak (Kofradia Zaharra, Izotz Fabrika zaharra, Tintaleku eta abar) aktiba eta erabil daitezen bultzatzea. Hauek dira testuinguru horretan planteatutako proposamenetako batzuk:

* Hegoaldeko kaiaren azalera 400 m² inguru handitzea, kirol-ontzien dartsenaren inguruan, eta Malkorbe hondartzaren zati txiki bat okupatzea, kirol-jarduera horietarako beharrezkoak diren zerbitzuak behar bezala berrantolatzeko.

* Iparraldeko kaiaren azalera 200 m² inguru handitzea, ur-geruzaren kaltetan eta Iparraldeko dikearen hasieran ibilgailuen zirkulazioaren baldintzak hobetzeko.

* Ur-geruzan aurreikusitako erabilerak arautzea eta mugatzea, sustatu beharreko Portu Espazioen eta Erabileren Mugaketan zehaztutakoaren arabera.

* Erabiltzen ez diren eraikuntzak leheneratzea (birgaitzea...) eta erabilera mistoetarako aktibatzea (arrantzarako, aisialdirako, industriarako eta merkataritzarako). Besteak beste eraikuntza hauek: Kofradia Zaharra, Izotz Fabrika zaharra, Tintaleku...

* Urbanizazio-baldintzak hobetzea, besteak beste, eraikuntza horiek birgaitzeko eta berritzeko proposamenekin lotutako jarduketen bidez (Kofradia Zaharreko kaia, ur- eta arrantza-jardueren ingurunea...).

* Oinezkoentzako konexioak hobetzea portuaren eta hirigune historikoaren artean, honako jarduketa hauen bidez: Arnao Jenerala kalearen iparraldeko muturreko konexioa; Aldamar kalearen (Tintaleku eraikinaren inguruan) eta portura sartzeko errepidearen artean dagoen desnibela gainditzeko igogailu bat jartzea; eta abar.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.
Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.
Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA



Sestra gaineko emaitzazko eraikigarritasun osoa 33.970 m²(s)-koa da. Azalera horretatik, 30.232 m²(s) dagozkio egun dauden eta finkatzen diren eraikuntzen eraikigarritasunari. Gainerako 3.738 m²(s)-ko azalera lotzen da orain planteatzen den eraikigarritasun berriarekin edo eraikigarritasunaren gehikuntzarekin —indarrean dauden Arau Subsidiarioetan aurreikusitakoa baino txikiagoa da—.

Hurrengo grafikoan islatzen da proposatutako antolamendua.



Era berean, honako grafiko honetan islatzen dira esparru funtzionalak, haien lehentasuneko erabileraren arabera bereizita —ekoizpen-jarduera, ur-kiroletako jarduera, erabilera mistoak eta abar—.



EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.
Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.
Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

1.4. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko helburuak.

Planteatutako helburu eta irizpide guztietatik, ondoren azalduko direnek eragin zuzena dute emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko garaian:

* Sustatu beharreko hiri-ereduarekin lotzen direnak:
    - Getariako portua finkatzea, udalerriko hiri-bilbearen errealitate eta/edo zati banaezin gisa, eta hura hobetzeko eta berritzeko beharrezkoak diren neurriak zehaztea, bilbe horretan duen konexioa eta integrazioa sendotzearekin batera.
    - Getariako egungo hiri-eredua berrestearen testuinguruan, portua antolatzeko proposamenak zehaztea. Eredu kualitatiboki eta kuantitatiboki trinkoa baten ezaugarriak eta baldintzatzaileak ditu, hurbileko zerbitzuak ditu (merkataritza, ekipamenduak...), eta udalerrian bizi diren eta lan egiten duten pertsonen eskaerei erantzuten die.
    - Portua antolatzea, kualitatiboki eta kuantitatiboki adierazgarria eta kalitatekoa den espazio publiko gisa. Espazio horrek jarduerarako, egonaldirako, aisialdirako, gozamenerako eta abarrerako duen funtzioa beste funtzio honekin osatu beharko da: Getariako Hirigune Historikoaren eta San Anton mendiaren arteko konexio fisiko, bisual eta paisajistikoko espazioaren funtzioarekin.

* Genero-ikuspegiarekin berariaz lotzen direnak:
    - Hirigintza-proposamenak zehaztea, ikuspegi hori berariaz kontuan hartuta.
    - Plana osatzea generoaren-ikuspegiaren arloko ebaluazioarekin.
    - Portuaren hirigintza-antolamendua zehaztea, lehen azaldutako hiri-ereduaren barruan, eta, horrekin bat etorriz, hiri-espazio inklusibo bat sortzea, segurtasun-neurri egokiak izango dituena.

**2. Generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzea.**

2.1. <u>Aurreikusten al da emakumeek eta gizonek etorkizuneko arauaren edo administrazio-egintzaren ondoriozko onuretan edo emaitzetan duten presentzia lagungarria izatea sektoreko desberdintasunak murrizteko?</u>

Adierazitakoarekin bat etorriz, Plan Bereziaren helburua da Getariako Portuaren antolamendu xehatua zehaztea, 1. puntuan adierazitako helburuekin eta baldintzetan.

Plan Bereziaren proposamenek zuzenean izango dute eragina Getarian bizi diren pertsonengan eta bertan lan egiten duten pertsonengan (emakumeengan, gizonengan, adinekoengan, haurrengan), portua udalerriko hiri-bilbearen zati den heinean. Hori dela eta, portu-espazioaren kalitatea hobetzeak lagunduko du pertsona horien bizi-kalitatea hobetzen eta portuak eskaintzen dituen baliabideak eta/edo espazioak baliatzen.

Ondorio horietarako, eta kontuan hartuta emakumeak eta gizonak egoera desberdinean daudela —esleitutako eta/edo onartutako genero-rolei erreparatuta—, portu-espazioa antolatzea, berritzea eta hobetzea lagungarria izango da espazio hori pertsona horien guztien zerbitzura dagoen hiri-agertoki inklusibo bihurtzeko, haientzat guztientzat irisgarria izango den hiri-agertoki bihurtzeko.

2.2. <u>Aurreikusten al da etorkizuneko arauek edo administrazio-egintzek baliabideak eskuratzearen arloan dauden desberdintasunak desagerraraztea edo, gutxienez, murriztea?</u>

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.
Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.
Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA
IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

Esleitutako eta/edo onartutako genero-rolen ondorioz, pertsonek behar eta/edo ikuspegi desberdinak dituzte lurraldearen, hiri-espazioaren eta horietan gauzatzen diren baliabideen erabilerari dagokionez.

Ikuspuntu horretatik, portua Getariako hiri-bilbearen parte izateak, une honetan, udalerrian bizi diren eta lan egiten duten pertsona guztien zerbitzura dagoen hiri-eremu bihurtzen du portua.

Nolanahi ere, espazioaren ezaugarrien eta baldintzatzaileen ondorioz, une honetan, portuko espazioa ez da irisgarria pertsona guztientzat —ezaugarri eta baldintzatzaile horien artean daude: kokalekua; portuaren eta hirigunearen arteko desnibelak; hirigune historikotik bereizitako gunea izatea, non bertan garatzen diren jardueren ordutegiak eta programak baldintzatzen baitute, hein handi batean, espazio maila sozialean bizia eta dinamikoa izatea edo hutsa izatea; erabilerarik gabeko eraikinak egotea; eta abar—.

Hartara, ingurunearen orografia, portuaren eta hirigunearen arteko desnibela, oinezkoen egungo konexio mota eta bestelako alderdi batzuk direla-eta, portuko espaziora iristea zaila da zenbait kolektiborentzat (ezinduentzat, adinekoentzat...). Ikuspegi horretatik begiratuta, udalerriko bi zati horien arteko oinezkoen konexioa hobetzeko proposamenek (igogailua...), berrurbanizazio-proposamenek eta beste proposamen batzuek lagunduko dute gaur egun arlo horretan dauden desberdintasunak murrizten.

Era berean, portu-espazioaren berezitasunaren ondorioz (gune historikotik bereizitako zatia den aldetik, non bertan garatzen diren jardueren programak eta ordutegiak baldintzatzen duten, hein handi batean, espazio publikoan bizitza eta dinamika soziala egotea; eta abar), gerta daiteke gune hori segurtasunik gabeko edo erakargarritasun gutxiko espazio bihurtzea jarduera horiek itxita dauden uneetan eta/edo "hutsik" dauden uneetan, edota jarduera horiek garatzen ez diren uneetan, bereziki kolektibo jakin batzuentzat (emakumeentzat…). Ikuspuntu horretatik, gaur egun erabiltzen ez diren eraikuntzak birgaitzeko eta erabiltzeko proposamenak, urbanizazioa berritzekoak, Portuaren eta Hirigune Historikoaren arteko oinezkoen konexioa hobetzekoak eta abar lagungarriak izango dira gaur egun horren inguruan dauden desberdintasunak murrizteko.

Horrela, portuaren hirigintza-antolamenduak lagunduko du Getariako egungo hiri-ingurunearen hurbiltasun- eta aniztasun-ezaugarriak, besteak beste, areagotzen eta sendotzen, eta, horrekin batera, era guztietako pertsonen (emakumeen, haurren, adinekoen...) zerbitzura dagoen izaera areagotzen eta sendotzen. Portua eta haren espazioak eta elementuak irisgarriago egongo dira udalerrian bizi diren pertsonentzat eta bertan lan egiten duten pertsonentzat.

2.3. <u>Erabakiak hartzeari dagokionez, etorkizuneko arauak edo administrazio-egintzak emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua aurreikusten du, edo, gutxienez, esparruan duten presentziaren antzeko ordezkaritza?</u>

Getariako Portuaren Plan Berezia hirigintza-tresna bat da, eta hura prestatzean eta izapidetzean indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritako irizpideei jarraitu beharko zaie (Lurzoruaren 2/2006 Legearen 97.2 artikuluan, eta abar).

Testuinguru horretan, Planaren eta haren proposamenen onarpena irizpide horietara egokitu beharko da, eta ezin izango dituzte horiek inola ere berregokitu edo osatu.

2.4. <u>Aurreikusten al da etorkizuneko arauan edo administrazio-egintzan planteatutako helburuak eta neurriak lagungarriak izatea emakumeei edo gizonei esleitzen zaizkien gizarte-arauak edo balioak gainditzeko edo aldatzeko?</u>

Getariako Portuaren Plan Bereziak udalerrian dagoen hiri-eredua sustatzearen alde egiten du, haren trinkotasuna eta aniztasuna, hurbiltasuneko zerbitzuak (merkataritza, ekipamenduak) eta abar kontuan hartuta.

Apustu horren ondorioz, besteak beste, bultzatuko da portua udalerriko hiri-bilbean are gehiago integratzea.

Horrek, berez, ez du ekarriko gizarte-arauak edo balioak aldatzea, baina erraztuko du, hiri-sare horren barruan, ordaindutako eta ordaindu gabeko lanak egitea, lan horiek egiten dituzten pertsonek haien denbora kudeatzea, eta abar.

2.5. <u>Bermatzen al da diskriminazioa saihestera eta berdintasuna sustatzera zuzentzen diren arauak eta beste tresna juridiko batzuk beteko direla? Horiek hobetzea aurreikusten al da?</u>

Plan Berezia ondoren aipatuko diren xedapenek osatutako lege-esparruan sustatzen da. Xedapen horietan, halaber, honako irizpide hauek zehazten dira:

* Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Legea, 2005eko otsailaren 18koa (4/2005 Legea):
  - 3. artikulua (aukera-berdintasuna).
    *Euskal herri-aginteek neurri egokiak hartu behar dituzte emakumeek eta gizonek eskubide politikoak, zibilak, ekonomikoak, sozialak eta kulturalak, eta arauetan aitortu lekizkiekeen gainerako oinarrizko eskubideak, aukera berdinekin baliatzen dituztela bermatzeko, boterea eta baliabide eta etekin ekonomikoak eta sozialak eskuratu eta kontrolatzea barne. Lege honen ondorioetarako, aukera-berdintasunaz ari garela, zera esan nahi da: agintea eta baliabide eta onura sozial eta ekonomikoak eskuratzeko abiagune edo hasierako baldintzak ez ezik, horiek guztiak gauzatzeko eta behar den moduan kontrolatzeko baldintzez ere ari garela.*
    *Era berean, euskal herri-aginteek bermatu egin beharko dute ez dela oztoporik egongo lege honetan aipatzen diren eskubideak gauzatzeko eta arautzen diren baliabideak eskuratzeko; izan ere, abenduaren 4ko 20/1997 Legean oztopo horiek bertan behera uztea zehazten baita (Irisgarritasuna Sustatzen du lege horrek).*

  - 19. artikulua (generoaren araberako eragina aurretiaz ebaluatzea).
    *Administrazio-arau edo -egintza bat egiten hasi aurretik, hori sustatzen duen administrazio-organoak ebaluatu egin behar du zein den proposamen horrek emakumeek eta gizonek kolektibo gisa bizi duten egoeran izan lezakeen eragina. Horretarako, aztertu behar du administrazio-arau edo -egintzan proiektatu den jarduketak ondoren positiboak edo kontrakoak izan litzakeen emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasunak ezabatzeko eta horien arteko berdintasuna sustatzeko helburu orokorrean.*

  - 46. artikulua (ingurumena eta etxebizitza).
    *Euskal herri-aginteek beharrezkoak diren neurriak hartuko dituzte beren ingurumen, etxebizitza, hirigintza eta garraioko politiketan zein programetan genero-ikuspegia txertatuta dagoela bermatzeko, eta, besteak beste, ondokoak hartuko dituzte kontuan: pertsonen segurtasuna; etxeko lanak egitea eta pertsonak zaintzea erraztea; bizitza pertsonala familia eta lanarekin uztartu ahal izatea erraztea; bai eta politika eta programa horiek diseinatu eta betetzerakoan emakumeek partaidetza handiagoa izan dezatela bultzatzea ere.*

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

* Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eraginkorrerako Legea, 2007ko martxoaren 22koa (3/2007 Legea) (31. artikulua. Hirigintza lurralde-antolaketa eta etxebizitzako politikak):
  - *Administrazio publikoetako politika eta planek, etxebizitza eskuratzeko gaian, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna eragingarria izateko neurriak barneratuko dituzte.*
    *Era berean, hirigintzako eta lurralde-antolaketako politikek kontuan hartuko dituzte gizarte-talde desberdinen eta familia-egitura desberdinen beharrizanak, eta ahalbidetuko dute berdintasun-baldintzetan jotzea hirigintzako zerbitzu eta azpiegituretara.*
  - *Gobernuak, bere eskumenen esparruan, suspertuko du beharrizan-egoeran edo baztertuak izateko arriskuan dauden emakumeek, eta genero-indarkeriaren biktima izan diren emakumeek etxebizitza eskuratzea, bereziki, emakume horiek, kasu batean zein bestean, adingabeko seme-alabak dituztenean euren ardurapean bakarrik.*
  - *Administrazio publikoek, hiria diseinatzean, hirigintzako politiketan eta hirigintza-plangintza zehaztu nahiz betetzean, kontuan hartuko dute genero-ikuspegia; horretarako, bereziki, herritarren partaidetza eta gardentasuna suspertu eta ahalbidetzeko mekanismoak eta tresnak erabiliko dituzte.*

* Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen Testu Bategina, 2015eko urriaren 30ekoa (7/2015 LED) (20. artikulua. Lurzorua erabiltzeko oinarrizko printzipioak):
*Lurzoruaren erabileren antolamendua egiten dutenean, honako printzipio hauei erantzutea: irisgarritasun unibertsala, emakume eta gizonen arteko tratu- eta aukera-berdintasuna (...).*

Hirigintza-dokumentua eta haren proposamenak berdintasunaren legezko helburu eta irizpide horietara egokitzea, berez, dokumentu hori egiteko eta zehazteko premisen parte da.

## 3. Desberdintasunak ezabatzeko eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko neurriak.

### 3.1. Generoaren ikuspegia txerta dadin sustatzeko ezarritako neurriak.

A.- *Emakumeen eta gizonen egoera diferentzialaren ezagutza hobetzea.*

Ildo horretan honako bi neurri hauek, besteak beste, nabarmendu behar dira:

* Lehen neurria: hirigintza-dokumentua prestatzeko unean, Getariako hiri-ingurune osoan dagoen egoera diferentziala ezagutzea

* Bigarren neurria: portuaren egungo hiri-errealitatea ezagutzea, Getariako hiri-bilbean duen integrazioa indartzeko, eta, horrekin batera, segurtasuna eta izaera inklusiboa sendotzeko.

B.- *Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna txertatzea printzipio, helburu, proposamen edo adierazpen edo azalpen gisa.*

Horri dagokionez, Plan Bereziak honako irizpide eta proposamen hauek, besteak beste, planteatzen ditu:

a) Planteatutako hiri-ereduak "1.4" atalean, besteak beste, azaldutako helburuei eta irizpideei erantzuten die, gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzearekin zerikusia dutenak barne.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.



Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an
Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021
LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA
IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA
GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

b) Planteatutako hirigintza-antolamenduak ondoren azalduko diren hiru helburuak ditu, besteak beste.

Batetik, portuan dauden eta gaur egun erabiltzen ez diren eraikuntza bereziak berritzea eta berraktibatzea (Kofradia Zaharra, Izotz Fabrika zaharra, Tintaleku...), erabilera mistoetara zuzentzeko xedearekin osatuta (jarduera ekonomikoak, ekipamendua...).

Bestetik, portu-espazioaren urbanizazioa hobetzea eta berritzea, eta, ondorioz, espazio hori birkualifikatzea.

Azkenik, hirigunearekiko oinezkoen konexioak hobetzea eta indartzea.

Proposamen horiei esker, portua espazio seguruagoa eta inklusiboagoa izango da.

3.2. <u>Emakumeen eta gizonen parte-hartze orekatua sustatzeko ezarritako neurriak.</u>

Genero-ikuspegia barnean hartzea hirigintza-proiektua prestatzeko eta izapidetzeko sustatu behar diren parte-hartze prozesuetan.

3.3. <u>Ekintza positiboko neurriak.</u>

3. atalean azaldutako neurrien osotasuna.

3.4.- <u>Itxuraz neutroak diren baina, aurreikuspenen arabera, generoaren arloan eragin positiboa izango duten neurriak</u>

* Getariako Portuaren hirigintza-antolamendua zehaztea eta udalerriko egungo hiri-ereduaren esparruan txertatzea (kualitatiboki eta kuantitatiboki dentsitate handikoa eta trinkoa —era berean, hiri-ingurune trinkoa, bizia eta dinamikoa sortzeko—).

* Portua Getariako hirigunearekin lotzeko neurriak berrestea eta indartzea, bai eta hirigunean integratzea ere.

3.5. <u>Diskriminazioa jasaten duten emakumeen desberdintasunak murrizteko neurriak.</u>

Hirigintza-dokumentuak ez du diskriminazioa (adinaren, klase sozialaren, sexu-aukeraren, desgaitasunaren, etniaren, arrazaren, jatorri nazionalaren, eta abarren ondoriozko diskriminazioa) jasaten duten emakumeen desberdintasunak murrizteko neurririk jasotzen, ez baitu eraginik horrelako gaietan.

3.6. <u>Debeku- edo zigor-neurriak.</u>

Hirigintza-dokumentuak ez du debeku- edo zehapen-neurririk barnean hartzen (sexuaren ondoriozko diskriminazioagatik, hizkuntzaren edo irudien erabilera sexista egiteagatik, eta abar), ez baitu eraginik horrelako gaietan.

3.7. <u>Berdintasunerako Planaren helburuen eta proposamenen (edukiaz harantzago) eraginkortasuna osatzera edo gehitzera zuzentzen diren neurriak.</u>

A. Planaren garapenean sustatu beharreko urbanizazio-obren proiektuak.

Proiektuak hirigintza-dokumentuan planteatutako esku hartzeko helburuetara eta irizpideetara egokitzea, genero-ikuspegitik (aurreko ataletan azaldutakoak), bai eta ikuspegi horretatik komenigarritzat jotzen diren gainerako helburuetara eta irizpideetara ere, eta beren proposamenak horiei egokitzen zaizkiela justifikatzea.

Zehazki, proiektu horrek espazio publikoaren irisgarritasunaren, gardentasunaren eta argiztapenaren, zokorik eta oztoporik ezaren eta abarren arloan esku hartzeko neurri egokiak zehaztu behar ditu, adierazitako helburuekin bat etorriz.

B. Egungo eraikuntzak berritzeko eta birgaitzeko proiektuak.
Eraikuntza-proiektuak hirigintza-dokumentuan planteatutako esku hartzeko helburuetara eta irizpideetara egokitzea genero-ikuspegitik (aurreko ataletan azaldutakoak), bai eta ikuspegi horretatik komenigarritzat jotzen diren gainerako helburuetara eta irizpideetara ere, eta beren proposamenak horiei egokitzen zaizkiela justifikatzea.

C.- Hirigintza-dokumentuak ez du barnean hartzen hedapena indartzeko, jarraipena eta ebaluazioa egiteko, informatzeko, sentsibilizatzeko, prestatzeko, berdintasun-planak egiteko eta egiturak edo zerbitzuak sortzeko ekintzarik, ez baitu eraginik horrelako gaietan.

Donostia, 2021eko maiatza.

Santiago Peñalba Manu Arruabarrena Mikel Iriondo Madalen Gzlez. Bereciartua

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
[illegible] PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## Dokumentua: "F. ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA”.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA



IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

## AURKIBIDEA.

I. Xedea.

II. Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko esparru orokorra. Metodologia.

III. Plan Bereziaren esparrua.

IV. Plan Berezia eta haren proposamenak. Egungo egoera.

V. Getariako egungo egoera soziolinguistikoa.

VI. Plan Bereziaren hizkuntza-ebaluazioaren beharra.

VII. Ondorioak.

## I.- XEDEA.

Getariako Portuaren Plan Berezia Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren ekimenez landu da.

Helburua da portu-esparru horren hirigintza-antolamendua zehaztea eta, zehazki, antolamendu xehatua.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7.7 artikuluan eta 179/2019 Dekretuaren 49. artikuluan xedatutakoaren arabera, udalerrien egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektuak edo planak onartzeko prozeduran, ebaluatu behar da proiektu edo plan horiek euskararen erabileraren normalizazioan izan dezaketen eragina, eta ebaluazio horren ondoriozko neurri egokiak proposatu behar dira.

Dekretu horretan aditzera ematen denari erreparatuta, udal-zerbitzu teknikoek egin behar dute ebaluazio hori.

Testuinguru horretan prestatuta, dokumentu honek ondoren adieraziko diren bi helburuak ditu.

Batetik, laburbilduta jakinaraztea Plan Bereziaren hirigintza-proposamenak, Getariako udal-zerbitzu teknikoek hizkuntza-ebaluazioa egin ahal izan dezaten. Proposamen horiek laburbilduta jaso dira IV. epigrafean.

Bestetik, ebaluazio horren lehen hurbilketa egitea, dokumentuan bertan azaldutako baldintzetan.

## II. ERAGIN LINGUISTIKOAREN EBALUAZIOA EGITEKO ESPARRU OROKORRA. METODOLOGIA.

Getariako Portuaren Plan Bereziaren eragin linguistikoaren ebaluazioa 2/2016 Legeak eta 179/2019 Dekretuak osatutako esparruan egin behar da.

Testuinguru horretan, kontuan hartu behar da, lehenik, Plan Berezia udalaz kanpoko eskumenekoa dela eta Eusko Jaurlaritzari dagokiola hura onartzea. Hori dela eta, hizkuntza-ebaluazioa 179/2019 Dekretuaren Laugarren Xedapen Gehigarrian, besteak beste, ezarritakora moldatu beharko da. Xedapen Gehigarri horretan hau dio:

> *Udalerrien egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen udalerriaz gaindiko eremuko proiektuak eta planak onartzeko prozeduran, planak eta proiektuak ebaluatzeko eskumena daukan udal-organoak haien hizkuntza-inpaktua aztertuko du. Halaber, izan litezkeen inpaktu negatiboak saihesteko eta prebenitzeko inguruabarrak eta neurriak proposatuko ditu, eta, behar izanez gero, konpentsazio-neurriak ere bai.*

Horrenbestez, Plan Bereziaren eragin linguistikoaren ebaluazioa Getariako Udaleko zerbitzu teknikoek egin behar dute, onarpen-prozeduraren barruan, eta, zehazki, plana jendaurrean jartzeko izapidean, erakunde horri bidali ondoren.

Nolanahi ere, hori ez da oztopoa izango, une honetan, hizkuntza-ebaluazio hori aurreratzeko, eta, horri dagokionez, plan hori udalaren hirigintza-plan berezi baten modura aztertzeko. Eta hori egingo da, lehentxeago aipatutako udal-zerbitzu teknikoek horren inguruan egin beharreko lana inola ere zalantzan jarri gabe.

Ebaluazio hori egokituko zaie, 179/2019 Dekretuan ezarritako irizpideei ez ezik, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak sustatutako gidalerroei edo jarraibideei ere bai (https://www.euskadi.eus/evaluacion-del-impacto-linguistico/web01-a2kultur/es/). Eta irizpide eta gidalerro horien arabera, honako lan fase hauek bereizi behar dira:

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

A.- Lehenik, aztertu behar da Plan Berezi hori hizkuntza-ebaluazioaz salbuetsitako kasuetako batean dagoen edo ez dagoen (179/2019 Dekretuaren 51. artikulua).

Analisi hori, bestalde, osatzen da Eusko Jaurlaritzaren gidalerro horien inguruko galdetegi laburraren erantzunekin.

B.- Salbuetsita ez dagoela ondorioztatzen bada, ebaluazioarekin jarraitu behar da, zehazki, lan hauek eginez:

a) Lehenik: hizkuntza-azterketaren irismena zehaztea (179/2019 Dekretuaren 53. artikulua).
b) Bigarren: eragin linguistikoaren azterketa egitea (179/2019 Dekretuaren 54. artikulua).

Nolanahi ere, 53. artikuluan ezarritakoaren arabera, azken azterketa hori beharrezkoa da, soil-soilik, lehenengo lanetik ondorioztatzen bada hirigintza-dokumentu horrek eragin linguistiko garrantzitsuak izan ditzakeela.

Testuinguru horretan, VI. epigrafean ebaluatzen da, zehazki, atalean aipatutako gaia.

**III. PLAN BEREZIAREN ESPARRUA.**

Getariako Portua da Plan Bereziaren mende dagoen esparrua. 22,40 ha-ko azalera du, eta Getariako hirigune historikoaren eta San Anton mendiaren artean dago, irudi honetan ikus daitekeen moduan.




EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES



# IV. PLAN BEREZIA ETA HAREN PROPOSAMENAK. EGUNGO EGOERA.

## 1.- Getariako Portuaren egungo egoera.

Getariako portuak irisgarritasun-baldintza onak ditu, hala itsasotik nola lehorretik, nahiz eta N-634 errepideko problematikak azken horiek baldintzatzen dituen; izan ere, errepide hori itsaslabarraren oinean dago eta bertatik materialak erortzen direnez gero, trafiko-etenaldiak egoten dira maiz.

Halaber, Getariako hirigune historikoarekin egoki integratzen da, integrazioa optimizatzeko aukera dagoen arren.

Bi hondartzen artean dago. Bi hondartza horiek portuaren potentzialtasunaren balioa nabarmentzen dute eta, aldi berean, bi zuzkidura horien erabileraren bateragarritasun-baldintzak gehiago zaindu beharko dira.

Barrutiaren barruan, portua nagusiki bi jardueratarako erabiltzen da: bata, tradizionala eta jatorrizkoa, hots, arrantzarekin lotutako ekoizpen-sektorea; bestea, aisiarekin eta ur-kiroletako jarduerekin lotua.

Gainera, portua lagungarria da portuaren beraren eta udalerriko hirigune historikoaren bideetarako eta irisgarritasunerako, bai eta bi eremuen zerbitzura dauden aparkalekuetarako ere. Arlo horretako orekari eutsi beharko zaio ezarri beharreko antolamenduan.

Bestalde, zenbait zerbitzu-azpiegitura hartzen ditu, portuari dagozkionak zein bestelakoak (tokiko saneamendu-sarea eta abar).

## 2.- Plan Bereziaren helburuak eta irizpideak.

* Indarreko Getariako Plangintzako Arau Subsidiarioetan ezarritakoak (2007-VI-19), eta horien artean hauek nabarmen daitezke:
  - Portua finkatzea (barnean direla arrantzako eraikuntza eta instalazioak, ur-kiroletako instalazioak, industria-instalazioak, hirugarren sektorekoak, ur-geruza eta abar) eta portuaren biziraupenerako eta funtzionaltasunerako baldintza egokiak sustatzea, betiere kokatuta dagoen ingurunearen hiri-irudia babestea eragotzi gabe.
  - Malkorbe eta Gaztetape hondartzak finkatzea.
  - Porturako, hondartzetarako, hirigune historikoaren behealderako edo San Antonerako, besteak beste, bide-sarbidea finkatzea.
  - Portuko, hirugarren sektoreko, industriako, zuzkidurako eta bestelako erabileren integrazioa eta nahastura bultzatzea.
* Portukoak, ingurumenekoak eta paisaiakoak:
  - Portuko instalazioen funtzionaltasuna hobetzea, bereziki, kaien aprobetxamendua, haietara lehorretik zein itsasotik iristeko bideak eta dartsenen babes-baldintzak.
  - Arrantza-zonako eraikinen osaketa ahalbidetzea eta definitzea.
  - Esparruko instalazioen erabilerak portu-ingurune baten berezko erabileretara egokitzea eta arautzea.
  - Hondakinen kudeaketa hobetzea.
  - Saneamendua hobetzea eta isurketen tratamendua bermatzea.
  - Energia-efizientzia hobetzea, argiteriako eta beste arlo batzuetako neurriak hartuta.
* Portuko erabiltzaileek, Udalak eta abar planteatutakoak:
  - Kirol-ontzietarako amarralekuen eskaintza hobetzea, ahal den neurrian, dagoen eskariari erantzuteko.
  - Aisialdi-jarduerak egiteko eremu bat prestatzea, eta harrerako pantalan bat ezartzea bertan.
  - Kofradia zaharreko kaian dauden eraikuntzak zaharberritzea, baliaraztea eta erabiltzea, eta zuzkidura-erabilerak eta hirugarren sektorekoak ezar daitezen sustatzea, betiere portuaren premiei erantzuteko: ur-kiroletako jardueretarako eta

tokiko klubetarako espazioa, portu-jarduerekin lotzen diren konponketa- eta salmenta-eremuak, ostatuak, ostalaritza, eta abar.
- Kirol-portuari eta Malkorbe hondartzari lotutako instalazioak eta eraikuntzak berrantolatzea, egungo jarduerei erantzun egokia emateko, betiere sor daitezkeen jarduera berrientzat ere erantzunak aurreikustea eragotzi gabe.
- Tintalekuko estalkiaren erabilera publikoa bermatzea, espazio libre moduan.
- Kai-azalera hein handiagoan portu-jardueretarako baliatzeko aukera baloratzea, horretarako lurpeko edo altuerako aparkalekuak (aparkalekuen eraikina) aurreikusita.

* Portuaren eta Getariako hiri-eremuaren arteko integrazioa eta osaketa indartzea.

3.- Plan Bereziaren proposamenak.

Portua handitzeko aukerak baztertu ondoren, planteatutako proposamenek esparrua premisa hauen arabera antolatzeari erantzuten diote: portuaren forma orokorra mantentzea, haren dikeen eta kaien egiturarekin (berrikuntzaren bat egitea eragotzi gabe) eta eraikinekin eta instalazioekin, betiere horiek guztiak hobetzea eta osatzea alde batera utzi gabe; elementu bakoitzaren erabilera-araubidea zehaztea, espazioa hobeto aprobetxatze aldera; portuaren eta hirigune historikoaren arteko oinezkoentzako konexioa berreskuratzea; urbanizazioa hobetzea, egonaldirako zonak eta hiri-altzariak txertatuta; eraikin adierazgarriak (Kofradia Zaharra, Izotz Fabrika zaharra, Tintaleku eta abar) aktiba eta erabil daitezen bultzatzea. Hauek dira testuinguru horretan planteatutako proposamenetako batzuk:

* Hegoaldeko kaiaren azalera 400 m² inguru handitzea, kirol-ontzien dartsenaren inguruan, eta Malkorbe hondartzaren zati txiki bat okupatzea, kirol-jarduera horietarako beharrezkoak diren zerbitzuak behar bezala berrantolatzeko.
* Iparraldeko kaiaren azalera 200 m² inguru handitzea, ur-geruzaren kaltetan eta Iparraldeko dikearen hasieran ibilgailuen zirkulazioaren baldintzak hobetzeko.
* Ur-geruzan aurreikusitako erabilerak arautzea eta mugatzea, sustatu beharreko Portu Espazioen eta Erabileren Mugaketan zehaztutakoaren arabera.
* Erabiltzen ez diren eraikuntzak leheneratzea (birgaitzea...) eta erabilera mistoetarako aktibatzea (arrantzarako, aisialdirako, industriarako eta merkataritzarako). Besteak beste eraikuntza hauek: Kofradia Zaharra, Izotz Fabrika zaharra, Tintaleku...
* Urbanizazio-baldintzak hobetzea, besteak beste, eraikuntza horiek birgaitzeko eta berritzeko proposamenekin lotutako jarduketen bidez (Kofradia Zaharreko kaia, ur- eta arrantza-jardueren ingurunea...).
* Oinezkoentzako konexioak hobetzea portuaren eta hirigune historikoaren artean, honako jarduketa hauen bidez: Arnao Jenerala kalearen iparraldeko muturreko konexioa; Aldamar kalearen (Tintaleku eraikinaren inguruan) eta portura sartzeko errepidearen artean dagoen desnibela gainditzeko igogailu bat jartzea; eta abar.

Sestra gaineko emaitzazko eraikigarritasun osoa 33.970 m²(s)-koa da. Azalera horretatik, 30.232 m²(s) dagozkio egun dauden eta finkatzen diren eraikuntzen eraikigarritasunari. Gainerako 3.738 m²(s)-ko azalera lotzen da orain planteatzen den eraikigarritasun berriarekin edo eraikigarritasunaren gehikuntzarekin —indarrean dauden Arau Subsidiarioetan aurreikusitakoa baino txikiagoa da—.

Hurrengo grafikoan islatzen da proposatutako antolamendua.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an
Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES



Era berean, honako grafiko honetan islatzen dira esparru funtzionalak, haien lehentasuneko erabileraren arabera bereizita —ekoizpen-jarduera, ur-kiroletako jarduera, erabilera mistoak eta abar—.



## V. GETARIAKO EGUNGO EGOERA SOZIOLINGUISTIKOA.

Egoera hori honako parametro hauen ondoriozkoa da (EUSTATetik lortuak):

1.- <u>Getariako populazioa 2019an.</u>

Taula honetan islatzen da.

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

| SEXUA | KOPURUA | EHUNEKOA -%- |
|---|---|---|
| Emakumeak | 1.418 | 49,28 |
| Gizonak | 1.428 | 50,18 |
| GUZTIRA | 2.846 | 100,00 |

2.- <u>Egoera soziolinguistikoa.</u>

A.- Euskararen ezagutza.

2016ko hizkuntza-inkesta erreferentziatzat hartuta, taula honetan islatu da Getarian bizi diren 2 urtetik gorako pertsonen euskararen ezagutzari buruzko egungo egoera.

| EZAGUTZA-MAILA | PERTSONAK –kop.- | PERTSONAK -%- |
|---|---|---|
| Euskalduneak | 2.272 | 84,34 |
| Ia euskaldunak | 157 | 5,83 |
| Erdaldunak | 265 | 9,84 |
| Guztira | 2.694 | 100,00 |

B.- Euskararen erabilera etxean.

Taula honetan islatu da 2016ko egoera orokorra.

| HIZKUNTZA | PERTSONAK –kop.- | PERTSONAK -%- |
|---|---|---|
| Euskara | 1.998 | 71,59 |
| Gaztelania | 493 | 17,66 |
| Biak | 204 | 7,31 |
| Beste hizkuntza bat | 96 | 3,44 |
| Guztira | 2.791 | 100,00 |

3.- <u>Gogoeta batzuk.</u>

Adituen eta erakundeen iritziz (UEMA, Soziolinguistika Klusterra…), udalerri bat euskalduntzat joko bada, euskara-indizeak % 70etik gorakoa izan behar du.

Getariaren indizea % 87koa da. Horrenbestez, parametro horren arabera, udalerri euskalduna da.

Era berean, 179/2019 Dekretuan ezarritakoaren arabera, *euskararen bizi-espazioak edo arnasguneak eremu geografiko eta soziofuntzionalak dira, zeinetan euskara dakiten pertsonen ehunekoa % 80tik gorakoa baita, eta euskaraz aritzea ohikoa eta orokorra baita gizarte-harremanetan ere, gaztelania ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea alde batera utzi gabe.*

Getarian euskaldunak % 84,34 dira. Horrenbestez, % 80tik gorakoa da. Era berean, etxeetako erabileraren datuak erreferentziatzat hartuta, euskara herritarren % 71,59k erabiltzen dute. Hartara, pentsa daiteke euskara ez dela gizarte-harremanetako ohiko hizkuntza orokorra (bai, horretarako ere, % 80tik gorakoa izan beharko luke).

Inguruabar horietan, eta abiapuntutzat hartuta arnasgunetzat jotzeko % 80ko ehunekoa gainditu behar dela bi alderdi horietan (euskararen ezagutzan eta erabileran), ondoriozta daiteke, a priori, Getaria ez dela arnasgunea, alderdi horietako batean ehunekoa betetzen den arren bestea ez baita betetzen.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA



## VI. PLAN BEREZIAREN HIZKUNTZA-EBALUAZIOAREN BEHARRA.

1.- Lege-esparrua

179/2019 Dekretuan (51. artikuluan) ezarritakoaren arabera, kasu hauetan, besteak beste, ez da eragin linguistikoaren ebaluazioa egin beharko:

* Funtsezkoak ez diren aldaketak egiten direnean plan edo proiektuetan.
* Hizkuntzan eraginik ez duten planak onartzen direnean.

2.- Plan Bereziaren proposamenak eta eraginak.

IV. epigrafean azaldutakoaren arabera, eta portua handitzea baztertu ondoren, Plan Bereziaren helburua da Getariako Portuaren eremua xehetasunez antolatzea, betiere egungo portu-espazioa hobetzea eta lehengoratzea eragingo duten baldintzetan. Besteak beste, hiru helburu hauek hartuko dira aintzat:

Batetik, arrantza-jarduerak eta ur-kiroletako jarduerak baldintza egokietan garatzea.

Bestetik, erabiltzen ez diren eraikuntzak aktibatzea eta leheneratzea, eraikuntzak birgaituz eta erabilera egokietara bideratuz.

Azkenik, portuaren eta hirigune historikoaren arteko oinezkoentzako konexioak hobetzea eta, horrekin batera, portua Getariako hiri-bilbean integratzea.

Hortaz, udalerrian aurrez dagoen eta haren hiri-bilbearen eta idiosinkrasiaren parte den espazio bat berritzean datza.

Aurreikusitako eraikigarritasunaren gehikuntzaren [3.738 $m^2$(s)] helburu nagusia da gaur egungo jarduerak baldintza egokietan garatu ahal izatea, beste jarduera batzuk garatzeko eta ezartzeko asmorik gabe.

Testuinguru horretan, eta ondoren adieraziko diren arrazoien ondorioz, Plan Bereziak eta bere proposamenek ez dute Getariako biztanleria eta/edo bisitariak gehitzea ekarriko.

Batetik, ez dute bertan bizi den populazioa gehituko, ez baita etxebizitza berriak eraikitzea aurreikusten.

Bestetik, ez da aurreikusten lan-arrazoien ondoriozko bisitariak gehitzea, lanpostu berriak sortzea aurreikusten ez den heinean eta/edo sor daitezkeenak unean unekoak eta garrantzi berezirik gabekoak izango baitira.

Azkenik, ez da aurreikusten bisitariak gehitzea turismoaren, aisiaren eta abarren ondorioz, ez behintzat une honetan arrazoi horren ondorioz udalerrira iristen direnen gainetik. Hau da, Plan Bereziak eta bere proposamenek ez dute arrazoi horien ondorioz eraginik izango errealitatean eta egungo joeretan (ez aldatzeko, ez gehitzeko).

3.- Eusko Jaurlaritzaren gidalerroen galdetegi laburra

Ondoren, galdetegi hori eta emandako erantzunak jaso dira:

A.- Plan Bereziak eraginik izango al du udalerriko populazioan, etxebizitza berriak proiektatzeagatik, lanpostu berriak sortzeagatik, eta abar?
Azaldutakoaren arabera, ez da aurreikusten udalerriko biztanleria handitzea ekar dezakeen etxebizitza berririk eraikitzea.
Ezta, lan-arrazoiengatik bisitariak gehitzea eragin dezakeen lanpostu berririk sortzea ere. Eta, bakarren bat sortuko balitz, lanpostu berri horiek eta horien eraginak hutsalak izango lirateke.

B.- Plan Bereziak eragin adierazgarririk izango al du udalerriko bisitarien kopuruan, aisialdiko espazioak sortzeagatik, beste zerbitzu batzuk aurreikusteagatik, eta abar?
Plan Bereziak ez du aurreikusten udalerrira bisitari berriak iristea eta/edo egungoak gehitzea ekar dezaketen gune berriak gaitzea edo zerbitzu berriak ezartzea.
Horri dagokionez, nabarmendu behar da Planak Getariako egungo errealitatearen eta idiosinkrasiaren parte den espazio batean (portuan) esku hartzen duela, eta zenbatetsi da bertan planteatutako antolamendu- eta garbiketa-jarduketek ez dutela egungo egoera aldatuko (eta are gutxiago nabarmen aldatuko).

C.- Plan Bereziak izan al dezake bestelako eragin adierazgarririk Getariako egoera soziolinguistikoan?
Ez da aurreikusten Plan Bereziak Getariako egoera soziolinguistikoan nabarmen eragingo duen bestelako eraginik edo ondoriorik izatea eta, zehatzago, euskararen egungo egoeran eragin kaltegarririk izatea.
Hartara, ez da aurreikusten arlo horretan eragina izan dezaketen ekipamenduak edo instalazioak eraikitzea (kultura-zentroak…).

Aldi berean, turismoa (eta horren ondorioz bisitariak) udalerrian garrantzi handia duen errealitatea direla kontuan izanik (batez ere uda garaian), ez da aurreikusten Plan Bereziak eta bere proposamenek ondorio berezirik izatea horri dagokionez. Ez da aurreikusten Planak egungo joera turistikoak aldatzea eta gehitzea.

4.- <u>Gogoeta batzuk.</u>

Aurreko ataletan azaldutakoaren arabera eta 179/2019 Dekretuaren 51. artikuluan ezarritakoaren arabera, Plan Bereziak eta bere proposamenek hizkuntza-eraginik ez izatea pentsa daiteke.

Hortaz, eta artikulu honetan bertan aditzera emandakoaren ildotik, ez da Plan Bereziaren eragin linguistikoaren ebaluazioa egin beharrik.

## VII. ONDORIOAK.

VI. epigrafean adierazitakoa kontuan hartuta, ondoriozta daiteke ez dela Getariako Portuaren Plan Bereziaren eragin linguistikoaren ebaluazioa egin beharrik, Plan Bereziaren proposamenek ez baitute eraginik izango euskararen egungo egoeran.

Hori dela eta, ez da zertan hizkuntza-azterketaren irismena zehaztu (179/2019 Dekretuaren 53. artikulua), ezta hizkuntza-eraginaren azterketa egin (179/2019 Dekretuaren 54. artikulua).

Donostia, 2021eko maiatza.

Sin.: Santiago Peñalba Manu Arruabarrena Mikel Iriondo

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA



EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA



# Dokumentua: “G. EGIKARITZE-LABURPENA”

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

**LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA**
**EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA**

**IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA**

## AURKIBIDEA

I. Laburpen honen xedea.

II. Egikaritze-laburpenaren beharra. Edukia.

III. Egungo egoera. Indarrean dagoen hirigintza-araubidea. Planteatutako hirigintza-proposamenak.

IV. Proiektuaren emaitzazko hirigintza-antolamenduaren aldaketak.

V. Proiektuaren ondoriozko eraginak, indarrean dagoen hirigintza-antolamendua eteteari dagokionez eta/edo egikaritze-prozesuari dagokionez.

## I. LABURPEN HONEN XEDEA.

Laburpen honen xedea da Getariako Portuaren Antolamenduko Plan Bereziaren (Getarian indarrean dauden Arau Subsidiarioetako “XIV. Portua” hirigintza-esparrua) egikaritze-laburpena azaltzea eta ezagutaraztea, arlo horretan indarrean dauden legezko xedapenetan ezarritakoaren arabera, eta, zehazki, II. epigrafean aipatzen diren xedapenen arabera.

Hirigintza-dokumentu hau prestatu da eraginpean dagoen esparruan indarrean dagoen hirigintza-araubidea aldatzeko, bertan adierazitako baldintzetan eta irismenarekin.

## II. EGIKARITZE-LABURPENAREN BEHARRA. EDUKIA.

2015eko urriaren 30eko Lurzoruari buruzko Legearen Testu Bateginaren 25. artikuluan ezarritakoaren arabera (7/2015 Legegintzako Errege Dekretua), *hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko edo aldatzeko prozeduretan, jendaurrean jarritako dokumentazioak honako alderdi hauek adierazten dituen laburpen exekutiboa ekarri beharko du*:

a) *Proiektaturiko antolamenduak indarrean dagoena zein eremutan aldatzen duen zedarriztatzea, kokalekuaren plano bat emanez eta aldaketa horren norainokoa adieraziz.*

b) *Hala badagokio, zein eremutan uzten diren geldieran hirigintza-antolamendua edo hirigintza-planak exekutatzeko zein hirigintzan esku hartzeko prozedurak, eta geldiera horren iraupena.*

Agindu hori, era berean, 105/2008 Dekretuaren 32. artikuluan berresten da, eta honela osatzen da: indarrean dagoen antolamendua aldatzen duten eremuen mugaketari dagokionez, *informazio grafikoko planoak edo tresnak sartu behar dira, egungo egoera eta antolamendu horrek aurreikusitako etorkizuneko irudia alderatu ahal izateko*.

Hurrengo IV. epigrafean, labur-labur azaltzen dira Getariako Portuko "Portua" esparruaren zatien identifikazioari eta mugaketari buruzko alderdiak. Hirigintza-dokumentuan proposatutako hirigintza-antolamenduak aldatu egiten du indarrean dagoen hirigintza-antolamendua. Era berean, V. epigrafean, labur-labur azaltzen da dokumentu horrek zer eragin duen indarrean dagoen antolamendua etetearen arloan eta/edo antolamendua egikaritzeko prozesuak etetearen arloan.

Aurrez, eta agindu hori behar bezala betetzeko, hurrengo III.4. epigrafean labur-labur azaltzen dira hirigintza-dokumentuaren helburuak.

## III. EGUNGO EGOERA. INDARREAN DAGOEN HIRIGINTZA-ARAUBIDEA. PLANTEATUTAKO HIRIGINTZA-PROPOSAMENAK.

### 1.- Getariako Portuko “Portua” hirigintza-esparruaren egungo egoera.

Esparruak indarrean dauden Getariako Plangintzako Arau Subsidiarioetan zehaztutako azalera baino azalera txikixeagoa du; izan ere, Portu Sailak eskatuta, esparruaren mugaketa portuko jabari publikoaren mugaketara egokitu da, eta 224.050 m²-ko azalera du guztira.

Planaren mendeko lursaila udalerriko egungo portu-zonari dagokio, eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren aurreikuspenei egokitu nahi zaie.

Eremua nabarmenki angeluzuzena da, eta San Anton Mendiaren (Getariako Sagua) hegoaldean dago, ekialdetik mendebalderako noranzkoan.

[illegible] dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

Hasierako portua mendiaren hegoaldeko magalean zegoen, eta dikeen bidez handitu zen iparraldera eta ekialdera, gaur egungo osaera izan arte.

Eraikinak daude San Anton mendiari lotzen zaion tokian edo istmoan ─hortxe daude zaharrenak─ zein iparraldeko dikean.

Funtsean, arrantza-industriarekin lotutako portu-eraikinak dira, eta, neurri txikiagoan, beste erabilera batzuetarako ere erabiltzen dira: industriarako, hirugarren sektorerako edo aisialdirako.

Gaur egun eraikin gehienak erabiltzen dira, antzinako kofradiarena eta izotz-fabrikarena izan ezik.

## 2.- Indarrean dagoen hirigintza-araubidea.

Getariako udalerrian aplikatzekoa den plangintza orokorra osatzen dute Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluak 2007ko ekainaren 19an onartu zituen eta indarrean dauden Arau Subsidiarioek. Ondoren, 2008ko uztailaren 15eko ebazpen bidez onartu zen haren Testu Bategina.

Arau horietan, zenbait dokumentuk guztiz zehazten dute aplikatu beharreko plangintza orokorra eta, bereziki, proiektu honen esparruan kontuan hartu behar dena. Ildo horretan, Plan Berezi honetan kontuan hartu dira aipatutako espedienteek eremua garatzeko proposatzen dituzten esku hartzeko irizpideak eta helburuak eta hirigintza-zehaztapenak.

Indarrean dauden Arau Subsidiarioek hiri-lurzoru gisa sailkatzen dituzte esparruko lursailak, eta, lehentasunez, portuko erabileretara bideratzen dituzte; horiek antolatzeko eta etorkizunean garatzeko Plan Berezi bat formula dadin ezartzen dute.

Egungo eraikigarritasuna finkatzen da, 29.980,75 $m^2$(s), eta, Plan Bereziaren formulazioan, % 15 gehitzea baimentzen da —alegia, guztira 34.478 $m^2$(s)—.

## 3.- Plan Bereziaren proposamenak.

Proiektu honen helburua da, beraz, Getariako portuaren esparrua erabat antolatzea Arau Subsidiarioetan oinarrituta, eta lehendik dagoen egitura integratzea Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak proposatutako antolamendu berriarekin.

Proiektuak, hasiera batean, zortzi motatako azpizona global edo esparru funtzional bereizten ditu Portuko Sistema Orokorraren barruan: arrantza-zona, ur-aisialdikoa, industria- eta merkataritza-erabilerako zona, erabilera mistoetako zona, lehorreko sarbidea, ur-geruza, itsasertzeko zona eta hondakin-uren araztegia.

Lehenengo zehaztapen horretatik abiatuta, Plan Bereziak esku hartzeko eremuaren zonifikazio xehatua zehazten du, eta zona eraikigarriak eta eraikiezinak bereizten ditu, erabileraren eta xedearen arabera.

Halaber, proiektuan zehazten dira emaitzazko partzelen eraikuntza-baldintzak eta antolamenduaren definizio geometrikoa, partzela eraikigarriei dagokien eraikigarritasuna esleituta.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

Hartara, arrantza-jarduerara zuzentzen den portuko zonan 11.058,70 m²(s) antolatuko dira eta ur-aisialdiko jardueretara zuzentzen den zonan, berriz, 2.575,85 m²(s). Horri gehitu behar zaizkio industria- eta merkataritza-erabilerako 10.862,30 m²(s), erabilera mistoko 9.213 m²(s) eta eremua hartzen duen araztegiaren zatiko 8,90 m²(s); horrek 33.718,75 m²(s)-ko emaitza ematen du, 25.316 m²-ko oin-okupazioan. Eraikigarritasun antolatua indarrean dauden Arau Subsidiarioek baimendutako 34.478 m2 (t) -tik beherakoa da, eta gainerako 759 m2 (t) (biribiltzea) zuzenean ordenatzen dira, portuaren kudeaketaren arabera.

Esparrurako sarbideak hirigune historikoaren bi aldeetan eta erdigunean mantenduko dira, eta egungo errepideak ez dira aldatuko, printzipioz. Aldi berean, lurpeko aparkaleku-zuzkidurak aurkeztu dira, kirol-dartsenan zein kofradiako kaian, eta oinezkoentzako ibilbideak eta egonaldirako eremuak zehaztu dira.

Hurrengo tauletan azaltzen dira planteatutako proposamen zehatzak.

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## EZAUGARRI OROKORREN TAULA

| | **PROPOSAMENA** | **A. S.** |
|---|---|---|
| **"PORTUA" EREMUAREN AZALERA** | **223.964 m²** | 226.584 |
| **"PORTUA" EREMUAREN ZONIFIKAZIO GLOBALA** | | |
| SO - PZ (portu-zona) | **223.964 m²** | ----- |
| Lursail-azalera (ur-geruza kenduta) | 124.842 m² | ----- |
| MUGATUTAKO ESPARRU FUNTZIONALAK:<br>Azalerak | | |
| * Arrantza-erabilerak | **34.864 m²** | |
| * Ur-aisialdiko erabilerak | **14.699 m²** | ----- |
| * Industria- eta merkataritza-erabilerak | **12.109 m²** | |
| * Erabilera mistoak | **15.150 m²** | |
| * Lehorreko sarbidea | **28.743 m²** | ----- |
| * Ur-geruza | **99.122 m²** | ----- |
| * Itsasertza | **19.273 m²** | ----- |
| * Araztegia | **4 m²** | |
| | | |
| **ANTOLATUTAKO ERAIKIGARRITASUNA** | | |
| **Eremukoa, guztira** | **33.718,75 m²(s)** | Egungoa finkat.<br>AS onarpena %15 gehikuntza<br>Zenbatesp.<br>34.478.- |
| **Plantako okupazioa** (inguratzaile maximoa) | **25.316 m²** | |
| **ERAIKIGARRITASUNAREN KOKAPENA** | | |
| "Arrantza-erabilerak" zonak: | | |
| * Eraikigarritasuna: | **11.058,70 m²(s)** | |
| "Ur-aisialdia" zonak: | | |
| * Eraikigarritasuna: | **2.575,85 m²(s)** | |
| "Industria eta merkataritza" zonak | | |
| - Eraikigarritasuna: | **10.862,30 m²(s)** | |
| "Erabilera mistoa" zona | | |
| - Eraikigarritasuna: | **9.213,00 m²(s)** | |
| "Hondakin-uren araztegia" zona | | |
| * Eraikigarritasuna: | **8,90 m²(s)** | |
| **Eraikigarritasuna, guztira:** | **33.718,75 m²(s)** | Egungoa finkat.<br>AS onarpena %15 gehikuntza<br>Zenbatesp.<br>34.478.- |

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

**<u>PROIEKTATUTAKO ERAIKIGARRITASUNA</u> .**
Araudi Subsidiarioek baimenduta.: ........................................................................................ 34.478,00

Proeiktatutako eraikigarritasuna guztira 34.478 $m^2$(t) da.

Eraikigarritasun antolatua lurzati eraikigarrietan: ........................................................................ 33.718,75
Aldea (biribiltzea): 759,00

"Portua" eremuan egin daitezkeen gainerako 759 m2 (t) horiek lurzati eraikigarrietan banatuko dira, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak bere kudeaketa-funtzioen arabera, portuak eta haren instalazioek behar bezala funtzionatzeko sortzen diren premien arabera.

## ZONIFIKAZIO OROKORRA – MUGATUTAKO ESPARRU FUNTZIONALAK

| ESPARRUAK | AZALERA (m²) | EREMUAREN % (%) |
|---|---|---|
| **PORTU-ZONA – "ARRANTZA-ERABILERAK"** | 34.864 | 15,57 |
| **PORTU-ZONA – "UR-AISIALDIKO ERABILERAK"** | 14.852 | 6,63 |
| **PORTU-ZONA – "INDUSTRIA- ETA MERKATARITZA-ERABILERAK"** | 12.109 | 5,41 |
| **PORTU-ZONA – "ERABILERA MISTOAK"** | 14.997 | 6,70 |
| **PORTU-ZONA – "LEHORREKO SARBIDEA"** | 28.743 | 12,83 |
| **PORTU-ZONA – "UR-GERUZA"** | 99.122 | 44,26 |
| **PORTU-ZONA – "ITSASERTZA"** | 19.273 | 8,60 |
| **PORTU-ZONA – "HONDAKIN-UREN ARAZTEGIA"** | 4 | 0 |
| ***"PORTUA" EREMUA, GUZTIRA*** | ***223.964*** | ***100,00*** |

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

## KALIFIKAZIO XEHATUA

| ERABILERA XEHATUKO ZONAK | AZALERA (m²) | EREMUAREN % (%) |
|---|---|---|
| **P. ARRANTZA-ERABILERAKO ZONAK** | | |
| **P.1 – Arrantza-erabilera** | 20.966 | |
| ***P. ARRANTZA-ERABILERAKO ZONAK, guztira*** | ***20.966*** | ***9,36*** |
| **NR. UR-AISIALDIKO ERABILERAKO ZONAK** | | |
| **NR.1** | 9.306 | |
| **NR.2** | 76 | |
| ***NR. UR-AISIALDIKO ERABILERAKO ZONAK, guztira*** | ***9.382*** | ***4,19*** |
| **IC. INDUSTRIA- ETA MERKATARITZA-ERABILERAKO ZONAK** | | |
| **IC.1** | 2.191 | |
| **IC.2** | 8.319 | |
| **IC.3** | 212 | |
| ***IC. INDUSTRIA- ETA MERKATARITZA-ERABILERAKO ZONAK, guztira*** | ***10.722*** | ***4,79*** |
| **M. ERABILERA MISTOKO ZONAK** | | |
| **M.1** | 13.129 | |
| **M.2** | 544 | |
| **M.3** | 47 | |
| **M.4** | 65 | |
| **M.5** | 41 | |
| ***M. ERABILERA MISTOKO ZONAK, guztira*** | ***13.826*** | ***6,17*** |
| **V. BIDEAK** | | |
| **VR.– Ibilgailuen bideak** | | |
| **VR.1** | 15.964 | 7,13 |
| **VR.2** | 5.913 | 2,64 |
| **VP.– Oinezkoen bideak** | | |
| **VP.1** | 236 | 0,11 |
| **VP.2** | 3.406 | 1,52 |
| **VP.3** | 357 | 0,16 |
| **VP.4** | 934 | 0,42 |
| **VP.5** | 332 | 0,15 |
| **VP.6** | 163 | 0,07 |
| **VP.7** | 85 | 0,04 |
| **VP.8** | 1.721 | 0,77 |
| ***V. BIDEAK, guztira*** | ***29.111*** | ***13,00*** |
| **EL. ESPAZIO LIBREAK** | | |
| **ELP.– Babeseko espazio libreak** | | |
| **ELP.1** | 6.733 | 3,01 |
| **ELP.2** | 197 | 0,09 |
| **ELP.3** | 320 | 0,14 |
| **ELP.4** | 624 | 0,28 |
| **ELP.5** | 3.016 | 1,39 |
| **ELP.6** | 3.465 | 1,55 |
| ***EL. ESPAZIO LIBREAK, guztira*** | ***14.445*** | ***6,45*** |
| **LA. UR-GERUZA** | | |
| **LA.1** | 99.122 | |
| ***LA. UR-GERUZA, guztira*** | ***99.122*** | ***44,26*** |
| **I. PORTUKO AZPIEGITURAK (Dikeak)** | | |
| **IP. 1** | 10.088 | 4,50 |
| **IP. 2** | 10.804 | 4,82 |
| **IP. 3** | 5.496 | 2,46 |
| ***I. PORTUKO AZPIEGITURAK, guztira*** | ***26.386*** | ***11,78*** |
| **DAR. HONDAKIN-UREN ARAZTEGIA** | | 0 |
| **DAR.1** | 4 | |
| ***DAR. HONDAKIN-UREN ARAZTEGIA, guztira*** | ***4*** | ***0*** |
| | | |
| ***“PORTU-ZONA” EREMUA, GUZTIRA*** | ***223.964*** | ***100,00*** |

EGINBIDEA: Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

DILIGENCIA: Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## PARTZELA ERAIKIGARRIEI ESLEITUTAKO ERAIKIGARRITASUNAK ETA OKUPAZIOA

| ZONA | AZALERA m²(p) | OKUPAZIOA (inguratzaile maximoa) m² | ERAIKIGARRITASUNA Sestra gainean | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | **Arrantza** | **Ur-aisialdia** | **Industria/ Merkatar.** | **Mistoa** | **HUA** | **Guztira** |
| | | | Sabai-az. m²(s) | Sabai-az. m²(s) | Sabai-az. m²(s) | Sabai-az. m²(s) | Sabai-az. m²(s) | Sabai-az. m²(s) |
| **P.1** | 20.966 | 9.600 | 11.058,70 | ----- | ----- | ----- | ----- | 11.058,70 |
| **NR.1** | 12.091 | 2091 | ---- | 2.500 | ---- | ---- | ---- | 2.500 |
| **NR.2** | 76 | 76 | ---- | 75,85 | ---- | ---- | ---- | 75,85 |
| **IC.1** | 2.191 | 2.009 | ---- | ---- | 3.572 | ---- | ---- | 3.572 |
| **IC.2** | 8.319 | 7.731 | ---- | ---- | 7.025,90 | ---- | ---- | 7.025,90 |
| **IC.3** | 212 | 212 | ---- | ---- | 264,40 | ---- | ---- | 264,40 |
| **M.1** | | | | | | | | |
| *A unitatea* | | *385* | ---- | ---- | ---- | *945* | ---- | *945* |
| *B unitatea* | | *959* | ---- | ---- | ---- | *2.480* | ---- | *2.480* |
| *C unitatea* | | *980* | ---- | ---- | ---- | *2.482* | ---- | *2.482* |
| *D unitatea* | | *139* | ---- | ---- | ---- | *408* | ---- | *408* |
| *E unitatea* | | *184* | ---- | ---- | ---- | *552* | ---- | *552* |
| *F unitatea* | | *249* | ---- | ---- | ---- | *700* | ---- | *700* |
| **M.1 guztira** | 13.129 | 2.896 | ---- | ---- | ---- | 7.567 | ---- | 7.567 |
| **M.2** | 544 | 544 | ---- | ---- | ----- | 1.370 | ---- | 1.370 |
| **M.3** | 47 | 47 | ---- | ---- | ----- | 108 | ---- | 108 |
| **M.4** | 65 | 65 | ---- | ---- | ----- | 108 | ---- | 108 |
| **M.5** | 41 | 41 | ---- | ---- | ----- | 60 | ---- | 60 |
| **DAR** | 4 | 4 | ---- | ---- | ---- | ---- | 8,90 | 8,90 |
| | | | | | | | | |
| **GUZTIRA** | **57.685,00** | **25.316,00** | **11.058,70** | **2.575,85** | **10.862,30** | **9.213,00** | **8,90** | **33.718,75** |

**(1)** Zenbatetsitako azalerak. Lehendik dagoen eraikigarritasuna finkatzen da, “D” eta “E” unitateetan eta “NR.1” eta “P.1” zonetan izan ezik, 272 m²(s), 166 m²(s), 2.000 m²(s) eta 1.060 m²(s) gehitzen baitituzte sestra gainean, hurrenez hurren.

**(2)** M2. zonaren eraikigarritasuna 460 m²(s) murriztu da gaur egun dagoenaren aldean Horrela, eraikigarritasun berri ordenatua 3.738 m2 (t) da.

"Portua" eremuan egin daitezkeen gainerako 759 m2 (t) horiek lurzati eraikigarrietan banatuko dira, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak bere kudeaketa-funtzioen arabera, portuak eta haren instalazioek behar bezala funtzionatzeko sortzen diren premien arabera.

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
...DE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## IV. PROIEKTUAREN EMAITZAZKO HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUAREN ALDAKETAK.

Plan Bereziaren proposamenek ez dute aldatzen indarrean dagoen hirigintza-antolamendua, hau da, indarrean dauden Arau Subsidiarioetan ezarritakoa.

Horren aurrean, Plan Berezia Arau Subsidiarioen garapenean sustatzen da, bertan ezarritako egiturazko antolamendua garatzeko eta osatzeko, betiere esparruaren antolamendu xehatua zehaztuz.

## V. PROIEKTUAREN ONDORIOZKO ERAGINAK, INDARREAN DAGOEN HIRIGINTZA-ANTOLAMENDUA ETETEARI DAGOKIONEZ ETA/EDO EGIKARITZE-PROZESUARI DAGOKIONEZ.

Plan Bereziaren ondoriozko eraginek oso lotura estua dute antolamendu xehatua zehazteko helburuarekin —eraginpean dagoen esparruan indarrean dagoen hirigintza-antolamendua eteteari zein egikaritzeari dagokienez—.Eta horri buruz planteatutako proposamenekin bat etorriz, adierazi behar da hasierako onarpenak honako alderdi hauek ekarriko dituela, besteak beste:

* Lizentzien emakida etetea, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 85. artikuluan, besteak beste, ezarritako kasuetan eta irismenarekin, betiere Planean (I.2 planoa) eta hurrengo grafikoan mugatutako Plan Bereziaren esparruan.

* Lizentzien eten hori gehienez urtebetekoa izango da Plan Bereziaren hasierako onarpenetik kontatzen hasita.

## VI. DOKUMENTAZIO GRAFIKOA

Epigrafe hauetan azaldutako aurreikuspenak hirigintza-dokumentu horren planoetan jasota daude, eta une honetan ez dago horiek errepikatu beharrik.

Lizentziaren eten horrek Plan Bereziaren esparruan du eragina, adierazitako baldintzetan.

Donostia, 2021eko maiatza.

| SANTIAGO PEÑALBA | MANU ARRUABARRENA | MIKEL IRIONDO |
|---|---|---|

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA
EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an.

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021.

**LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA**
**EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA**

**IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA**

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

## Dokumentua: “H. PLANOAK”

**<u>AURKIBIDEA:</u>** ........ <u>Eskala:</u>

## I. <u>INFORMAZIOA</u>

I.1 Eremuaren egoera ........ 1/5.000

I.2 Egungo egoeraren topografikoa. Mugaketa........ 1/2.000

I.3.1 Getariako Arau Subsidiarioak. Zonifikazio globala ........ 1/2.000

I.3.2 Getariako Arau Subsidiarioak. Zonifikazio xehatua ........ 1/2.000

## II. <u>PROIEKTUA</u>

II.1 Antolamendu orokor argigarria........ 1/2.000

II.2 Esparru funtzionalak. Atxikipen-mugak eta mugaketa........ 1/2.000

II.3 Zonifikazio xehatua ........ 1/2.000

II.4 <u>HIRI-ZERBITZUEN AZPIEGITURAK</u>

II.4.1 Ura banatzeko sarea........ 1/2.000

II.4.2 Saneamendu- eta drainatze-sarea ........ 1/2.000

II.4.3 Energia elektrikoaren hornidura-sarea........ 1/2.000

II.4.4 Argiteria publikoaren sarea ........ 1/2.000

II.4.5 Telekomunikazio-sarea........ 1/2.000

II.4.6 Gas-sarea........ 1/2.000

**EGINBIDEA:** Jasota gera dadin dokumentu hau dagokiola Getariako Portuko Antolamenduko Plan Bereziaren espedienteari. Horrek Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2021eko azaroaren 2ko Aginduaren bidez jaso zuen behin behineko onespena.

Vitoria- Gasteizen, 2021eko azaroaren 3an

**DILIGENCIA:** Para hacer constar que el presente documento corresponde al expediente de Plan Especial de Ordenación del Puerto de Getaria, aprobado provisionalmente mediante Orden de 2 de noviembre de 2021, del Consejero de Planificación Territorial, Vivienda y Transportes.

Vitoria- Gasteiz, 3 de noviembre de 2021

**LURRALDE PLANGINTZA ETA HIRI AGENDAREN ZUZENDARIA**
**EL DIRECTOR DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y AGENDA URBANA**

GOBIERNO VASCO
LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN TERRITORIAL, VIVIENDA Y TRANSPORTES

IGNACIO DE LA PUERTA RUEDA